

ttipi-ttapa



HUTSUNEA LEHEN MAILAKO OSASUN ARRETAN

Pediatra falta da eskualdeko osasun zentroetako gabezia nagusia: Bortzirietan eta Leitzaldean pediatarik gabe daude eta Baztanen pediatarren lanpostu erdia hutsik dute. Horretaz, eta bertze hainbat kontuz, aritu dira osasun profesionalak eta herritarrak. / 8

FREEPIK

Harrobiaren kontra Almandozen

Almandozko Uzketa parajea egin nahi duten harrobi proiektuaren kontra, alegazioak aurkeztu dituzte herritarrek eta kaltetuek. / 41

SINADURAK




ZOKKETA / 64



Irati Otxoteko
lesakarra LIDL-TREK taldeko masajista eta gidaria da / 12



Marga Erdozain
Doneztebeko liburutegiaren 30. urteurrenez / 28



Saran Astia izeneko jokoak sortu dute Olhain ikastolako hiru burasok / 50



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidades
www.kulturkari.com

Drone zerbitzuak





Dronearekin sortutako edukiak

Kalitatezko irudiak behar duzunerako

Publizitatea
Argazkiak
Film laburrak
Turismoa
Eraikuntza lanak...

Dronearekin egindako irudien edizioa eta muntala aukeran

LIDERRAK GURE ESKUALDEAN

baiza azterketa egiterakoan CIESeK Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen III udalerrien eremuan ere.

IKASKETA MAILAREN ARABERA

OHARRIZKO BATXILERGOA	% 11,5
OHARRIZKO IKASKITAK	% 19,1
LIBURTSILAREA	% 29,2
GOIMAILANO BATXILERGOA	% 40,1

ADINAREN ARABERA

14-19	% 6,1
20-24	% 6,7
25-34	% 12,5
35-44	% 14,5
45-54	% 20,4
55-64	% 14,9
65+	% 24,8

SEXUAREN ARABERA

EMAKUMEAK	% 54
GIZONAK	% 46

TTIPI-TTAPA

TTIPI-TTAPA	22000 iruzule
DIARIO DE NOTICIAS*	9000 iruzule
DIARIO DE NAVARRA*	5000 iruzule
GARA*	4000 iruzule
BERRIK*	4000 iruzule
NOTIZIAKITE*	3000 iruzule

*1. Osotara, azkeneko hamabostaldian
*2. Nafarroa Garaiko mendialdean, azkeneko aldan

DATU ITURRIA: CIES, 2023ko metatuak



NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

Letradunak badaki baina...

Urtebete behar izan zen obra egiteko baina Herri Areto bikaina gelditu zen: bil daitezkeen eserlekuak, zinemarako edo musika emanaldietarako argiteria eta soinu egokia... Noski, irisgarritasuna ere kontuan hartu zen eta koskarik gabe aretora sartu eta irten ahal izatea bermatu zen. Milioi bat euro kostatu zen lanak egitea, baina areto bikaina gelditu zen.

Ireki zen aretoa eta aurreneko ikuskizunak ederki joan ziren. Areto ezin hobea zen... inklusioaren aldeko ekitaldi bat antolatu eta gabeziak agerian gelditu ziren arte. Aretoa irisgarria zen ikus-entzuleentzat... baina ez mugikortasun arazoak zituzten artistentzat! Oholtzara igotzeko eskailerak zeuden, gaindiezinak gurgildun aulkientzat. Artisten aldagelak beheko solairuan zeuden, eskailera oso pikoak jaisteko, eta jaitsigailurik ez. Nola ez zen pentsatu artistengan? Esaerak dioen bezala, *Letradunak badaki, probatuak hobeki*. Arkitektoak oholtzara iristeko arazoak izan balitu ez zitzaien pasako! Eta orain zer?



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Detra lantzan

Ordenagailuko edo sakelakoaren autokorrektoreak agindu dezakeenaren beldur bizi garen garai honetan badakigu letra baten dantzak arrakastatik arrastaka ibiltzera alda gaitzakeela, gabarra tabarra bihur daitekeela edo (hau txirrindulazale beteranoentzat bakarrik) ez dela gauza bera *piñon fiyo* edo *Fignon pijo!* erratea. *Bakartu tantokeria!*

NABARMENTZEKOAK



HODEI LUJANBIO
LASTERKARIA



JOXEPA ZUBIRI
TALOGILEA

Denboraldi bikaina osatzen ari da Hodei Lujanbio korrikalari goizuetarra. Berriki, Talaia bidea eta Trail a la Virgen del Yugo probak irabazi ditu. Zorionak!

30 urtez ibili da Joxepa Zubiri bozatarra Erratzuko Zubi Punta ostatuan taloak egiten. Erretiroa hartzeko unea ailegatu zaio, eta herritarrek omenaldia egin diote. Gozatu erretiroaz!

GIBELERA BEGIRA



2014-04-17 · TTIPI-TTAPA · 612 zk.

Bidaziren azokaren irekiera

Bertze gisako kontsumo eta ekoizpen ereduak bultzatzeko asmoz, «bai plano pertsonalean, bai kolektiboan, baita ingurumenari begira ere, iraunkortasunean oinarrituta». Asmo horiekin sortu zen Bidazi Bidasoaldeko Kontsumo Elkarte eta duela 10 urte ireki zuten azoka Beran. 10 urteko bidea osatua zuten ordurako, eta proiektuan bertze «aurrerapauso» bat eman nahi zuten azokaren irekierarekin. Azokaz harago, bertze hainbat egitasmo ere bazituzten martxan: «Gizarte eredu berri baten inguruan martxan dauden hainbat proiektuarekin harremanetan gaude, eta hauekin elkarlanak, ezagutzera emateak... egitea pentsatua dugu. Jendeak interesa duen eta proposatzen dituen ideietara irekiak gaude».



Argitaratzailea
Ttiipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttiipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantxa
Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea
Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerreko Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2024ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerreka 47€
Leitza 40€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 110€
Amerika eta Australia 155€





KOLABORAZIOAK

AITZIBER ALMANDOZ LARRALDE

Odol isuriak

Ez dakit elurrari, eklipseari, ilargiari edo zeri eman ardua, baina iraultza txikiz beteta agertzen zaizkit bazterrak azken bolada honetan. Eta batzuetan, su eten pixka bat eskatzeko ausardia ere badut, ukaezina da beti eme heldu, ama eta emakume izatea baino errazago zaidala nini mindua izatea. Zer eginen diogu ba?

Aspalditik heldu zait neure burua, erran dudana eta erran gabe utzi dudana –azken hori gehienbat–, aztertu eta errotari milaka bira emateko joera. Akaso zerbait berria deskubritzeak sortzen didan grinak eramaten nau horretara, edo akaso bertzerik gabe burua gelditu eta isilarazten ez trebatu izana da. Edozein gisara, azkenean neure burua ez epaitzeko erronka bete-betea hastea erabaki dut, zuk ere saiatu nahi baduzu, ez da aukera txar-txarra, hamaika ezagutzen ditut makurragoak. Behin sortu eta zerbaitetan saiatu behar dela aditu izan dut eta! Ari naizen honetan amorraren adierazpen gordina azaleratzea ere baimentzea erabaki dut. Alizia Murilloren hitzak oroitzuz, «amorruek ezta ezta babesik gabeko izakien hemorragiak dira». Ezin ukatu dut nire odol isuriak odol gatzatu egiteko joera dudala eta ondokoen odol hustutzeak eskuarekin estutzeko gogo bizia sentitzen dudala, odol isuria odolustutze bilakatu ez

«**BARRENEKO
POZOIA ATERATZEA
BEZALAKO
ATSEDENIK EZ DA**»

dadin. Nahiz eta ikasten ari naizen, odol isuriak egon, egon behar duela eta barreneko pozoia ateratzea bezalako atsedenek ez dagoela norbera sendatzeko, libratzeko. Gainerakoan pozoitua dagon gorputzak

erazten direlako, eta nor naiz ni nire ezinetik bertzeen mina ezin sostengatu izangatik gorputzak pozoitzeraino estutzeko?

Gure hauskortasunak gure egiteak eta hauek aitzinetik jarriz mundura agertzeak egiten gaitu boteretsu eta indartsu. Amorruek norbere hauskortasunak aldarrikatzeko bide ezin hobea izan liteke, beti ere odol isuriak inor ziprizontzen ez duen bitartean. Aldarrikapenen herrian bizi garenez, norbera bere alderdi zuri eta beltzeekin, eta bitarte horretan ernatzen diren kolore guztiekin agertzera animatu nahi nuke mundua. Sare sozialetako poseetatik urrutu, dagoena itxura batera inperfektua dena perfektu egiteko aukera eginez. Ezagutzen al duzue libertate handiagorik?



GORKA LAURNAGA PEÑA

Gure kamisetek zer lotsa altxatzen dute?

Hain segur, denak ere zur eta lur gelditu gara Aldatzeko Tabakoaren kasuarekin. Zenbat istorio altxatzen ahal diren zigarreta ximple baten gibelean! Kasuaren xehetasunetatik haratago, gertatutakoa baliagarria da honako galdera planteatzeko: hemen bertan halakorik gertatzen bada, zer ez da gertatuko munduaren periferietan, fokuetatik urrun?

Erran ohi da kapitalismoak bere zorrak ordaindu gabe uzten dituela. Hanburgesa merkeak McDonaldseko langileen soldata kaxkarra du gibelean; palma olioeko bizkotxo harroak Borneoko Orangutanen basoen ttipitza; gure petroliok Qataroko eskubide urraketak eta 1,5 gradu. Eta Shein plataforman bortz euroren truke erosten ahal den *animal print* kamisetak? Nola da posible Zarako arropa hain merkea eta aldi berean Amancio Ortega hain aberatsa izatea? Akaso hemen erantzunaren puska bat:

- Nafarroan Traperos de Emausek astero (astero!) 50.000 kilo arropa inguru biltzen ditu.

- Kamiseta eta bakero bat egiteko 20.000 litro ur erabiltzen dira (pertsonek batek 27 urtetan edanen lukeena).

- Ikerlari batzuen arabera, Afrikako zenbait errekek (ehun industriaren ondoan kokatuak) duten alkalinitate maila lixibaren antzekoa da.

- Amancio Ortega gazteen artean pertsona miretsienetako bat da inkestean arabera.

«**ZARAKO ARROPA
HAIN MERKEA ETA
AMANCIO ORTEGA
HAIN ABERATSA?**»

- Inditexena zen Rana Plazako gertakarian 2013an 1.134 pertsona hil ziren eraikina erori zenean. Aitzineko egunean paretan arrakalak ikusi zituzten hainbat langilek eta ez zuten

lanera sartu nahi izan.

- Zorionez, istripu ezagunaren ondotik Bangladesheko langileen soldata ia bikoiztu egin zen! Hilabetean 28,4 eurotik 50,15 eurotara. Erregeak bezala hi! Baina halako alferrontziak gero gurera etortzen dituk lana ebastera!

Halako lotsak daude gure arropen gibelean altxatuak, berriz ere indiarrak konkistatzen dituzten *bakeroak*. Argazkian Alpeetako ur gardenen ondoan neguko txapel hori *fashiona* du *influencer* batek; Dhakan hori kolorea hartu duen erreka, *fashionaren* langile grisaren ondoan.

Baina, gainera, globalizazioak kargaontzietan ez ezik begitik begira ere bidaiatzen duenez, Andoaingo eta Shangaiko gaztearen begi ninitik *influencer*aren txapel hori bera sartzen denean, janzkera den espresio gaitasun eder hori pobretzen joaten da, aberastasun kultural hori ere Nike, Adidas, Zara, H&M, Quechua bezalako izenetara makurtuz. Janzkerak, hitzak, ofizioak galduz. Nork daki, agian etorkizunean *zapatari* karrikaren izena eramaten duen plakan bertzerik ez da agertuko.

Ereduz aldatu beharra dugu eta ahal dugu! Hor daude Trapeiros eta Ximikoberri edo Bask, baita bertako dendak ere. Baina, batez ere, *fast fashiona* eta aberastasun handiak erregulatuko dituen politika publikoak behar ditugu, eta, horretarako, argi izan Amancio Ortega ez dela sariak merezi dituen enpresari ongilea. Zenbat pobrezia behar den aberats bakoitzeko!

11 GALDERA LABUR

MARKEL JABALERA JUANENA DONEZTEBEKO FUTBOLARIA

«Ikaragarritzko esperientzia izan da Onddo Cup»

Futbola maite duen doneztebar gaztea da Markel Jabalera, eta Onddo Cup txapelketan parte hartu zuen Aste Santuan Elizondon; baita emaitza onak lortu ere, irabazteaz gain jokalaria onenaren saria eman baitzioten.

Nola definituko zenuke zeure burua?

Pertsona burugogorra bezala definituko nuke neure burua, gauzak gaizki egiten ditudanean berriz saiatzen naiz eta ez naiz inoiz errenditzen.

Zein dira zure zaletasunak?

Nire zaletasunetako bat futbolearen aritzea da, eta erraketarekin aritzea ere gustuko dut.

Nondik heldu zaizu futbolarekiko afizioa?

Aitarengandik heldu zait.

Noiz hasi zinen futbolearen jokatzen?

Ttiki-ttikitan hasi nintzen jokatzen, Doneztebeko taldean.

Antsoingo Gazte Berriak taldean aritzen zara gaur egun. Nola sortu zitzaizun hara joateko aukera?

Orain dela urte dezente Taxoareko eskolarteko txapelketan aritu ginen eta bertan txapelketako jokalaria hoberearen saria eman zidaten. Horregatik izan nuen aukera Antsoingo taldean sartzeko, eta hagitx gustura egon naiz hasieratik.

Baztango Onddo Cup txapelketan parte hartu duzue aurten doneztebarrek. Zergatik?

Joan den urtean ere parte hartu genuen, baina ez genuen



hagitx torneo ona egin eta aurten arantza hori kendu nahi genuen.

Nolako esperientzia izan da?

Ikaragarritzko esperientzia izan da, eta maila hagitx altua zegoen.

Txapeldunak izan zineten. Lehia gogorra izan zen?

Lehia hagitx gogorra izan zen talde indartsuen kontra aritu ginelako, baina azkenean garaipena lortu genuen. Finalean izugarritzko giroa sortu zen kiroldegian.

Jokalaria onenaren saria eman zizuten. Espero zenuen?

Ez nuen espero, txapelketan jokalaria hagitx onak zeudelako, baina ilusioz hartu nuen saria.

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Epe motzera, Antsoingo taldearekin denboraldia ongi bukatzea eta igoera lortzea.

Eta epe luzera?

Egia erran ez dakit zer egingen dudan epe luzera, hainbat aukera ditut buruan...



1951tik
Casa Cambra
Ientzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toallak
Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

Liburutegi mugikorrek, landa-eremuko garapenerako tresna eraginkorrak

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA

EH BILDUKO PARLAMENTARIA

Pasa den martxoaren 21ean, Nafarroako Gobernuak premiatu genuen liburutegi mugikorren zerbitzua bultzatzen jarrai dezan, 2030a baino lehen landa eremuetako herritar guztiek eskura izan dezaten funtsezko zerbitzu publiko hori. EH Bildu taldeak aurkeztutako ebazpenak aldeko 48 boto eta 2 abstentzio (VOXeko bi ordezkariena) jaso zituen, Nafarroako Parlamentuko osoko bilkuran.

Liburutegi mugikorren afera ez da gauza berritzailea, baina gaurkotasun eta garrantzia handiko gai bat da. 1857an, *The British Workman* egunkariak dokumentatu zuen Kunbriako konderriko liburutegi mugikorrari buruzko lehen kasua, Ingalaterrako ipar-mendebaldean. George Moore filantropo eta merkatari ingelesak sortu zuen, «literatura ona herri barruan zabaltzeko», zaldi-gurdi bidez.

Estatu espainolean trakzio mekaniko bidezko lehen liburutegi mugikorra, berriz, 1938an, Gerra Zibilean bertan sortu zen: Fronteko Bibliobusa. Urte hartan, Kataluniako Generalitateak bibliobus bat antolatu zuen irakurketaren bidez gerra frontean borrokatzen zuten soldaduei gogoa eta aldartea altxatzeko, eta borrokarik gabeko uneetan asperdura uxatzeko. Urte bat beranduago, 1939an, gerrarekin batera amaitu zen ahalegin handi hori.

Aipatutako horien modura, hamaika adibide aurki ditzakegu munduan zehar. Estatu Batuetako Depresio Handian, gosetea eta langabezia nagusi ziren garaian, zaldizko liburutegi ibiltariak bultzatu zituzten Kentuckyn, *Book women* gisa ezagunak egin ziren emakume gazteek. Mongolian, 1990eko hamarkadaz geroztik, Dashdondog Jamba izeneko ipuin-idazleak

haurrentzako liburuak eramaten ditu gameluan, Gobiko desertuan barrena. Komunismotik kapitalismora igaro ostean, irakurketa bultzatzeko programarik ez zela ikusirik, hutsune hura bete nahi izan zuen bere ahaleginarekin. Hondar ale bat, gabeziez betetako desertuan. Ipuin-idazle eta liburuzainak dioen moduan, «liburutegi bitxi samarra dugu hemen: hormak basoz estalitako mendiez eginda daude, sabaia urdina da, zorua lorez estalitako estepa da eta irakurketarako lanpara eguzkia da».

Nafarroa Garaiko landa eremuko azken hamarkadetakoa esperientziara itzuliz, 1998ra jo behar dugu. Urte horretan, Aurizberriko liburutegi mugikorra edo Biblioneta martxan jarri zen. Martin Saragueta liburuzaina Pirinioetan atez ate liburuak banatzen hasi zen eta, proiektu xume hark, erreleboa izan du. 25 urte baino gehiago bete ditu eta Estatu mailako *Maria Moliner* lehiaketa ospetsuan lehenengo saria ere irabazi zuen 2016an.

2020. urtean Lizarraldeko bibliobus proiektua garatzen hasi zen, kasu honetan, Nafarroako Gobernuaren ekimenez. Egun, bibliobusak 51 herri zeharkatzen ditu eta potentzialki 8.500 herritarrei eskaintzen die zerbitzua. Urte berean, halaber, Leitzako liburutegian Liburutegi Ibiltaria proiektua sortu zuen Harkaitz Delgado liburuzainak, zerbitzua Aranoko, Goizuetako eta Aresoko herrietara eskainiz, bere ibilgailu pribatuaren bitartez. Hala, zerbitzua jendeari hurbiltzeko liburuzainek izan duten borondateari eta bokazioari esker, Nafarroa Garaiko landa eremuan 85 herritara iristen dira liburutegi mugikorrek, eta guztira 12.600 biztanlek jasotzen dute.

Hainbat garai eta parajetako adibideek argi erakusten dute. Liburutegi mugikorren zerbitzua tresna eraginkorra da oinarrizkoa den zerbitzu publiko hau herritarrengana hurbiltzeko, despopulazioaren aurka

borrokatzeko, irakurzaletasuna sustatzeko, pertsonen sormena eta gaitasun kritikoa indartzeko, arrakala soziala murrizten laguntzeko eta lurraldearen kohesioa bultzatzeko.

Martxoaren 21ean onartutako ebazpenak, konpromiso politiko berri bat suposatzen du. Hau da, orain arte, eskualde jakin batzuetan, ekinbide puntual batzuk bultzatu edota laguntzeaz haratago, Nafarroa osoko landa eremua kontuan hartzea esan nahi du, modu progresiboan eta arrazoizko epe muga zehatz batekin, oinarrizko zerbitzu arrakastatsu hau nafar guztien esku egon dadin. Konpromiso politiko hau bete dadin jarraipena eginen diogu EH Bildutik, landa eremuetako herriak bizirik iraunen badute, errepideak eta industrialdeak baino askoz gehiago beharko baitugu.

Beintza-Labaiengo egoera

MARIA TELLETXEA

BEINTZA-LABAIENGO GAZTE BATZUEN IZENEAN

Biztanle gutxiko herria, Nafarroako mendien artean kokatua dagoena. Husten ari den herri bat, karriketan geroz eta jende gutxiago ikusten dena. Honelakoa da Beintza-Labaien. Eta bertako gazteok gure herria maite dugun arren, kanpoan bilatu behar ditugu lan aukerak. Hala ere, aukera dugun aldiro, gure jaioterrira itzultzen gara, hemen baitugu gure bizitzaren zati handi bat. Baina, orain herrian bizitzen ari garen egoeraren ondorioz, aisialdirako dugun toki gutxietako bat ixteko zorian dago: Beintzako Orbela ostatua.

Bailaran bizi den edonork izanen du jada egoera honen berri, baina herriko gazte batzuk gure iritzia emateko beharra ikusten dugu. Sortu den egoera honen harira, udalak neurri batzuk hartu ditu. Suposatzen da egoera kudeatzeko hartu diren neurri hauek elkarbizitza hobeto bultzatzeko planteatu direla. Hala eta guztiz ere,

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

bistan da pertsona bakar batzuen nahiak betetzeko hartu direla, herriko giroa guztiz kutsatuz. Izan ere, neurri hauek familia baten lanbidea eta bizitza kaltetzen dituzte. Zer behar dago herriko familia eta negozio bati hainbeste oztopo jartzeko?

Eta, zergatik hartzen dira herriari hainbertze eragiten dieten erabaki garrantzitsuak herritarroi bizkarra emanez? Prozesu honetan zehar, askotan informazioa falta izan dugu, zerbitzu horren erabilera egiten dugun neurrian, guri ere eskaini beharko zitzaigukeena. Bestalde, herritar batzuen ikuspuntua da hartu diren erabakiak gure nahiei eta beharrei erantzun gabe hartu direla. Udalak eremu hauetan azken hitza badu ere, herritarren ordezkari bezala funtzionatu behar du. Otsailaren 23an egin zen batzarrean, udalari egoera honetatik ateratzeko irtenbide bat eskatu zitzaion. Non dago irtenbide hori? Ostatuarekin akordio batera iritsi beharrean, are oztopo gehiago jartzen ari zaie ostalariei.

Zer etorkizun ikus dezakegu gazteok, herriko zerbitzu publikoak arriskuan badaude? Nolako bizitza eraiki dezakegu hiltorian uzten ari garen herri honetan? Izan ere, ostatua izan da biztanleoi 35 urtez etengabeko zerbitzu bat eskaini diguna, kalitatezko eta hurbileko zerbitzu bat. Are gehiago, herri barreneko ekonomian modu positiboan eragiteaz gain, gure herria mapan jarri dute, ahazten ari den herri honen izena kanpoko jende askoren ahoan jarriz. Beraz, azken bi urteotan kanpotar batek jarri dituen salaketei eta egin dituen mehatxuei bukaera bat ematea eskatzen dugu, ostalariei merezi duten laguntza eskainiz. Egoera hau guztia gertatzen ari dela onartzeak lotsarazi egiten gaitu herri gisa.

Azkenik, berriz ere, mesedez, udalari zerbait egiteko eskatzen diogu. Baina ez kanpotar baten nahiak betetzeko, baizik eta herriaren hobe beharra kontuan hartuz, hau da, ostatuak

aurrera jarraitzeko neurriak hartuz. Testu hau idazten dugun gazteok ez dugu ostatuak ekartzen duen bizitzarik gabeko herri bat ikusi nahi, non udalekuko haurrek karririk irriz betetzen ez dituzten, mendizaleek herri honetako paisaiak eta bidexkak ezagutzen ez dituzten, guk geuk mendiko buelta baten ondotik zerbait hartzeko tokirik ez dugun, geure familia eta lagunekin bazkari edo afari goxoak egiteko zerbitzurik ez dugun, igandeetan eguerdiko salda eta frijituak hartzeko ostaturik ez dugun, eta abar. Hau dena, Mikelek, Idoiak eta Beñatek eskaintzen dituzten irribarre eta goxotasunarekin batera.

Gure kezka idazten ditugu hitz hauen bidez, gazteok biziz, irriz eta giro onez betetako Beintza-Labaien batean sinesten dugulako. Hala ere, frustrazio sentimendu batekin ere idazten dugu: udalak orain arte ez badigu herritarrei entzun, zerk ziurtatzen digu oraingoan ezberdina izanen dela?

Beintza-Labaiengo Udala: «Neurri egokiak edo fede onaren kontrakoak?»

MIKEL ALBISU

ORBELA-BEINTZA ATERPEA

Berriki, TTIPI-TTAPAREN 851. zenbakian, Beintzako ostalariok emandako prentsaurrekoaren harira, Beintza-Labaiengo Udalak neurri egokiak hartu dituela adierazi du, legea zorrotz aplikatuz.

Baina udalak ez du erran:

1) Nafarroako Turismo Departamentuak ostatu-aterpetxearen kontrako salaketa artxibatu duela, 2023ko urrian egindako inspektzioaren eta 2024ko otsailean argitaratutako txosten teknikoaren ondotik; hau da, turismo aldetik legea zorrotz errespetatu dugu.


2) Udalak aholkularitza tekniko bat kontratatu duela herritar guztion diruarekin (Iruñeko Irisarri Nagore

abokatuak) ostatuari jangela bat kentzeko prozedura justifikatzeko eta ekimen hori Nafarroako Kontseiluak bertan behera utzi duela, zera erranez: «Udalak ez duela ostalarien defendatzeko eskubidea bermatu; aitzineko udalak akordioa legearen barrenean eta herriaren interesak bermatuz hartu zuela; honelako neurriak bakarrik kasu berezietan hartu behar direla, eta hau ez dela horrelako kasua; udalak baduela bertze bide bat hau konpontzeko, beti ere helburuak justifikatuz; eta, 13 urte pasatu ondotik, udalaren ekimen hau fede onaren kontrako dela».

3) Udalak ez du erran, otsailaren 23ko goizean (Herri Batzarra egin baino lehen) Beintzako ostatuari jangela kentzeko akordioa hartu zuela, horretarako epez kanpoko frogak aurkeztuz, hau da, baliorik ez dutenak.

Ostatuari jangela kentzearekin eta bere jarduerak oztopatzearekin tematua, zein izanen da udalaren hurrengo argudioa? Zerbaitetarako behar duela erranen digute? Zein izanen da hurrengo asmakizuna, hurrengo desinformazioa? Azkenik, udalak bizikidetzat aipatzen du: Zein da gure udalaren bizikidetzat eredu? Herria bitan banatu duena eta denon indarra ahultzen duena? Herriaren dirua abokatuaren gastatzen duena? Nafarroako Kontseilu berak «fede onaren kontrako» kalifikatu duena eta Beintzako ostatua eta herriko zerbitzu bat ixtera kondenatuko duena?

Oharra: Beintzako Ostatu-Aterpetxearen inguruan sortutako dokumentazioa www.orbela-beintza.com/egoera webgunean ageri da, prozesu luze bezain lotsamangarri honi buruz informazioa emateko.





Pediatra falta da eskualdeko osasun zentroetan duten hutsune nagusia. FREEPIK

Lehen arretako gabeziak berriz ere agerian

Bortziritan urtebete eta lau hilabete daramatzate pediatriarik gabe eta Berako mediku baten postua ere hutsik dute. Leitzaldean eta Urumealdean urte hasieratik ez dute pediatriarik eta mobilizazioekin hasi dira. Baztanen pediatra erdi baten postua dute hutsik eta Malerrekan plantilla osoarekin ari dira

G. PIKABEA

Lehen mailako osasun arreta berriz ere hizpide da gurean. Bortziritan pediatriaren lanpostua hutsik dago eta berriki Berako medikuaren postu bat hutsik gelditu da; Leitzaldean eta Urumealdean ere pediatriarik gabe daude. Malerrekako eta Bertizaranako kontsultategietan lanpostuak beteak dituzte eta Baztango kontsultategietan ia beteak, baina ordezkapenak egiteko zailtasunak dituzte. Osasun etxeetako martxa aldatzeak ere solasbidea sortu du. Izan ere, hitzordua eskatzeko deitutakoan, administrariak dira jendearen eskaerak bideratzen dituztenak, eta protokoloa ez da denen gustukoa.

Baztan eta Xareta aldea

Elizondoko Osasun Zentroan, Baztango herriz herriko eta Ur-

dazubiko eta Zugarramurdiko kontsultategietan goizeko eta guardiako medikuen eta erizainen, espezialisten eta administrariaren lanpostu ia guztiak beteak dituzte. Pediatriako lanpostu erdia dute hutsik, baina hori ez omen da arazo. Xabi Zarandona Elizondoko Osasun Zentroko zuzendariaren arabera, «Baztani pediatriako medikuen plaza bat eta erdi tokatzen zaizkio, baina erdika hori aspaldi hutsik dago». Moldatzen direla dio: «Epidemia garaian, abenduan eta urtarrilean, normala da pediatriaren kontsulta bete-

«OSPITALEETAKO
MEDIKU KOPURUA
AUNITZ GOITITU DA»

BAZTANGO OSASUN ZERBITZUAK

izatea eta oporrak hartzen dituen ordezkapenak egiteko ez da aukera handirik izaten». Hortik aparte, «ez da arazo berezirik izaten. Pediatra, berez, familia medikua da, baina urte dezente daramatza pediatrian». Bera arduratzen da Baztango, Urdazubiko eta Zugarramurdiko 1.122 haurrez.

Ordezkapenek ematen omen diete «lanik handiena»: «Profesionalen intzidentziak edo oporrak bete behar direnean lan gehiago sumatzen dugu. Gainerakook ordu gehiago egin behar ditugu».

«HAURREK ORAIN
DUTEN ZERBITZUA
EZ DA EROSOENA»

BORTZIRIETAKO OSASUN ZERBITZUAK

Bortziriak

Lesakako Osasun Zentroan eta Arantzako, Berako, Etxalarko eta Igantziko kontsultategietan lau administrari, zeladore bat, hamabi erizain, fisioterapeuta, psikologo eta gizarte langile bana eta hamaika medikuk ari beharko lukete, baina «bi mediku eta erdi falta» dituzte. Baldintza «makurragoetan» aritu izan direla onartu dute bertako arduradunek, baina «lanpetuak gaude, ez bakarrik jende faltagatik, baita lana ongi egiteko denbora falta dugulako ere». Administrazioak «profesionalak falta direla eta ez dagoela bitartekorik» erantzuten omen die: «Umezurtz uzten gaitu».

Gaur-gaurkoz bi hutsune nagusi dituzte: batetik, «orain dela aste batzuk Berako mediku bat Osakidetzara joan zen» eta bertetik, ia hiru hamarkadaz Bortziritako pediatra izan zen Belen Compains 2022ko abenduan jubilatu zen, eta geroztik, bere postua eta pediatriako bertze erdia hutsik daude.

Hutsune horri «taldeko bertze medikuekin eta bertze osasun eremuetako medikuekin» erantzuten saiatzen dira. Pediatriaren kasuan, «asteen bi egunez, arratsaldean, Elizondoko pediatra etortzen da eta haurrak Doneztebeko pediatriarengana bidaltzeko aukera dugu. Kasu larrietan helduen medikuak hor daude». Horren harira, «lantaldeko medikuen eta Elizondoko Eduardo eta Doneztebeko Iosu pediatriaren lana eskertu» dute.

Laneko martxa ere aldatu dute. 1.109 daude Bortziritan erreferentziako pediatriarik gabe, eta arreta emateko «eskaerak lehenbizi administrarietara bideratzen dituzte; gero erizainek haurrei lehenbiziko behaketa egiten diete eta euren erabakitzen dute nora bideratu: Doneztebeko pediatriarengana, edo helduen medikuengana». Horregatik diote «erizainen eta administrariaren beharra» dutela.

Bide horretan, herritarren «jarrera ona» ere eskertu dute, «euren pazientziagatik. Bada-kigu eurentzat ere ez dela erra-

za zirkuitu hori ulertzea, batzuetan bi bisita egin beharra, erizaina eta pediatria bi momentutan, Doneztebera joan beharra...». Jakitun dira «ez dela irteera erosoena» eta «zerbitzua behar bezala emateko ez dela nahikoa, baina gure helburua pediatria lortzea da eta gure esku dagoena egiten ari gara. Administrazioarekin harremanetan jartzen garen bakoitzean, eskaera nagusia pediatria izaten da».

Leitzaldea eta Urumealdea

Leitzako osasun zentroan bi medikuk, pediatriak –astean egun batez Goizuetan–, helduen bi erizainek eta pediatriako erizainak, larrialdietako hiruna medikuk eta erizainek, gizarte langileak (ostegunetan Goizuetan), psikologoak, fisioterapeutak eta bi administrarik ari beharko lukete lanean; eta Goizuetan, helduen medikuak eta erizainak, guardiako bi medikuk eta bi erizainek eta administrariak. Hala izanen litzateke lanpostu guztiak beteak balira, baina ez da horrela.

Josune Uranga Leitzako Osasun Zentroko erizainen buruak azken boladan aldaketak izan dituztela kontatu du, baina pediatria falta dute gabezia nagusia. Urtarriletik hala daude Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako 595 haur: «Pediatriarik gabegau, baina umeak Iruñera bidaltzeko aukera dago pediatriako erizainak beharra ikusten badu». Soluzioa, ordea, «hankamotz» gelditzen da gurasoen irudiko, «ez duelako gure seme-alaben arreta duina bermatzen» eta mobilizazioekin hasi dira. Apirilaren 27an, adibidez, argazkia aterako dute 11:30ean Leitzako plazan. Leitzako Udala ere mugitzen hasia da, eta Nafarroako Gobernuaren atea jo du, «pediatria zerbitzua lehenbailehen martxan jartzeko» eta «egoera behin betiko konpontzeko» eskatuz.

Urangak ere onartu du «berriz pediatria izateko borrokan» ari direla, baina hortik aparte, «gripe eta Covid epidemia bukatu dela dirudi eta orain lana nor-



Osasun etxeak zaintzeko eskatuz elkarretaratzeak egin zituzten 2020an eta 2021ean.

maltasunera bueltatu da». Gehiago ere bai: «Profesional falta dagoela argi dago, baina hemen, oraingoan, nahiko ongi moldatzen gara. Ea horrela segitzen dugun».

Malerreka eta Bertizarana

Malerrekako eta Bertizaranako herritarrei arreta emateko, goizeko txandan launa mediku eta erizain daude, eta larrialdietan hiruna mediku eta erizain. Hortik aparte, gizarte langilea dago eta lau administrari, erdiak lanaldi murriztuan. Psikologoa eta fisioterapeuta ere hurbiltzen dira Doneztebeko zentrorra eta X izpietako teknikaria ere hor dute. Monica Martin Doneztebeko osasun etxeko zuzendariak baieztatu duenez, «plantilla konpleto» dute. «Arazoak oporretan ordezkapenak egin behar direnean bakarrik izaten ditugu» eta halakoetan «estresasumaten da eta batzuetan gure oporrak ordezkaria libre dagoen egunetara egokitu behar izaten ditugu». Baina gainerakoan, «bal-dintza onetan ari gara».

«IRUÑETIK EGITEN DEN GESTIOA AGIAN EZ DA EGOKIENA»

LEITZALDEKO OSASUN ZERBITZUAK

Bertze osasun eremu batzuetan duten pediatria faltaren arazorik ez dute gaur egun Malerrekako eta Bertizaranako 906 haurrek, nahiz eta horretatik pasatuak diren. Halako kasuetarako, «patologia akutuen kasuan, haurrak familia medikuak artatzea nahikoa» izan daitekeela uste du Martinek, «baina patologia kronikoen kasuan, segimendua behar denean, egokierakoa da pediatriaren kontsulta».

Profesional falta baino gehiago

Arazo horien gibelean arazoi ugari daudela diote lau osasun eremuetako ordezkariak. Bat profesional falta izaten ahal da, baina ez da bakarria. Urangaren hitzetan «profesional gutxi daude eta Iruñetik egiten den gestioa agian ez da egokiena».

Bortzirietako osasun zentroko ordezkariak «aldaketarako garaia» dela diote: «gizartea aldatu denez, beharrak aldatu dira. Langileak falta ditugu, baina administrazioaren aldetik antolaketa berria behar dugu,

«OSASUNTSUEN GERO ETA ESKAERA GEHIAGO DITUGU»

MALERREKAKO OSASUN ZERBITZUAK

eta gizarteak ere inplikatu behar du. Kontuan izan behar dugu non bizi garen. Ulertzen dugu profesional batzuek Iruñetik etorri nahi ez izatea, baina ditugun baliabideekin, eta esfortzu handiarekin, aitzinera egiten saiatzen gara». Bide horretan, «administrazioak distantziaren arazoa saihesteko» egiten duen eginahala txalotu dute: «Adibidez, Osakidetzarekin hitzarmena sinatu berria du. Bortzirietan harreman gehiago nahi dugu eurekin eta haien baliabideak probestu. Kontzentzituak gaude jendearentzat ona izanen dela».

Lehen baino eskaera gehiago

Doneztebeko Osasun Zentroko zuzendariarendako «egoera konplexua da» eta «profesional faltaz» gain, bertze hiru arazoi adierazi ditu: Batetik, «biztanleria gero eta zaharragoa da, eta horekarretahandiagoa eskatzen du, batez ere landa eremuan, eta beraz, lan gehiago dugu». Bigarrenik, «osasuntsu dagoen herritarrek gero eta eskaera gehiago egiten dituzte: patologia arinak, ondoez psikologikoak, laneko arazoak...». Eta azkenik «espezialistengana joateko itxaron-zerrenda luzeak dira, eta horiei buruz erreklamazio aunitz» izaten dituzte. Administrazioak «profesionalik ez dagoela, eta herritarrek euren burua zaintzera eta baliabideak ongi erabiltzera bultzatzeko» erantzuten omen die, baina «espezialistekin itxaron-zerrendak murrizten saiatzeko» ere.

Elizondoko Osasun Zentroko zuzendariak «gazteek gero eta gehiago baloratzen duten berehalakotasuna» nabarmendu du: «Berehalako arreta nahi dute, baina gukezin dugu eman kasua ez bada hain larria. 2007an hasi nintzen lanean eta garai hartan 25 urtez beheitikoak osasun zentrorra joatea arras ezohikoa zen. Gaur egun, zifra horiek handitu dira. Internetarekin sintomen inguruko informazioa bilatzen dute, okerreza baztertzeko medikuarengana joatea erabakitzen dute eta erantzuna berehala nahi dute». →

→ Ospitaleetan gehiago

Bertze ertz bat paratu du mahai gainean Zarandonak, «Juan Simó medikuaren errana. Ospitaleetako larrialdi zerbitzuak hipertrofiatu direla dio. Azken hamar-hamabortz urteotan ospitaleetako medikuen kopurua aunitz goititu da. Normalean larrialdietan familia medikuak aritzen dira. Nik espezialitatea egin nuen ospitalean, adibidez, medikuen kopurua % 20 hazi da. Horrek herrietarako mediku guttiago dagoela erran nahi du». Garbi du egoerak «irtenbidea» behar duela eta bertze toki batzuetako adibideak aipatu ditu: «Levanten (Valentzia), betetzeko zailak diren lanpostuak hartzen dituzten medikuei 10.000 euroko gehigarria ematea erabaki dute, eta Galizian, betetzeko zailak diren pediatriako lanpostuen oposizioak egin dituzte».

Aseguru pribatuen kontratazioa «segur aski goititu» izanen dela ere erran du, «sistemak nahi bezain ongi funtzionatzen ez duen seinale». Eta zita eskatzeko, deien gestioa administrarietara egiteaz ere aritu da: «Lehen gaixoari hitzorduazainekin nahi zuen galdetzen zieten, eta gaixoak aukerari zuten. Orain administrariak zer tramite egin nahi duen galdetu eta ordua zeinekin eman erabakitzen du». Onartu du «euren prestakuntza administrariena dela, baina kasu jakin batzuetan badakite zeinengana bideratu. Akaso zailak dituztenean erizain bat eskura izan behar lukete. Bertzela, gaixoak beti medikuarekin nahiko du. Eskaerak kudeatzeko modu bat da, medikuen itxaron-zerrendak ez pilatzeko».

Etorkizuna

Osasun sistema publikoaren etorkizunari begira, Martinek «azterketa eta berrantolaketa sakona» eskatu du, «baliabideak birbanatzea eta herritarrek baliabideak hobeki erabiltzea».

Bortzirietako arduradunek «osasun publikoa defendatu» dute eta «osasun zerbitzuak aldatu» behar direlakoan daude, baita «osasunaren kontzeptua»



Ez da oraingo kontua pediatria zerbitzua bermatzeko eskaera. Irudia Goizuetan 2018an egindako elkarretaratze batekoa da. F. LOIARTE

ere: «Garrantzitsua da pertsona gizarte barrenean kokatzea eta erantzunak integratu izan behar du. Aldaketak poliki egiten dira, baina egiten ari dira, eta baliabide batzuk galdu ditugu, baina bertzeak lortu: ekografiak, kirurgia tikiak, edoskitze tailerrak, psikologoa, fisioterapeuta...».

Zarandonak «osasun sistema publikoaren finantziarioa behe-titu» dela dio: «BPGren portzentajearen arabera gastua jaitsi egin da 2008tik 2020ra. Gastua zenbaki absolutuetan igo da, baina osasunera bideratutakoaren portzentajea tikiagoa da». Hala ere, herriotan etorkizuna ikusten dio: «Osasun sistema pribatuak orain arte ez du publikoari konpetentzia egiteko gaitasunik erakutsi. Telemedi-

kuntzak larriak ez diren kasuetarako balio izaten ahal du, baina ez du aitzinera egin».

Eta egoera hobetzeko zer?

Elizondoko medikua «kupo sistema aldatzearen» aldekoa da: «Kupoen sistemarekin mediku bakoitza bere gaixoez bakarrik arduratzen da eta taldeko lan gehiago egin beharko litzateke. Adibidez, Arantzako medikua hilabete batez oporretan baldin bada, bidezkoa da hilabete osoan Arantzakoak medikurik gabe egotea?». Hori profesionalen ardurak dela dio: «Ez genuke gure gaixoez bakarrik arduratu behar. Baina hori taldeak onartu behar du. Gaur egun, langileak zer-baitera derrigortzea zaila da eta funtzionarioak zer erranik ez».

Bortzirietako arduradunak «administrazioak, profesionalak eta herritarrek bide berean lan egitearen garrantzia» aritu dira. Eta administrazioari «luzera begirako estrategiak eta aldatketak egiteko indarra» exijitu dizkiote. Eta herritarrei «norbere osasuna zaintzeko» deia, «hein batean, norbere ardura baita. Baliabideak ongi erabili behar dira. Horretarako prebentzioak eta heziketak garrantzi handia du eta lanean ari gara». Teknologiak «gauzak errazten» ahal dituela ere gaineratu dute.

Malerrekako arduradunak administrazioari hiru eskari egin dizkio. Bat, «osasun zentroen lana baloratu, herritarren arazo gehienei irtenbidea emateko eta gaixotasun konplexuak dituzten prozesuetan hurbileko arreta integratu emateko gai garelako»; bi, «baliabide egokiak bideratzeko» eta hiru, «Nafarroan osasun arretaren etorkizunaz plan erreala egiteko, egungo biztanleriaren errealtatea kontuan hartuz». Eta herritarrei bi mezuz: «Badira osasun zentroko edo ospitaletako arreta behar duten kasuak, baina denak gara gure osasunaren erantzule, garrantzitsua da norbere burua zaintzea eta ohitura osasuntsuak izatea. Bertzetik, osasun sistema publikoa zaindu eta errespetatu behar dugu. Aunitz kosta zaigu lortzea eta guttirik galdetzen ahal dugu. Herritarrek zerbitzua modu arrazionalagoan erabiltzen ez badute eta larrialdirik ez dagoenean berehalakotasuna eskatzen segitzen badute, egoera ez da hobetuko».

Zenbat dira euskaldunak?

Eskualdean aspaldiko eskaera izan da mediku euskaldunak izatea. Gaur egun zein da egoera? **Baztanen**, «gehienek euskaraz aritzeko gaitasuna» dutela dio zuzendariak: «Goizeko medikuen artean bi dira euskaraz ez dakitenak, tartean, pediatria, eta guardiako artean, erdiak ongi moldatzen dira. Erizainen kasuan, goizeko langileen artean, % 80tik goitik badaki euskaraz, eta guardikoetan, bakarra da moldatzen ez dena». **Bortzirietan** «31 lanpostuetatik 16tan euskara eskatzen da, eta euskaldunak 25» dira. Euskaldunak ez diren artean, «bi mediku euskara ikasten» ari omen dira. Horrekin batera, «lau erizainek lanaldi murriztua dute eta euren ordezkoak euskaldunak dira». **Malerrekan** euskarazko eskakizuna dutenak hauek dira: goizeko lau mediku eta bi erizain, gizarte langilea eta administraria. Baina plantilla osoa kontuan hartuta, mediku bat eta administraria dira euskaraz ez dakitenak. **Leitzan**, mediku batek, erizain batek eta administrari batek betetzen dute euskara eskakizuna eta **Goizuetan** medikuak, erizainak eta administrariak.

Zer iruditzen zaizue hartzen duzuen osasun arreta?



PAX IRUNGARAI ALEMAN
NARBARTE

«Arreta ona da baina itxaron-zerrendak luzeak»

Osasun arreta «nahiko ona» dela dio, «baina batzuetan ez bada hagitz larria ez dugu ordu-rik egun berean eta biharamu-nera arte esperatu behar dugu». Gisa berean, «kontent» da «orain plakak eta oftalmologiako kontsulta batzuk Donezteben dire-lako». Baina «itxaron-zerrendak luzeak» direla kritikatu du eta «motzagoak» izatea eta «osasun zentro handia izanda, espezialista gehiago» eskatu ditu. Peditraren beharra ere aipatu du: «urte batzuek gaizki ibili ziren, eta protestengatik egoera hobetu zen. Hori garrantzitsua da».



MAITANE MARIEZKURRENA ZIGANDA
LEITZA

«Argi dago pediatria behar dugula herrian»


Helduen beharrak «aseak» dituzte, nahiz eta «Covid garaitik, telefono deietara asko jo. Batzuetan gure erosotasunerako izan badaiteke ere, besteetan aurrez aurre ikusi beharrekoak dira». Eta pediatria falta dute. «Haurrak gaixotzean Iruñeko larrialdi zerbitzuetara jo behar dugu eta ez diete jarraipenik egiten, txandaro ezberdinak dira». Gehiago ere bai: «Alabaren lehen bi aste-ko azterketan pediatriak ikusi bazuen ere, lau hilabete pasatu dira berriz pediatriak ikusi arte, baina Iruñerako joan behar izan dugu».



ZURIÑE LUJANBIO ZABALA
GOIZUETA

«Dagokiguna nahi dugu, ez gehiago, ez gutxiago»

«Goizuetan mediku, erizain eta administrariaren arreta paregabea» da bere hitzetan, baina ama denetik «pediatria zerbitzuak, edo zerbitzu ezak, buruhauste eta kezka handiak» sortu dizkio. «Semeak osasun arreta handia behar du eta bi urte eta erdiko epean, bigarren aldiz gaude pediatrik gabe». Osasun publiko okertzen ari dela dio eta «jendea pribatura» doala: «Ez da bidezkoa dagozkigun zergak ordaintzen ditugulako osasun sistema publiko eta unibertsa-la izan dadin. Dagokiguna nahi dugu, ez gehiago, ez gutxiago».



MANOLI AZKARRAGA ARBURUA
URDAZUBI

«Behar izan dudanetan primeran tratatu naute»

Kontsultategira joan nahi izanez gero, Urdazubin ez dute telefonoz hitzordurik hartu behar izaten. Azkarragak kontatu duenez, «lehenengo marxan segitzen dugu. Behar dugunean joaten gara, eta lehenbiziko joaten dena lehenbiziko sartuko da, bigarrena bigarren... Txandaren arabera». Kontent dago zerbitzuarekin: «Ez dugu kexatzeko motiborik, konpleto gara eta hartzen dugun arreta aski ona da. Behar izan dudan guzietan primeran tratatu naute eta esker-erak eman nahi dizkiet».



MARI JOSE ARA IGLESIAS BERA

«Ez dut ulertzen zitak hartzeko protokoloa»

«Osasun arreta behar izan dudanean, medikuak beti hagitz ongi artatu nau, ez dut kexatzekorik. Baina ez dut ulertzen hitzordua eskatzeko protokoloa, administraria izatea lehenbiziko baheketan egin eta medikuak artatu edo ez erabakiko duena. Osasun zentrorako deitzen duenak behar duelako egiten du, ez nahi duelako». Dioenez, «osasun sistema publiko altxor handia da, baina azken boladan Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak ez dio kasu handirik egiten. Horren adibide argia da Bortziritan pediatrik ez izatea».



ESTHER GURUCHET ALZUGARAI
LESAKA-ARANTZA

«Zerbitzuak galtzen ari direla ikustea triste da»

«Pediatria zerbitzua da momentu honetan hankamotz duguna eta hor sumatzen dugu gabezia handiena: Ez dugu astelehentik ostiralerako zerbitzu sistematikoa eta pediatriarekin zuzenean ordua hartzea ezinezkoa da». Pediatriako «erizain kuttunak goizero hor daudela» oroitarazi du, «dagokiena baino ardura gehiago hartuz aunitzetan, baina konpetentziak ezberdinak dira». Emakumearentzako osasun arretan ere «gabezia» nabarritua du. «Triste da zerbitzuak galtzen ari direla ikustea».



MAIDER AZKARATE TOMASSONE ANIZ

«Arreta euskaraz ematea eskatuko nuke»

Mugairiko kontsultategian «zerbitzu ona» dutela dio: «Ordua segidan ematen dute, arazoren bat baldin bada, etxera etortzen dira eta medikua eta erizaina euskaldunak dira». Peditraren bertzelaioa da egoera: «Pediatria bat gehiago behar genuke, batzuetan bi egun esperatu behar dira ordua hartzeko. Bere arreta arras ona da, baina erdalduna da eta hori arazo bat da». Berdin emaginarekin: «Arreta ona da, baina erdalduna da». Arreta euskaraz izatea nahi du, baita «Iruñeko kontsulten itxaron-zerrendak murriztea» ere.



AINARA MINDEGIA BALEZTENA
AURTITZ

«Pediatrik falta dira eta hori ezinezkoa da»

Donezteben duten osasun arreta «ona» da bere ustez: «Urteak pasatu ditugu pediatrik gabe, ordezkapenekin, familia medikuekin... Eta 2023tik badugu pediatria». X izpien zerbitzuarekin «aunitz aitzindu» dutela ere aipatu du. Baina bada zer hobetu: «Eskualdean eta orokorrean Nafarroan hainbat osasun etxetan pediatrik falta dira eta hori ezinezkoa da. Lehen Arretako medikuak falta direla erraten dute, baina ez dakit falta diren edo euren egoera hobetu behar duten zerbitzua bermatzeko».

«Gaur egun neska gazteek emakumezko erreferenteak dituzte»

IRATI OTXOTeko ARLEGI LIDL-TREK TALDEKO MASAJISTA ETA GIDARIA

Haurra zela murgildu zen txirrindularitzan Iratxi Otxoteko Arlegi lesakarra. Hainbat urtez lehiatzen ibili ondotik, azken urteetan Lidl-Trek taldean ari da masajista eta gidari gisa lanean. Taldean egiten duen lanaz eta emakumeen txirrindularitzaren egoeraz mintzatu da

A. LARRETXEKA LESAKA

Denboraldi hasiera lanpetua izan du Irati Otxoteko Arlegi lesakarrak. Australia, Arabiar Emirerri Batuak, Valentzia... batean eta bertzean ibili da lanean eta hala izanen da urri hasiera arte, orduan bukatuko baitu denboraldia. Lidl-Trek taldeko masajista eta autobus gidaria da eta urte erdi ematen du etxetik kanpo lanean.

Nondik heldu zaizu txirrindularitzarako afizioa?

Aita da erruduna. Igandero lagunekin joaten zen bizikletan, eta ondotik etortzen zen niregana eta berarekin joaten nintzen bizikletan ibiltzera. Beti izan naiz kirolaria eta hemengo kirol guztiak probatu nituen, pilota, futbola... Baina ez zitzaizkidan gustatu. Inguruan baziren bizikletan ibiltzen zirenak, eta beraiekin hasi nintzen taldean.

Pistan aritzen zinen orduan?

Biak egiten nituen, baina hobe nintzenez pistan, gehiago gustatzen zitzaidan. Aitarekin bidaia aunitz egiten nituen Tafallara entrenatzera. Institututik atera, *tuper* bat jan, entrenatu eta 23:00etan itzultzen nintzen etxera.

Lehiatzen aritu zinen garaiko zer oroitzapen duzu?

9 urterekin hasi nintzen, eta 19 urterekin edo utzi nuen. Ikasketak bukatuta berriz ere hasi nintzen lehiatzen errepedeko bizikletarekin, eta lehen-dabiziko aldi bano hobeki

aritzen nintzen, baina, lana-ekin eta ez nuen denborarik. Oroitzapen hagitz politak ditut, bai errepidean eta bai pistan ere. Leku eta jende pila bat ezagutzen duzu. 16 urte nituela sanferminetan bizikletan entrenatzen ibiltzen nintzen. Lagunek erraten zidaten ea zer ari nintzen, eta bestara joateko, baina nik hori nahi nuen, bizikletan ibili. Bizitzako garai inportantea izan zen. Nire bizitzako zentroa ez bada izan, foku garrantzitsua izan da txirrindularitza.

Eta nola pasatu zinen bizikletan ibiltzetik lantalde teknikoan lanean hastera?

Trantsizio arraro xamarra izan zen. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua ikasi nuen, eta masterra Euskadi Fundazioan egin nuen. Bertan lanean hasteko aukera izan nuen, eta intentzioa prestatzaile gisa aritzen zen bertako afizionatuen taldean. Baina, azkenean, eskola kirolko arduradun gisa paratu ninduten. Urtebete egin nuen eta utzi egin nuen, eta nire kabuz hasi nintzen prestatzaile gisa. Aldi berean masaje ikastaro batzuk egin nituen. Talde batek erran zidan masajista bat behar zuela, eta horrela hasi nintzen.

Motzean

Gustuko txirrindulari bat?

Mads Pedersen eta Shirin Van Anrooij.

Ikusteko gustuko lasterketa bat?

Belgikako Klasikoak dudarik gabe.

Parte hartu nahiko zenukeen lasterketa bat?

Flandriako Klasikoa.

Bizikletan igotzeko portu bat?

Alpe d'Huez.

Eta jaisteko?

Tourmalet.

Bidaia duzun lekurik politena?

Txinako Guangxi eskualdea.

Ikusi nahiko zenukeena?

Zelanda Berria

Txirrindularitza ez den kirol bat praktikatzeko?

Frontenisa.

Eta ikusteko?

Moto GP.

Argi zenuen ikasketak kirolaren inguruan egin nahi zenituela?

Bai. Zalantza izan nuen fisioterapia ikasi, eta oraindik ere burutan dut. Gauza batek bertzea ekarri du, eta ez naiz damutzen, eta oraindik ere prestatzaile gisa aritzen naiz batzuekin. Kirol munduan lan egiten nuela ziur nuen, espero ez nuena da txirrindularitzan hainbertze sartzea.

Gaur egun Lidl-Trek taldean aritzen zara. Nolako izan da bertara iritsi arteko bidea?

Zortea handia izan dut. Hasi nintzen Bizkaia-Durangon lanean eta horiekin denboraldi erdia egin nuen. Ameriketako talde batek ikusi ninduen, eta proposatu zidaten lasterketa batzuk beraiekin egitea. Nik ingelesa hagitz gutti kontrolatzen nuen, baina ez dut inoiz beldurrik izan, beti egin dut aitzinera. Talde horrekin bukatu nuen denboraldia, eta urte bukaeran talde desagertu eta Movistarrekin hasi nintzen. Urtebete egin nuen bertan eta Trek Segafredotik deitu, eta geroztik hemen nabil. Aspertu arte, edo bota arte, taldean segituko dut. Hagitz gustura nago.

Lidl-Treken *soigneur* gisa aritzen zara lanean. Zein da zehazki zure egitekoa bertan?

Soigneur hitzak txirrindularien zaintzailea erran nahi du, masajista. Baina ez dugu hala deitzen, masajeak ematen hiru orduz aritzen garelako, eta gainerako guztia egiten dugulako; bidoiak eta janari prestatu, arropak garbitu... Txirrindulariek gaueko hamarretan zerbait behar badute guri erraten digute. Ni autobus gidari gisa ere aritzen naiz eta lan gehiago izaten da.

Lasterketa egun batean, orduan, zenbat lan ordu egiten dituzu?

Lasai ederrean 07:00etan hasi eta 21:00etan bukatzen ahal duzu, 14 ordu edo.

Nolako da horrelako egun bat?

Aunitzetan lasterketa eguna bera baino okerragoa izaten da niretzat lasterketa bezpera. Egundorretan dena prestatu

behar duzu: autobusa garbitu kanpotik eta barretetik, txirrindularien bidoiak prestatu, masajeak eman... Lehenengo eguna martxa hartu arte luzea izaten da.

Eta behin martxa hartuta?

Lasterketa egunetan, goizean goiz jaikitzen gara. Normalean sukaldariak izaten ditugu, baina sukaldaririk ez bada guk prestatzen dugu gosariko dena, beraiek dena eskura eduki dezaten. Niri autobus gidaria izatea tokatzen bazait, bertara joaten naiz irratiak eta prestatzera. Txirrindulariak autobusera sartzean irteera puntura eramaten ditut, eta bertan lasterketarako beharrezkoak ematen dizkiet. Lasterketa egiten ari diren bitartean autobusa helmugara eramaten dut, eta han sukaldaririk ez bada, lasterketa ondorengo janaria prestatzen dut. Ondotik, han dutxatzen dira eta hotelera eraman ondotik autobusa txukundu eta masaje bat ematen dut. Autobusarekin bazaude, normalean masaje bat ematea tokatzen da, baina, bertzela, bi edo hiru ematen ditut. Ondotik, bukatzean autobusa garbitzen dut.

Eta gidari aritzen ez zarenean?

Lasterketa bitartean txirrindulariei bidoiak ematera joaten zara hainbat puntutara, eta ondotik masajeak eman eta bidoiak ematea eta janaria prestatzea tokatzen zaizu.

Lan gogorra da?

Lasterketetan nire iritiz gure lana gogorragoa da txirrindulariarena baino. Beraiek bizikletan sei orduz daudenean, euripean, hotzarekin, ez dut beraiek izan nahi, baina egunean zehar ez dute deuse egiten, pedalei ematea da egin behar duten gauza bakarra. Ez dute bertze kezkarik izan behar. Guk lan ordu puska gehiago ditugu, eta egunak luzeagoak dira. Baina zer gertatzen da etxean gaudenean? Guk ez dugu egitekorik izaten normalean eta beraiek entrenatzen segitu behar dute. Nik proportzioan nahiago dut gurea.



Haurra zela murgildu zen txirrindularitzan, eta gaur egun masajista eta gidari gisa aritzen da lanean lesakarra. TTPI-TTAPA

Beraz lasterketatik kanpora ez zaizu lanik egitea tokatzen?

Ez, mugikorrarekin ibili behar gara kudeaketa lanetan, baina bertzela ez. Gu lasterketara errepidez joaten gara, kotxean edo autobusean, eta guretzat lasterketa borts egun lehena go hasten da. Lehenengo Belgikara joaten gara—han dago taldearen egoitza—han dena prestatzera eta gero handik autobusez mugitzen gara, eta txirrindulariak hegazkinez.

Nolatan hasi zinen autobus gidari lanetan?

World Tourrean gizonekin bada bertze emakume bat gidari aritzen dena, baina emakumezkoekin oraingoz ni naiz emakume gidari bakarra.

Niri betidanik gustatu izan zait gidatzea. Garai berean sartu ginen hiru lagun: horietako batek bazuen gidabaimena, bertze bati eskatu egin zioten eta nik proposatu nuen nik ere ateratzea. Lehenengo urtea infernua izan zen. Haggitz- haggitz gaizki pasa nuen, karneta atera berri nuen Covidaren pandemia iritsi zenean eta borts bat hilabetez egon ginen geldirik. Hastean, Belgikatik Britainiara eraman behar izan nuen autobusa nik bakarrik, ez nintzen ongi oroitzen nola gidatzen zen, autobusa izorratzen zen aunitzetan... Aunitzetan hori izaten da arazoa, autobusa izorratzen dela eta 4-5 ordu eman behar

dituzula hori konpontzen. Gustuko lana da gidariarena, baina, beti izaten dira arazoak. Masajista gisa bakarrik aritzen bazara lanean aunitzez ere erosoagoa da. Baina, ez duzu hainbertze abentura, eta hainbertze harreman txirrindulariekin. Niri aunitz gustatzen zait giro ona sortzea taldean eta bidaietan irri aunitz egiten dut beraiekin.

Emakumei egin diezu erreferentzia. Normalean horiekin aritzen zara, ezta?

Bai, lasterketan %95 egiten dut emakumeekin. Orain arte bizpahiru karrera egin ditut urtero gizonekin, eta aurten emakumeekin tokatu zait bakarrik. Nire ustez ona da aldatzea, batez ere emakumeen talde ttikiagoa garelako eta beti ari garelako lanean jende berdinarekin. Mutiletan taldea handiagoa denez, beti aldatzen duzu lantaldea eta aire freskoa izaten duzu. Lanera joaten garenean hilabete egoten →

«**LASTERKETETAN
14 ORDUZ EGOTEN
AHAL GARA
LANEAN**»

«**EMAKUMEEN
TXIRRINDULARITZA
AUNITZ ALDATU DA
URTE HAUETAN**»



Otxoteko bere taldekideekin Txinan jokaturako lasterketa batean. UTZITAKOIA



Otxoteko txirrindularietako bati laguntzen. SEAN HARDY

gara 24 orduz pertsona berdinekin. Egia da neskek orokorrean gehiago eskertzen dutela, eta orokorrean umilagoak direla.

Aurtengo denboraldia aipatu duzu.

Noiz hasi eta bukatzen da?

Denboraldia abenduan hasten da, nirea iazko abenduan hasi zen, denboraldi-aurrearekin, kontzentrazioarekin, eta urriari bukatzen da. Hilabete eta erdi edo bi hilabete izaten ditugu opor normalean.

Nomada bizitza eramaten duzu.

Nola daramazu hori?

%100 da nomada bizitza. Urtean 180 egun inguru ematen ditut etxetik kanpo, urte erdia. Aurten urte hasiera nahiko lanpetua izan dut, Australian egon nintzen lau aste, lau egun opor, handik Emirerri Batuetara, bertze aste bat Valentzian, bost egun hemen, bertze aste bat Italian... Bi aste edo aste eta erdiko deskantsuak aunitz eskertzen dira.

Presio handiko lana izaten da?

Bai, nik lana hartzen dudan bezala behintzat bai. Txirrindulariei dena zaintzeko eskatzen zaie: entrenamendua, nutrizioa, materiala... eta guri ere exijitzen zaigu dena maila berean egitea. Nire iritzia da beraiek ezin dizutela deus eskatu, dena egon behar dela

beraientzako prest, aurreratu behar garela gauza horietara. Presioa da, erantzukizuna delako. Guk ere badugu presioa, itzalpean baina, badugu.

Eta nola kudeatzen duzu estresa?

Gaizki. Ikasten ari naiz horretan. Etxera iristen naizenean bi egun egoten naiz hilda. Estresa neutroago kudeatzen jakin behar duzu, estres handia denean gutxiago estresatzen, eta lasai zauden momentuan une hori aprobeztatzen. Eta niri hori aunitz kostatzen zait. Lan egitea aunitz gustatzen zait eta ez dakit egoten deus egin gabe. Kostatu zait ikastea ordu erdi bat libre badut deus egin gabe egoten

Nola ikusten duzu emakumeen txirrindularitza?

Kristoren aldaketa egon da. Oraindik gelditzen da pila bat, baina aldaketa sekulakoa da. Duela 5 urte UCIk soldata minimoa eta amatasun baja ezarri zituen, eta hori izugarria izan zen. Orain emakume bat bizitzen ahal da txirrindulari izatetik, eta soldata onak daude. Hori bai, soldata desberdintasun handia dago. Baina horretatik bizitzen ahal zara eta zentratzen ahal zara horretan. Gaur egungo neska gazteek badituzte erreferenteak.

Zein zen zurea?

Joane Somarriba, baina Somarribari bizikletak ez zion jatekoa ematen. Aunitz nabaritzen da profesionalizatu direla. Hagitz positibo da emakumeek erreferenteak izatea. Nik 17-18 urte nituela entrenatzaileak erraten zidan ez nintzela nahikoa ibiltzen. Baina selektibitatea nuen, eta nire jatekoa ikasketek eta lanak eman behar zizkidaten, ez bizikletak. Gaur egun neska gazteek badute aukera momentu batean ikasketak utzi eta txirrindularitza aritzeko.

Egindako bidearen zer balorazio egiten duzu?

Aunitz eman dit, aunitz ikasi dudala uste dut, Lild-Trek nazioarteko taldea da, ingelesa da lehen hizkuntza, eta pasatzen zara ingelesa ez jakitetik lehenengo hizkuntza izatera, italiara pixka bat mintzatzerara, frantsesa ulertzerara. Hizkuntza eta kultura pila bat ikasten dituzu. Jendearentzat idolo direnak, zuk pertsona bezala ezagutzen dituzu, beraien arazoak ikusten dituzu, ikusten duzu txirrindularitza ez dela dena. Batzuetan ematen du lasterketa batean bidoi bat ahaztu eta mundua bukatzen dela, baina ondotik ingurura begiratu eta kontura-

tzen zara ezetz. Zertan ari gara, jendea inguruan gosez hiltzen ari denean, gerran dagoenean? Perspektiba aunitz irekitzen dizu. Sekulako burbuilan bizi gara, eta horretatik ateratzea ongi etortzen zaigu.

Aunitz ematen dizu lanak, ezta?

Bai. Niri gustatzen zait bertakoekin solastatzea, eta sekulako esperientzia da burbuila horretatik atera eta bertze errealitateak ezagutzea. Guk debalde bidaiatzen dugu, eta aprobeztatzen behar dugu. Egundak ditugu, baina, egiten ahal dugu ahalegina hango kulturaz ikasteko; bizitza esperientzia bat da. Egundak duzu erronka bat eta bizirauten ikasi behar duzu. Sekulako ikasketa da. Oraindik 6-7 urteren ondotik egundak ikasten segitzen dut.

Hemendik aitzinera zer?

Hurrengo urtean ziur segituko dudala, kontratua sinatua baitut. Nik bi aste etxean pasatu eta faltan botatzen dut hau. Nahiko nuke nire bizi-modua hau izaten segitzea. Aunitz nekatzen du hainbertze bidaiatzeak, eta saiateren ahal zara oreka bat bilatzen guttiago bidaiatuz. Baina nik ez dut nire burua ikusten bulego batean 8 orduz, eta nahiko nuke honetan segitu.

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

*Hontan edo honetan?

Erakusleei buruzko zehaztapen batzuk bildu ditugu aldi honetan Euskararen Txokoan. Euskaltzaindiaren arabera, desegokiak dira honako forma hauek: *hontan, *hontatik, *hontako, *hortan, *hortatik, *hortako... Honela behar dute: honetan, honetatik, honetako, horretan, horretatik, horretako...

Honetaz, horretaz eta hartaz formen baliokideak dira honez, horrez eta harez formak. Edozein moduz, honetaz, horretaz eta hartaz (eta hauetaz, horietaz eta haietaz) formak hobetsiak ditu Gramatika batzordeak.

Honez, horrez eta harez (eta hauez, horiez eta haiez) esapide jakinetan bakarrik erabili behar dira, ez erakusle soil moduan. Ongi daude, lokailu moduan, honez gain(era) eta horrez gain(era) moduko erabileretarako:

-Berezko sena zuen jendea ezagutzeko, eta, horrez gain (= horrez gainera), bihotz zabala.

-Horrez gain(era), leize handi bat dago zuen eta gure artean.

Ez da zuzena erakusle modura erabiltzeko:

-*Etxe horrez mintzatu gara > Etxe horretaz mintzatu gara.

-*Ez ziren lagun horiez oroitu > Ez ziren lagun horietaz oroitu.

-*Etxe horrez gain, bertze bat ere badu > Etxe horretaz gain, bertze bat ere badu.

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.



Zein da zuzena

*Eboluzionatu naiz edo eboluzionatu dut? *Existitzen dut edo existitzen naiz?

Erabilera zuzenak eboluzionatu dut eta existitzen naiz dira.

Eboluzionatu:
Du erregimeneko aditza da.
-Picasso z geroztik pinturak anitz eboluzionatu du.

Existitu:
Da erregimeneko aditza da.
-Ez dakit hitz hori existitzen den.

Hieroglifikoa

Orea altxatzeko edo harrotzeko...


ARANTZA

A>O

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 info@tppi.eu

 744 48 43 61

VIII. Azienda Feria egingen dute heldu den larunbatean

Baserrietako aziendaz gain, lanerako makineria ikusteko eta bertako produktuak erosteko aukera izanen da

A. LARRETXXEA

Azken urteen gisan, aurten ere herriko baserriarrek aziendak erakusteko hitzordua izanen dute. Apirilaren 27an izanen da feriare VIII. edizioa, Toki Ona institutuko patioan eta inguruan. Behiak, ardiak eta behorrak ikusteko aukera izanen da eta denera 60 buru inguru plazaratuko dituzte 10-15 baserriarrek. Erakusketa egingen duten eremu osoa hesituta egonen da, eta bertan paratuko dituzte lotuta aziendak.

Bertzelako ekintza osagarriak ere izanen dira. Baserrietan lan

egiteko makineria ikusgai egonen da, eta bertako ekoizleen postuak ere izanen dira. Horrez gain, haurrek poney gainean ibiltzeko aukera izanen dute, eta horrez gain poney batek bultzatutako gurdian ibiltzeko aukera ere izanen da. Eguna borobiltzeko eguerdian bazkaria egingen dute parte hartzaileek Ricardo Baroja eskolan.

Feria antolatuz egoera zailan dagoen lehen sektoreari presentzia eman nahi diote, eta herritarrei erakutsi herriko baserrietan ekoizten dituzten produktuak.

Bidazik elikadurari buruzko solasaldia antolatu du heldu den ortziralerako

A. LARRETXXEA

Hamar urte beteko ditu aurten Bidazi Bidasoaldeko Kontsumo Elkartek, eta urteurrena ospatzeko hainbat ekintza egingen dituzte urte osoan.

Horietan lehenengo ekitaldia heldu den ortziralean

izanen da, hilaren 26an. Goiuri Aresti Alberdik *Elikadura sistema osasunaren begiradatik* izeneko solasaldia emanen du Beralandetan, 19:00etan.

Solasaldiaren ondotik, merienda izanen da azokako produktuekin.

'Mejor muerto' liburua aurkeztuko dute liburutegian

Bigarren urtez Susana Rodriguez Lezaun idazlea liburutegian izanen da ortziralean. Kaleratu berri duen *Mejor muerto* liburua aurkeztuko du, Marcela Pieldelobo inspektorearen sagako hirugarrena. Solasaldia gaztelaniaz izanen da 18:00etan.

Garazi Arrula idazlearekin 'Lurraz beste' liburuaz

Hirugarrenez egingen dute aurten 'Literatura Geraldia' zikloa, eta horren barrean izanen da Garazi Arrula idazle, itzultzaile eta editore tafallarra herrian. Apirilaren 20an, larunbata, izanen da saioa 10:30ean Beralandetan, eta idazlearekin liburuaz solastatuko dira.



Bidasoa karrikan kaltetu dituzten bi arbolak. UTZITAKOEA

Iaz landatutako arbolak bota eta hondatu dituzte Bidasoa karrikan

A. LARRETXXEA

Iazko udaberrian 25 arbola landatu zituen udalak Bidasoa karrikan. Aste Sainduan, ordea, arbola horietako batzuk kaltetuta agertu dira. Arbola bat guztiz xehatu dute, eta bertze bat aizkoraz kolpatu dute.

Arbola horiek kaltetzeaz gain, moldatu berri duten harrizko

parkean dauden landareak ere kaltetu dituzte, eta baita landare horiek zaintzeko materiala ere.

Ez da arratsez herriguneko lorategiak kaltetzen dituzten lehen aldia, eskola parean egingandako lorategian ere behin baino gehiagotan egin baitituzte kalteak.

**Guillermo LARRAÑAGA doktorea**
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak



Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

Telefonoa: 610 549 507

**GONE**

LIBURU-DENDA
PAPER-DENDA
JOSTAILU-DENDA
MARGO-DENDA

Kanttonberri, 4 BERA
Telefonoa eta 948 630 626
papeleriaigone@gmail.com

Apirilaren 23an
Liburuaren eguna
Apirilaren 19tik 24ra
%10eko deskontua
liburuetan



**Esaintza eta
promozio
gehiago dendan**

1977tik
zuen zerbitzura

Zubia egin dute Lamixenen, Zia errekararen gainean

Oinezkoentzako eta txirrindularientzako zubia da eraiki dutena eta ireki dute dagoeneko

A. LARRETXEA

Zia auzoan, Pio Baroja karrika eta anguleroa lotuko dituen zubia eraiki du udalak. Auzotarren aspaldiko eskaerari erantzunez eraiki dute zubia, eta oinezkoek zein txirrindulariek erabili ahal izanen dute.

Orain arte, oinezkoek eta txirrindulariek NA-4410 errepide arriskutsua erabili behar zuten herrira edo Altzateko plaza ingurura iristeko. Trafiko handiko errepidea da, eta jendea abiadura handian ibiltzen da. Horrek, arrisku egoerak sortzea eragiten zuen egunez zein gauez. Zubi berriarekin, oinezkoen eta txirrindularien mugikortasuna eta segurtasuna «nabarmen» hobetuko dira.

Zubiaren kostua 97.995,14 eurokoa izan da eta dagoeneko erabiltzaileentzat ireki dute.



Egurrezko zubia egin dute. UTZITAKOIA

Kanttonberri inguruko lanak hasi dira

Apirilaren 2an hasi zituen Saso enpresak Kanttonberri karrika eta ingurua moldatzeko lanak. Lehen fasean Zia errekararen paraleloko karrika eta Ekialde karrika berriari dira lanean, eta zortzi astez ariko dira. Lanak direla eta, Eztegarako biribilguneetik auzorako sarbidea itxita egonen da tarteka, eta Legian barna sartu beharko da auzora.



Matzada karrikan paratu dute aparkalekua, futbol zelai ondoan. TTPI-TTAPA

Autokarabanentzako zerbitzugunea paratu dute Matzadan

A. LARRETXEA

Udalak autokarabanentzako eta furgonetentzako garbiketapuntua duen zerbitzugunea paratu du Matzadako aparkalekuan. Zerbitzuguneak urgrisen eta beltzen hustuketa zerbitzua eskaintzen ditu, eta baita ura hartzeko iturria ere. Plaza horiek ez dira ibilgailu horiek iraunkorki uzteko gunea izanen, geldialdi teknikorako eremua baizik. Alegia, aparkatzeko aukera herrira bisitagituen denborara mugatuko da.

Zerbitzugunearen bidez, inguruan gero eta ohikoagoa

den turismo ibiltari mota horri alternatiba egokia eman nahi dio udalak, gaur egun ez baitago behar horiek asetzeko instalazio egokirik. Autokarabanena eta furgonetena egun batzuetan gaua pasatzen duen turismoa da, eta eskualdeko inguruak bisitatzen ditu, herriko ostalaritza zerbitzuak eta dendak erabiliz.

Udalak, halaber, Matzadako aparkalekuko plaza kopurua handitu nahi du, aparkalekuen edukiera ahalik eta gehien erabiliz, herrigunetik hurbil dagoen aparkaleku libreko eremua baita.

Anterola
Tecnico instalatzailea
**ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA**
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

Jauriena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

Lahe Zar

Eztegara, 18 - BERA ☎ 848 410 115

Fernando Celaya
TERAPIA NATURALAK

Gure kontsultan honako patologiak aztertuko ditugu:

- Lixeriketa aparatuko patologiak
- Gihar patologiak
- Neurologiak patologiak
- Arnas aparatuko patologiak
- Ginekologia patologiak
- Giltzurrun eta gernu aparatuen patologiak
- Zirkulazio eta endokrino patologiak

Erabiltzen ditugun terapiak:

- Osteopatia
- Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
- Akupuntura
- Fitoterapia Txinatarra
- Reiki...

Salis Hiribidea, 24 - IRUN 639 955 324 www.fernandocelaya.com



Bortziriak karrian aparkalekuak pintatu eta noranzkoa aldatuko dute. TTUPI-TTAPA

Bortziriak karrikako trafikoa erregulatu dute, auzoa norabide bakarreko bihurtuz

A. LARRETXEIA

Bortziriak karrikako trafikoa erregulatzeko eta aparkalekuak pintatzeko erabaki du udalak. Egiaztatu dutenez, karrika horretako eskuineko aldea modu irregularrean erabiltzen ari da aparkaleku gisa, eta ez dago horrela aurreikusia. Ondorioz, galtzadaren zabalera ez da nahikoa karrikan aurreikusitako zirkulazioaren bi noranzkoetan ibilgailuen trafikorako.

Udalak nahitaez arautu behar du, konpontzeko zailak izan daitezkeen egoerak gatazka tsuak sor daitezkeelako, eta udala izango litzatekeelako erantzulea, erregulaziorik ez ezartzeagatik.

Egoera konpontzeko, bi aukera aurreikusi dituzte: zirkulazio bi noranzkoetan mantentzea, karrikan eskuin aldeko ibilgailuen aparkalekuak kenduz, edo zirkulazioaren

noranzko bakarra ezartzea, aparkaleku beharrak eta karrika horretako ibilgailuen trafikorearen segurtasuna uztartuz.

Bigarren aukeraren alde egitea erabaki dute, aparkalekuak kentzeak arazo handia eragingo lukeelako. Horretarako, karrikan eskuinaldeko aparkalekuak arautuko dute plazak pintatuz eta mugikortasun urriko pertsonentzako plaza bat ezarriko dute.

Norabide bakarra

Ibilgailuak ez gurutzatzeko, eta inguruko ibilgailuen zirkulazioaren segurtasuna bermatzeko, noranzko bakarreko izanen da trafikoa. Norabide berria behar bezala seinaleztatuta egonen da.

Aldaketak azaltzeko, eta proposamenak biltzeko bilera egin zuen udalak apirilaren 10ean auzotarrekin.

Zaintza beharren diagnostikoa hasi dute Bortziritan

Berdintasun Planaren barrenean egingen du diagnostikoak Berdintasun Zerbitzuak Emagin elkartearekin batera

TTUPI-TTAPA

Prozesu parte hartzaile baten bidez egin zuten iaz Bortziritako III. Berdintasun Planaren Bortz udalen onarpena izan zuen planak, eta aurtengo, gizarte eta ekonomia berdinzaleago baten bidean, umeen zaintzari eta menpekoen zaintzari lotutako beharren diagnostiko bat egitea aurreikusi zuten.

«Denok dugu zainduak izateko beharra bizitzan zehar eta zaintza lanak hagitz mailan desorekatuan egiten dira», nabarmendu du Bortziritako Berdintasun Teknikariak. Berdintasun Zerbitzua dagoeneko hasi da diagnostikoa egiten Emagin elkartearekin batera eta borts herrietako udalen eta mugimendu feministaren babesa ere badu diagnostikoak.

Hiru helburu nagusi ditu diagnostikoak: batetik, zaintza lanak demokratizatzeke, Bortziritako zaintza lanen antolaketan inguruko diagnostikoa egitea parte hartze prozesu baten bidez; bertetik, gaur egungo zaintza lanen antola-

ketaren gaineko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa bultzatzea orotariko ordezkari, eragile eta herritarren artean, eta azkenik, zaintza lanen eraldaketarako prozesuak abiatzeko, artikulazio publiko komunitariorako egiturak sortzea.

Berdintasun Batzordeak azaldu duenez, oraindik hasierako fasean daude. Horregatik, Bortziritako ordezkariak, eragileak eta herritarrak gonbidatu dituzte diagnostikoa egiteko antolatuko dituzten saioetan parte hartzera. Oraindik ez dute datarik zehaztu.

Emakumeentzako* ikastaroa

Berdintasun Zerbitzuak jende aitzinean komunikatzen ikasteko ikastaroa antolatu du emakumeentzako*. Ikastaroa Lesakan egingen dute Harriondoan, apirilaren 20an eta 27an. Aitziber Campion Ganboak emanen du, eta helburua jende aitzinean komunikatzeko tresnak lortzeaz gain, esperientziak partekatzea ere izanen da. Apirilaren 16an bukatu zen izen ematea.

LIDERA

HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

INGURUNE BERRI BAT ZURE IRRIBARREARENTZAT

astelehenetik ortziralera

08:00-13:00

15:00-20:00

larunbatetan goizez

Iturrunzubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA

Tel. **722 662 478** | lidera@hortzklina.es

@liderahortzklina

Bertso afaria

OLA SAGARDOTEGIĀN (IRUN) (+34) 943 623 130

Āpirilak 27 Larunbata, 20:30

BERTSOLARIAK
Egaña, Lizaso,
Peñagarikano

GAIJARTZAILEA
MendiĀuze

**Sagardotegi menua,
kafea eta kopa 45€**

Erreserba telefonoz edo erosi sarrera online



Argiteria berria Plaza Zaharrean. UTZITAKOA

Argiteria publikoaren hobetzea bukatu berri du udalak

Faktura murriztea ekarriko duen 443.841 euroko inbertsioa egin da eta 530 farola baino gehiago aldatu dituzte

AITOR AROTZENA

Energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoaren alorrean, azken lau urteetan eginiko apustu estrategikoarekin jarraituz, herriko argiteriaren zati baten aldaketa modu positiboan baloratu eta gero, hirugarren eta azken fasea gauzatu berri du udalak.

2020 urtean egindako auditoria energetikoan oinarrituz eta bertan azaldutako irizpideak jarraituz, lau urte hauetan argiteria publikoaren %100 aldatu da. Auditoriaren jasotakoaren arabera, Lesakan argiteria publikoaren kontsumo energetikoa biztanleko 141 kWh-koa zen, Nafarroako

banaz bertzeakoaren gainetik (133 kWh biztanleko).

Guztira 530 farolatik goiti aldatu dituzte, 15 koadro elektrikotan banatuak, eta ilun gelditzen ziren toki batzuetan berriak ere instalatu dira. Eraikin historiko batzuk nabarmentzeko argi berezia ere erabili da eta farola batzuk tokiz mugitu dira, kokapen egokiagoa bilatuz. Horretaz gain, instalazioak egungo araudietara egokitu dira.

Aldaketa guztiaren kostua honela zatitu da:

- Lehenengo fasea: 118.835 euroko inbertsioa, Nafarroako Gobernuaren 86.528 euroko dirulaguntza hartuz.

- Bigarren fasea: 130.006 euroko inbertsioa, Nafarroako Gobernuko laguntzarekin (30.000 euro)

- Hirugarren fasea: 195.000 euroko (+ BEZa inbertsioa). Gastuhoni aurre egiteko, IDAE-ko dirulaguntza hartu da (224.550,98 euro).

Urtean 90.000 kWh guttiago

Azken faseko aldaketekin, urtean 90.000 kWh aurrezteko espero da, eta horrek energia-aren prezio aldagaiari lotutako faktura ekonomiko murrizteko ekarriko du. Egungo prezioe-

kin, funtzionamenduko lehen urte honetan 20.000 euro inguru aurreztuko dira urtean. Hala ere, «dena ezin da diruarekin kuantifikatu; horregatik, proiektu honen idazketak irizpide argi batzuk izan ditu, eta horiek nabarmentzea eta balioestea garrantzitsua da», udalaren erranetan:

- Argi bakoitzaren kokapena edo orientazioa optimizatze-ko aukera kontuan hartu da, lehentasuna pertsonengan jartzeko helburuarekin, baina kostu ekonomikoak optimizatzen saiatuz.

- Elementu jakin batzuen argiztapena hobetu da. Hala, argi batzuk txokorik ilunentara mugitu dira, segurtasuna hobetzeko. Mugikortasuna ordenatzeko eta hobetzeko aprobetxatu da; horrela, oinontzako ibilbide seguruagoak bilatuz, zebra bide batzuk hobe seinalatu eta hobetuz.

Horrela, bide-segurtasuna hobetzeko aprobetxatu da, eta jarduketa hori udalariaren mugikortasunarekin lotu.

- Kutsadura luminikoa murriztu da.

- Telegestio bidez erregulatu ahal dira argiak orain, honek eskaintzen dituen aukera guztietekin.





2024-2025 ikasturtea

LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK D EREDUAN (EUSKARAZ)

TOKI ONA BHI BERA

MEKATRONIKA INDUSTRIALA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

MANTENIMENDU ELEKTROMEKANIKOA ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

IZEN EMATEA: APIRILAREN 29tik MAIATZAREN 10era

Telefonoa: 848 431 710

tokionabhi.web.educacion.navarra.es

iesbera@educacion.navarra.es





Organo eta tronpeta kontzertua antolatu dute apirilaren 28an

Oscar Candendo organistak eta herriko Mikel Galardi tronpetistak joko dute elizan, 18:30ean hasita

AITOR AROTZENA

Lesakako Roqués Organoaren Lagunen Elkartek (AAORL), 2023. urtean San Martin elizako organoa zaharbertitzeko lanak bukatu ondotik, aurtten lau kontzertuz osatutako organo-ziklo bat antolatu du: horietako bi udaberriko organoaren zikloan sartuko dira, eta bertze bi udazkenekoan. Kontzertuen formatua aldatuko da; horrela, udaberriko zikloko lehen kontzertuan organoarekin batera tronpeta izanen da, eta hurrengoan saxofoia. Udazkeneko kontzertuetako bat organoarena bakarrik izanen da, eta bertzea txistuarekin egiteko asmoa dute.

Lehenengo kontzertua apirilaren 28an izanen da, igandean 18:30ean San Martin elizan, eta bertan parte hartuko dute Oscar Candendo Zabala organistak (Katalunia-ko Goi Mailako Musika Eskola-ko organo espezialitateko irakaslea eta Donostiako Artzain Onaren S. I.eko organista) eta Mikel Galardi Txopere-rena tronpetista lesakarrak.

Kontzertuko irudiak elizaren barrenean pantaila batean proiektatuko dituzte, eta, horri esker, entzuleek koruan musika nola interpretatzen duten ikusi ahal izanen dute.

Kontzertuak ongi bereizitako bi zati ditu. Lehenengoan, Lesakakoa bezalako musika tresna erromantiko iberiko batentzat pentsatua, garai horretako organorako pieza sorta bat entzun ahal izanen da: A. Bruckner (bere bigarren mendeurrenean), C. Franck, F. Gorriti eta E. Torres.

Bigarren zatian, tronpeta organora gehituko da eta biek Vivaldiren kontzertu bat eta Bachen kantata baten mugimendu bat eskainiko dituzte, azken horren bertze bi konpositoreen (G. Delerue eta S. Karg-Elert) bi berrinterpretazioekin batera; hortik dator bigarren sail honen izenburua: *Barrokoa Barrokotik haratago*.

Sarrerak Lesakako Telletxea eta Xagu liburu-dendetan erosi ahal izanen dira (baita elizan ere, kontzertua baino lehen), 5 euroan, borondatezko ekarpen gisa.



Vila-realgo proba irabazita lortu du Mitxelenak mundialerako sailkatzea.

Luziano Mitxelenak lortu du munduko txirrindularitza txapelketarako txartela

A. AROTZENA

Beti Gazte klubeko eta Transbidaso-Inurrieta taldeko Luziano Mitxelena txirrindulari lesakarrak Castellongo Vila-realen martxoaren 10ean jokaturako The Millars UCI Gran Fondo World Series master mailako mundialerako sailkatze proban nagusitu zen 70 eta 74 urte arteko kategorian eta, modu horretan, irailaren 1ean Danimarkan jokaturako den munduko txirrindularitza txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu du.

Oraingoan, Beti Gazteko txirrindulari beteranoak 180 kilometro luze eta 3.000 metrotik goitiko desnibel metatua zuen probari aurre egin behar izan zion eta horretarako bortz mendate gaingitu behar izan zituen. Denera, 5 ordu, 58 minutu eta 38 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko,

bere kategorian bigarren izan zen Jose Maria Garciari 23 minutu baino gehiago alde ateriz eta hirugarren izan zen Régis Pinsoni 38 minutu baino gehiagokoa. Mitxelenarekin batera, Ibai Bereau taldekide lesakarra ere joan zen Vila-realera eta Master 35-39 bere kategorian 51. postua lortu zuen (5.57.36).

Beti Gazte-Bidasoa-Inurrieta taldearen hurrengo erronka Nafarroako Kopan dago. Martxoaren 23an Villamayor de Monjardinen jokaturako lehenbiziko proban bigarren izan zen Mitxelena eta berekin batera, Ibai Bereau, Jon Maritxalar, Gaizka Otxandorena eta Ruben Alonso taldekideak ere izan zituen. Apirilaren 20an Erriberrin jokaturako den Nafarroako master txapelketan eta Kantabriako Challengean ere parte hartuko dute.

LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA

Txotx denboraldia irekia!
Ortzegunetik igandera irekita,
eguerditik aitzinera.

Egin erreserba!!

NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA) · TEL. 948 63 72 12

XAGU
LIBURUDENDA
Tel./ Fax: 948 638 232

Apirilak 23
liburuzaren egunean
7.10 eko **DESKONTUA**
liburuetan

Gurekin elkartearen eguna ospatuko dute apirilaren 28an

Zerbitzu Elkartearen Egunaren bezperan, Haurren Eguna eta DNA zikloko dantza ikuskizuna ere izanen dira

AITOR AROTZENA

Apirilaren azken asteburua ekitaldiz betea dator. Hilaren 28an, igandean, Gurekin Lesakako Zerbitzuen Elkartearen Eguna antolatu dute. Elkarteko komertzioek beraien produktuak Plaza Zaharrera eta Beheko Plazara aterako dituzte 10:00etatik 18:30era eta hainbat ekitaldi izanen dira. Gainera, apirilaren 22tik 28ra elkarteko dendetan egiten den erosketako tiketa (pertsonako bat) Elkartearen egunean aurkeztuta poltsa bat oparituko zaio erosleari. Elkartean dau-

den ostatueta pintxo-potea ere eskainiko dute.

Haurren Eguna eta dantza

Apirilaren 27an Haurren Eguna ere antolatu dute Irain eskolako eta Tantirumairu ikastolako guraso elkarteek. Larunbatean 16:30etik 19:30era jokoak eta merienda izanen dituzte Eltzetako plazan (euria eginen balu frontoian). 19:00etan, berriz, DNA zikloaren barrenean, *Luz negra* ikuskizuna eskainiko du Dinamo Danza konpainiak Harriondoan. Sarrerak 6 euro.

Jubilatuek ipar martxa ikastaroa, kantu bazkaria eta Pradejonea bidaia prest

San Fermin elkarteak ipar martxa hastapen ikastaroa antolatu du apirilaren 20an, larunbatean 10:00etatik 13:00etara. 15 euro ordaindu beharko dute bazkideek eta 30 euro bazkide ez direnek. Biharamunean bazkaria eta kantuak izanen dituzte jubi-

latuen ostatuan, igandean 14:00etan. Hilaren 24an, berriz, Pradejonea (Errioxa) bidaia antolatu dute. Calahorran bazkalduko dute. Txartelak 30 eurotan (35 euro bazkide ez direnek) erosteko azken eguna apirilaren 20a izanen da, jubilatuen ostatuan.

Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketa azken egunetan

LHko ikasleei zuzendutako *Ezagutu dezagun Lesaka* lehiaketa martxan da berriz ere, Beti Gaztek, udalaren, Irain eskolaren eta Tantirumairu ikastolaren laguntzaz antolatuta. Erantzunak aurkezteko azken eguna apirilaren 26a da (kultura@betigazte.net).

'Literatura euskaraz gaur egun' hitzaldia liburutegian

Literatura euskaraz gaur egun solasaldia emanen du Beñat Sarasola EHUko irakasle, idazle eta literatur kritikariak apirilaren 26an, ortziralean 18:30ean liburutegian. Bortzietako Euska Mankomunitateak antolatutako Literatura Geraldia zikloaren barrenean.



UTZITAKOIA

'Halley' estreinatu du Led Silhouettek

Martxel Rodriguez herritarrak eta Jon Lópezek zuzendutako Led Silhouette dantza konpainiak *Halley* ikuskizun berria estreinatzeko zuen apirilaren 12an Iruñeko Gaiarren. Asteoan Valentzian eta Bilbon ere eskaintzeko dute. Horien guztien aitzinetik, entsegu irekia egin zuten Harriondoan.

Turismo Bulegoan eta Burdinaren Museoan 195 bisitari Aste Santuan

Martxoaren 26an ireki zituen udalak antzinako komentuan dauden turismo bulegoaren eta Burdinaren Museoaren ateak. Aste Santuan eta bazko astean, goiz eta arratsaldean, zerbitzu hau eskaini dute apirilaren 4ra arte. Tarte honetan, 195 bisitari pasa dira bulegotik: iaz baino gutxiago, baina 2021 eta 2022arekin alderatuz, gehiago.

Gehienak Euskal Herritik etorritakoak izan dira: Nafarroatik 40, Gipuzkoatik 37 eta Bizkaitik 24. Madriletik ere, ohikoa izaten den moduan,

bisitari aunitz etorri dira, 59. Hauetaz gain, Asturiasetik, Bartzelonatik, Burgosetik, Segoviatik, Valentzianetik, Valladolidetik eta Zaragozatik ere etorri da jendea. Gehienek herriari eta zonaldeari buruz galdetzen dute. Museoaren ikus-terea, bizikleta eta mendi-ibilbideak nahiz ginkana turistikoak egitera ere etorri dira.

23 lagun bisita gidatueta

Gainera, hiru bisita gidatu ere eskaini dituzte Aste Santu honetan. Guztira, 23 pertsonen parte hartu dute.

Tantirumairu euskal folklore taldeko helduen emanaldia

Tantirumairu euskal folklore taldeko helduek emanaldi berezia eginen dute apirilaren 20an. Larunbatean 18:30ean hiru taldek ordu erdiko erromeria laburra eskainiko dute plazan eta gero ostatur ostatu dantza-poteoa eginen dute, nahi duen guztiarentzat irekia.

LAB sindikatuaren 50. urteurreneko dokumentala

LAB sindikatuaren (Langile Abertzaleen Batzordeak) 50. urteurrenaren harira *Eskuz esku*. LAB zabaltzen dokumentalaren proiektzioa eginen dute apirilaren 21ean, igandean 11:00etan Harriondo kultur etxean. Ondotik, solasaldia izanen dute.

'100 urte-100 mendi' jardueran parte hartuko du Altxatak

Mendi eta eskalada kirolen Nafarroako Federazioak ehun urte bete ditu aurten eta gailurrez gailur ospatu nahi du

IRUNE ELIZAGOIEN

1924an hasi eta 2024 urtera arte ehun urte pasa direla ospatzeko, *100 urte-100 mendi* ekimena prestatu du Nafarroako mendi eta eskalada kirolen federazioak. Mendeurrena ospatzeko, apirilaren azken asteburuan, Euskal Herriko ehun tontor igotzea izanen dute helburua. Nafarroako klub edo elkarte bakoitzak tontor bat aukeratu du, eta bertara igo, eta federazioaren banderarekin argazkia aterako dute. Altxata kultura eta kirol elkarteak ere badu

bere tontorra: Alkurruntz. Eguna gehiago hurbiltzean, eguraldia ikusiz erabakiko du Altxatak igoera apirileko azken larunbatarekin edo igandearrekin egin. Batean nahiz bertzean izan, elkarteak herritar guztiak animatu nahi ditu ekimenean parte hartzera.

ALKURRUNTZERA IGOKO DIRA APIRILEKO AZKEN ASTEBURUAN

Liburuaren Eguneko lagun ezkutua azken txanpa

30 lagun baino gehiago animatu dira nazioarteko liburuaren egunaren harira antolatutako lagun ezkutuan parte hartzera. Apirilaren 23ra arteko epea izanen da bakoitzari zozketan tokatu zaion pertsonari oparitu nahi dion liburua Kultur Etxean uzteko.

Aste Santuan mugimendu ttikia Turismo Bulegoan

Turismo bulegotik 100 lagun eskas pasatu dira Aste Santuan eta eguraldi txarreko egunetan mugimendu ttikia izan da herriari. Bartzelona eta Madriletik hurbildu da gehienbat, baina egun pasa Gipuzkoa eta Nafarroatik ere etorri dira. Bi bisita gidatu ere egin dira.



23 bikote aritu ziren apirilaren 6ko mus txapelketan. EDURNE ARTOLA

23 bikotek parte hartu dute Etxalarko BTT probaren aldeko 2. mus txapelketan

IRUNE ELIZAGOIEN

Maiatzaren 4an egingen da Etxalarko BTT Itzulia eta horren aldeko bigarren mus txapelketa jokatu zuten apirilaren 6an Elutsa ostatuan. Oraingoan bi kategoriatan banatua jokatu zen; helduen kategorian 12 bikote eta gaztetxoetan 11. Helduen kategoriako irabazleak Lesakako Mattin eta Xabier Gonzalez anaiak izan ziren, Jon Mikel Asensio eta Joseba Santestebani gailenduta. Lehenengo errondan kanporatutakoak berriro aritu ziren elkarren aurka, eta hemen garaile Xabier Etxarte eta Jose Antonio Aginagalde izan ziren. Gaztetxo aunitzek ere erakutsi zuten beren musarako afizioa, eta hamaika bikoteetan irabazleak Oihan Irisarri eta Iker Otxoteko izan ziren; bigarrenak berriz, Urko Aranburu eta Xiker Olagarai.



Helduen txapeldunak eta finalistak.



Aginagalde eta Etxarte.



Gaztetxoaren irabazleak eta finalistak.

USOA kooperatiba

☎ 948 635 214 ☎ 605 631 244 ETXALAR

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu

☎ 948 630 763 · Alizale, 17 · BERA

ELUTSA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENUK PINTXOAK - BOKATZE RAZIOAK

Anduetzeta, 13 - ETXALAR T. 948 635 191

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

Igantzikoko V. Mendi Duatloia apirilaren 21ean egingen dute

5,2 kilometro lasterka, 20 kilometro bizikletan eta azken 2,6 kilometroak berriz ere lasterka egin beharko dituzte

ANA ETA ITZIAR

Orain arte buruilean izaten zen Mendi Duatloia aurten goan apirilaren 21ean egingen dute. Bosgarren edizioa beteko du Igantzikoko Biltoki elkarteak antolatutako proba berezi honek.

Haurrek 09:30ean izanen dute beraien lasterketa. Hamar urtetik beheitikoak ibilbide bat izanen dute eta 10 urtetik goitikoek, berriz, bertze bat.

10:30ean izanen da helduen txanda. Lasterketa banaka eta binaka egingen ahalko da. Parte hartzaileek, hasteko, 2,6 kilometroko zirkuituari bi buelta eman beharko dizkiozte lasterketa, ondotik 20 kilometro egin beharko dituzte mendiko bizikletarekin eta bukatzeko 2,6 kilometro lasterka. Bikoteak emakumeek edo gizonezkoek osatutakoak edo mistoak izaten ahal direla jakinarazi dute antolatzaileek. Parte hartzeko aurten 16 urteak beteak izan beharko dituzte.

Banaka parte hartu nahi dutenek 20 euro ordaindu beharko dituzte, eta federatuak

ez daudenek bertze sei euro ordaindu beharko dituzte. Binaka egin nahi dutenek, berriz, 30 euro ordaindu beharko dituzte, eta honetan ere, federatua ez dagoenak sei euroko gehigarria ordaindu beharko du.

Lasterketak bukatu ondotik, laguntzaileek emandako opariaren zozketa eta banaketa izanen da, eta jarraian haurrentako ederra eskainiko da partehartzaile guztientzako.

Lerro hauen bitartez Biltokik eskerrak eman nahi dizkie bai diruz, bai opariaren bitartez, bai beraien lanarekin lagundu duten guztiei.

Sendotza

Bertze aldetik, apirilaren 6an herriko bi gaztek eta Arantzatik etorritako bertze zenbaitek beraien Sendotza eguna ospatu zuten Igantzikoko elizan. Apirileko lehen larunbatean 19:30ean izan zen beraiei eskainitako elizkizuna eta ondotik denak batera merienda-afaria izan zuten Erretorebaitan.



ANA ETA ITZIAR

Loiarate eta Sein garaile Biltokin

Apirilaren 5ean jokatu zen Biltoki elkarteak hamabortzetik behin antolatzen duen mus tximista txapelketa. Oraingoan Patxi Loiarate eta Lander Seinek eskuratu zuten lehendabiziko saria. Hurrengo txapelketa apirilaren 19an izanen dute Biltokin, ortzirale honetan. Zorte on!!

Igerilekuen udako kudeaketa egiteko prozesua abiatu du udalak

2024ko udarako lehiaketa bidez esleitzen den Igantzikoko igerilekuen kudeaketa prozesuari hasiera eman dio udalak. Ohiko moduan, lan hauek egin beharko dira: aldagelak eta komunak garbitu eta igerilekuko ostatua eta leihatila kudeatu. Horren truke, Udalak eskaintzen ditu, denboraldi osoarako gehienezko kantitate gisa, 1.500 euro, leihatilan ateratako %25a eta ostatuan egindako kaxa guztia.

Denboraldia ereiaroaren 15ean hasi eta buruilearen 15ean akautuko da. Plegu arautzailea



Igerilekua udan irekiko da.

eskuragarri dago Udalaren webgunean, baita Udal bulegoan ere, apirilaren 2tik aitzinera, eta proposamenak aurkezteko epea apirilaren 15ean bukatzekoa zen.



PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa



K-STRETCH

Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN



Centro Prim



regina.tolosaechebare



**SUKALDEKO ETA KOMUNEN
ENTZIMERAK EGITEN DITUGU**

info@marmolesamezti.com • www.marmolesamezti.com

Iruñea Irun errepidea, z/g.
ORNOZ-MUGAIRI

T. (+34) 948 592 325
F. (+34) 948 592 295



Joan den urteko edizioan jende aunitz ibili zen dantzan. TTPI-TTAPA

Bortziriak Dantzan larunbatean fanfarrearekin

Mutxikoak eta bertze dantza andana dantzatzeko aukera izanen da larunbat arratsaldean

NEREA ALZURI

Joan den hilabetean Etxalarren egin bezala, larunbat honetan, apirilaren 20an, herriko eta inguruko dantzariak dantzan ariko dira Baztango Fanfarrearen doinuekin.

Mutxikoak dantzatzeko dituzte gehienbat, baina baita fandangoak, arin-arinak, polkak, *schottishak* edota bertze hainbat dantza herrikoie ere. Hitzordua 18:00etan da plazan eta ordu bateko edo ordu eta erdi-ko saioa izanen da.

Dantza egiteko musika nahi-taeko da eta larunbat honetan Baztango Fanfarrea ariko

da Arantzan. Bortz (edo sei, saioaren arabera) muskariz osatutako taldea da eta txistu, gaita, akordeoi eta perkusio doinuak izaten dituzte nagusi, nahiz eta batzuetan bertzelako musika tresnak ere sartzen dituzten dantzetan.

Azken urteetan, hainbat dantzaherriko, bereziki mutxikoak, dantzatzeko ari da Bortziriak Dantzan ekimena herriz herri, eta orain arte, Arantzan egin dituen geldialdiak hagitz arrakastatsuak izan dira. Aurten ere dantzatzea gustukoa duenak aukera ederra izanen du larunbatean; gonbidatua dago.

Literatura geraldia Arantxa Urretabizkaia idazlearekin apirilaren 24an

NEREA ALZURI

Bortziriako Euskara Mankomunitatearen ekimenez, hirugarren aldiz Literatura geraldia zikloa izanen da hilabete honetan. Beran abiatuko da eta bigarren saioa, apirilaren 24an, 18:00etan herriko liburutegian izanen da. Arantxa Urretabizkaia idazlearekin solasaldia izanen da, *Azken etxea* bere nobelari buruz. Aurtengoa ere herriko irakurle taldearekin batera antolatutako saioa da.

Egitasmoaren helburua euskaraz irakurtzeko ohitura eta zaletasuna zabaltzea da, baita



Urretabizkaia Arantzan izanen da.

herriarren euskarazko kultur kontsumoa eta euskal liburgintza indartzea ere. Esperientzia literarioak konpartitu eta liburutegi publikoaren erabilera ere bultzatu nahi dute.

Salto! udalekua eginen dute uztailean

UEMAK, urtero bezala, uztailean Salto! udalekua antolatu du udalerrir euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzeko, kontzientziazteko eta saretzeko helburuarekin. Bi txanda eginen dituzte uztailean. Arantziatik abiatu eta Elizondo arteko bidea oinez eginen dute, eta Donezteben eta Oronoz-Mugairin geldialdiak eginen dituzte. Herri bakoitzean bi gau eginen dituzte. 2006 eta 2009 urteen artean sortutakoek parte hartuko dute eta martxo hondarrea bukatu zen izena emateko epea.

Gatazkak eta elkarbizitza hizpide apirilaren 23an

Apirilaren 23an, asteartea, Bortziriako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta, *Gatazken kudeaketa eta elkarbizitza sustatzea* izanen da. 18:00etan eskolako gimnasioan egin dute hitzordua. Gaiaren aditua den Oihana Zabaletak hainbat gai landuko ditu: adierazpen emozionalaren garrantzia haurtzarora, nerabezaroan eta helduaroan elkarbizitzarako; seme-alaben arteko harremanak eta gurasoen laguntza; elkarbizitza egokiaren lanketa; zirkulu *errestaurati-boak*...

Ortziralera (apirilaren 19a) bitarte ematen ahal da izena hitzaldian, gizarte zerbitzuen mankomunitatera deituz (948 63 50 36 edo 634 22 36 59) edo info@bortziriakgz.eusera.ida-tiz.

Zelain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
asteleheneretik ortziralerara

Zelain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zelain.info

IBARDOÑEA, S.L.
PROCESADORA DE ALGAS

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

F. LANCHAS

Akutziladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com



Goizeko ikastaroan parte hartu zuen taldea. AITOR IBARRA

Lehen sorospen ikastaro jendetsua egin dute berriz ere

Desfibriladoreak paratu eta bi urtera, apirilaren 6an, goiz eta arratsaldean eman zuten Ramon Camposek frontoian

MAIDER PETRIRENA

Orain bi urte herrian desfibriladore ikastaroa egin zen eta desfibriladoreak herrian paratu zituzten. Bi urteren ondoren, berriz ere Ramon Camposen eskutik ikastaroa egin zuten frontoian apirilaren 6an, bi taldetan banatuta. Kurtsoa guztiz praktikoa izan zen. Material aunitz eskuragai izan zituzten, panpinak, desfibriladore makinak, heimlich simulatzeko txalekoak...

Antolatzaileen izenean eskerrak eman Doneztebeko Udalarari utzitako materialarengatik, baita ikastaroan



Arratsaldeko ikastarokoak.

parte hartzeagatik ere, Sunbillako Udalarari emandako ogitaratekoengatik eta frontoia uzteagatik, Ramon Camposi kurtsoa emateagatik eta parte hartu dutenei.



INES EIZAGIRRE

1953, 1954 eta 1955eko kintoen besta

Otsaileko azken larunbatean hasita, oraindik ere, asteburuetan herritarren kinto bestak antolatzen ari dira. Apirilaren 6an, zehazki, 1953, 1954 eta 1955ean sortutako txanda izan zen. Bustitz ostatuan bazkari eta bazkalondo eder bat pasatzeko aukera izan zuten.



UTZITAKOA

Lider segitzen du Eneit Bertizek

Rural Kutxak antolatzen duen BTT Kopako bigarren proba jokatu zen apirilaren 7an Deikaztelun. Lehenbizikoan bezala, Eneit Bertiz Apeztekeak irabazi zuen 23 urtez behetikiko kategorian eta, honela, sailkapen orokorrean ere maillot horiari eusten dio (eskuinetik hasita bigarrena).



EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com




Sunbilla - Tel: 948 450 862




Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 50 65




Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

MALERREKA

Kultur ekitaldiak Donamarian apirila borobiltzeko

Apirilaren 26an ipuin kontaketa eta biharamunean antzerkia izanen dituzte

TTIPI-TTAPA DONAMARIA

Kultur hitzorduez gozatzeko aukera izanen da heldu den astean Donamarian, udalak bi ekitaldi antolatu baititu apirilaren 26an eta 27an.

Hilaren 26an, ortziralea, Amaia Elizagoien ipuin kontalaria hurbilduko da eta

18:00etan ipuin kontaketa musikatua egingen dute erabileran anitzeko gelan.

Biharamunean, berriz, Lorena Arangoa irurtzundarrak *Terapia* izeneko antzerkia egingen du 18:00etan. Lerro hauek idazterakoan oraindik tokia zehaztu gabea zuten.

Haur, gazte eta heldu, kuadrilla ederra bildu da Donamariako Mendi Itzulian

TTIPI-TTAPA DONAMARIA

Donamariako Ibargoiara Mendi Taldearen deia erantzunez, herritar saila bildu ziren joan den apirilaren 6an Donamariako Mendi Itzulian.

Eguraldi ederrarekin, herria mugaz muga zeharkatu zuen 25 bat kilometroko bueltan,

50 bat helduk eta gaztek parte hartu zuten, eta sei bat orduko bueltaren ondoren, Donamariako Herriko Ostatuan bildu ziren bazkaltzeko. Guraso batzuek eta haurrek, berriz, buelta ttikiagoa osatu zuten, eta horien artean 30 bat lagun bildu ziren.



Ederki ibili ziren mendi itzuliaren egunean. AMAIA ODRIOZOLAK UTZITAKOAK



DONEZTEBE FUTBOL TALDEA

Osasunaren futbol campusa Donezteben

Aste Santuko aurtengo oporretan ere, Osasuna Fundazioak antolatutako futbol topaketan parte hartzeko aukera izan dute gaztetxoek Donezteben. Joel Gil, Aimar Bizkai eta Enaitz Portu izan dituzte bidelagun eta futbolaz, jokoez eta bertzelako jardueraz gozatu dute lau egunez.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu



www.ibargoyen.net ☎ 943 616 587
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

Bestetako kartel lehiaketa antolatu du udalak

Lanak maiatzaren 2a baino lehen aurkeztu beharko dira eta irabazleak 200 euroko saria irabaziko du

OIER ZULAIKA

Bi hilabete falta dira herriko bestetarako, eta udala hasia da antolakuntza lanetan. Aurtun, gainera, bestak iragaritzeko kartel lehiaketa antolatu dute.

Lanak maiatzaren 2a, ortzeguna, baino lehen aurkeztu beharko dira herriko etxean 14:00ak baino lehen, eta irabazlea bozketa bidez aukeratu dute.

Lanak 50x60 zentimetroko formatua izan beharko dute, eta aurkeztutako lanekin batera gutun azal bat atxiki beharko da ondoko informazioarekin: egilearen izen abizenak, adina, helbidea eta telefonoa.

Lanak egiteko prozedura librean izanen da, eta lanen atzealdean erabilitako modalitate tekniko eta koloreak adierazi beharko dira. Irabazleak teknika digitalak erabiltzen baditu, lana USB batean ere entregatu beharko du herriko etxean. Debekatua dago inteligentzia artifiziala erabiltzea lanak sortzeko orduan.



Herriko bestak iaz. UTZITAKOIA

Aurkeztutako karteletatik udalak nahi dituen kopiak egiten ahalko ditu bere erabilerarako, eta udalak eskubidea izanen da aurkeztutako karteletan erakusketa antolatzeko. Kasu horretan, erakusketaren aretoaren, egunaren eta ordutegiaren berri emanen du udalak.

Lehiaketaren inguruan zailantzak argitzeko 641 58 99 08 zenbakira whatsapp mezu bat bidaltzen ahal da.

30. urteurreneko ospakizunak eginen dituzte liburutegian heldu den astean

OIER ZULAIKA

30 urte beteko ditu aurtun herriko liburutegiak. Urteurrena erabiltzaileekin ospatu nahi dute eta ospakizun astea eginen dute heldu den astean, apirilaren 22tik 26ra.

Asteartean, hilaren 23an ipuin txokoa eginen dute 11:00etan

liburutegian. Horrez gain, eskolako lehen hezkuntzako talde guztiak elkartuko dira zineman eta ipuinak, musika eta zozketak eginen dituzte.

Asteazkenean, Haizea Loirak ipuin kontaketa eginen dute haur hezkuntzako haurrentzat 09:30etik 12:30era. Arratsaldean,



Kontzertuan parte hartu zuten abeslariak eta musikariak. FOTO ZALDUA

Federico Moreno-Torroba Larregla musikariaren omenezko kontzertua

TTIPI-TTAPA

Kontzertu berezia izan zen martxoaren 16an, joan den udan zendutako Federico Moreno-Torroba Larregla musikariaren omenez. Bertan bere obrak, bere aitarenak eta bere aitatzirenak aditu ziren Mendi abesbatzaren, Raquel Andueza sopranoaren, Eduardo Zu-

bikoa tenorearen eta Raquel del Val eta Amaia Cordoba pianistaren ahotsetan eta eskuetan.

Emanaldi hunkigarria izan zen alargunari oroigarri bat eman zioten Mendiko kideek eta udaleko ordezkariak. Entzuleek lepo bete zuten eliza eta txalo zaparrada luzeak jo zituzten.

Errekako mendizaleak Mendaurrera igoko dira apirilaren 27an

OIER ZULAIKA

Mendeurrena ospatzen ari dira Euskal Herriko Mendi Federazioa, Euskal Mendizale Federazioa eta Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federakundea eta mendeurrena ospatzeko 100 urte, 100 mendi izeneko erronka egiten ari

dira. Erronkan Euskal Herriko ehun mendi talde baino gehiago igoko dira zazpi herrialdeetan aukeratutako 100 tontorretara, eta ehungarren urteurreneko bandera eramanen dute tontorrera eta argazkia atera. Errekakoak Mendaurrera igoko dira apirilaren 27an.

aldiz, 8 eta 10 urteko arteko haurrentzako *Bilatuko al dugu altxorra liburutegian?* ginkana eginen dute 18:30ean liburutegian.

Biharamunean, euskarazko eta gaztelaniazko irakurle taldeek prestatutako irakurketa eginen dute 18:30ean musikak lagunduta liburutegian.

28 eta 29 orrietan irakurtzen ahal duzue liburuzainari egingadako elkarrizketa.

Saioa San Miguelek errekorra ezarri du erreleboetan

Saioa San Miguel herritarra denboraldi bikaina osatzen ari da atletismoan. Grupoempleo Atletismo taldean ari da, eta taldekideekin batera Nafarroako errekor berria ezarri zuen 23 urtez azpikoetan 4x400 metroko erreleboetan 3.44.47ko denbora eginda.

«Liburutegiak gizarteko aldaketan lekuko izan dira historikoki»

MARGA ERDOZAIN AZPILIKUETA DONEZTEBEKO LIBURUZAINA

30 urte beteko ditu aurten Doneztebeko liburutegiak. Sorreratik eraldaketa nabarmena izan du, eta ikasteko eta liburuak mailegatzeko gune izatetik, kulturaren elkargune izatera pasatu da

A. LARRETXEA DONEZTEBE

30 urte beteko ditu aurten Doneztebeko liburutegiak. 30 urte kultura sustatzen eta herritarrentzako bilgune izaten. Urtebetetze borobila ospatu dute eta apirilaren 23ko astean hainbat ekitaldi antolatu dituzte ospatzeko. Marga Erdozain Azpilikueta herriko liburutegiarekin elkartu da TTIPI-TTAPA liburutegiaren nondik norakoak biltzeko.

30 urte bete berri ditu Doneztebeko liburutegiak. Nolako osasuna du?

Hagitx ona. Liburutegia helduarora indartsu ailegatu da eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko prest dago.

Nolakoa izan zen liburutegiaren sorrera?

90eko hamarkadaren hasieran Liburutegi Sarearekin negoziaketa bat egin zen eta, ondorioz, Nafarroako Gobernuak eta Doneztebeko Udalak herri liburutegi hau irekitzeko hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen horri esker, gure liburutegia sareko partaide bihurtu zen. Sarean egotearen abantailak ditugu: formakuntza, aholkularitza, kanpainen parte hartzeak aukera, dirulaguntzak...

Sortu zenetik zenbat aldatu da liburutegia?

Hiru hamarkada hauetan, herri liburutegi guztiak bezala, gurea ere eraldatu egin da. Garai hartan dena eskuz egiten genuen, zerbitzuak ez baitzeuden informatizatuta. Histori-



Marga Erdozain Azpilikueta Doneztebeko liburutegia zainaria liburutegian. UTZITAKOIA

koki liburutegiak beti gizartearen aldaketaren lekuko izan dira eta, egun, gure liburutegietan, munduko hainbat liburutegietan bezala, gune dinamikoak sortu dira; tailerrak ematen dira, musika entzuten da, sormen-txokoak izaten dira, ipuinen ahotsak entzuten dira, irakurle taldekideen solasaldi eta tertuliek giroten dituzte neguko arratsaldeak (kafeekin eta pastekin goxatuz), bertzeak bertze. Eredu horietara doaz gure liburutegiak, ez dira *ikas-zuloak*, isiltasunaren tenpluak... Baditugu gureak non ikasten ahal den, baina XXI. mendean liburutegiak herriaren taupadarekin bat dabiltzan bihotz bilakatu dira.

Zein dira gaur egun liburutegiak ematen dituen zerbitzuak?

Askotarikoak: kontsulta, aholkularitza eta formakuntza zerbitzua, mailegu zerbitzua, liburutegien arteko mailegua, mailegu digitala, *ikas-zuloa*... Horietaz gain, kulturari espazio zabala eskaintzen diogu: ipuin kontaketa, tailerrak, bisitak, emanaldiak, irakurle taldeak, hitzaldiak...

Zein funtzio betetzen du gaur egun?

Eraldaketa onduz erran dezakegu liburutegia erreferentzia gune bilakatu dela: gune publikoa, unibertsala, doakoa, integratzailea... Liburutegiak tokian tokiko errealitate kulturalaren eta sozioekonomikoaren isla dira eta

zubi lana egiten dute jendartearen eta komunitatearen beharretara egokitzeko. Elkarlana egiten saiatzen gara hezkuntza komunitatearekin eta bertze eragileekin batera.

Zergatik da garrantzitsua herrian eta eskualdean liburutegia izatea?

Tranbia zaharraren ipuinari erreferentzia eginez, aipatuko nuke liburutegiko atea zabalitzen den aldiro, eta *tranbia zaharraren* kanpaia jotzen den aldiro, funtsean, liburu bat ideki, usaindu, edota etxe batera joaten den aldiro, pentsa dezakegu erabiltzaile hori kulturalki aberatsagoa izan dela, mundu aldrebes hau eraldatzeko edota hobetzeko grina piztuko zaiola. *Gure tranbia zaharra* eskualdeko altxor bat da; liburuak altxorak dira, eta desinformazioaren eta adimen artifizialaren aitzinean oraindik antz erakusten jarraitu behar dute.

Bi irakurle talde daude. Zein da horien funtzionamendua eta zenbat lagunek hartzen dute parte?

Gaztelaniazko taldeak hileru emakume idazle baten lan bat hautatzen du, eta hilaren azkeneko astelehenetan liburu aletzeko elkartzen dira. Urtean bederatzila lantzen dituzte. Euskarazko taldeak, berriz, urtean hiru edo lau topaketa izaten ditu eta solasaldira egilea gonbidatzen dugu: Amets Arzallus, Jon Maia, Miren Agur Meabe, Ana Jaka, Jon Abril eta Uxue Alberdiren bisita izan dugu dagoeneko. Bi irakurle taldeak kudeatzeko gobernuak ematen dizkigun liburu sortez baliatzen gara; hala, parte-hartzaileek ez dute libururik erosi behar.

Ipuin txokoa ere izaten duzue astero. Zenbat haur biltzen dira?

Haizea Loira artistak eta musikoterapeutak zuzendutako txokoak ia hamar urteko ibilbidea du. Bertan, ahozkotatunari, musikari eta ipuingintzari leihoz zoragarri bat ideki diegu, eta 0-3 urteko txikiak protagonista bilakatu ditugu. Saio horietan 6-8 txiki beren senideekin batera bertaratzen

dira. Mimos zaintzen dugu gune hori, eta Haizeari eskerrak eman behar dizkiogu bere ekarpen zoragarriarengatik.

Datuei begira, ia 4.406 mailegu egin ziren, eta 5.543 lagun bertaratu ziren liburutegira. Datu horien zer balorazio egiten duzue?

Datuak zenbakiak baino haratago doaz; horien atzean dagoena gure zerbitzuaren bizitasuna eta erabilpen maila da. Hein batean, kulturalen egindako inbertsioaren balioa erakusten digute, inbertsioaren etekina begi-bistakoa baita. Hainbat azterketek erakusten dute kulturalen eta liburutegietan dirua gastatu behar dela, eta inbertsio horren etekina gure jendartera itzuli eta bertan gelditzen dela. Hori erranda, aipatzen ahal dugu datu onak direla eta pasa den urtearekin alderatuta goranzko joera dugula. Bai baikorra, gure liburuzaina! 'Baina oraindik irakurtzen al da?' galdetuko dute anitzek. Bada, ez nahiko genukeen bezainbertze, baina irakurri irakurtzen da, eta, bai, itxaropentsu gara. **Bazkidetzeari dagokionez, 695 bazkide ditu gaur egun. Nolako izan da bilakaera?**

Kontuan hartu behar dugu bortz urte daramatzagula katalogoak eta zerbitzuak digitalizatuta. Berrikuntza horrek gure erabiltzaileei bazkidetza berritzea suposatu die. Une honetan gure liburutegian txartela egin dutenen kopurua hori da, baina garrantzitsuena da txartel horrekin Nafarroako edozein liburutegiko mailegua erabiltzen ahal dutela; eta bertze liburutegietako ohiko erabiltzaileak ere gurean ongi etorriak izanen direla. Hau luxua, 120 liburutegitako ateak zabalik edukitzea eta milaka ale gure zain!

Zein da erabiltzaileen profila?

Adinari dagokionez, zortzi urtera arte erabiltzaile anitz ditugu, gurasoekin bertaraten direnak. Adin multzo hori hagitik aktiboa da. Zortzi urtetik gorakoek ere mailegu anitz erabiltzen dute. Erabiltzaile



Mota anitzetako ekitaldiak egiten dituzte liburutegian. Irudian, Literarte jaialdearen barrenean egindako ikuskizuna.

horiek euskarazko aleak dituzte maiteago. Gazteek, berriz, liburutegia erabiltzen dute biltzeko edo lanak egiteko. Helduen artean gaztelaniaz gehiago irakurtzen da euskaraz baino, baina erran dezaket azkeneko urteetan euskaraz gero eta gehiago irakurtzen dela. Berrikuntzak zaintzen ditugu eta bi hizkuntzetan liburu berriak eta anitzak izatean, irakurleen arreta piztu eta bereganatzen dugu. Eguneroko erronka gustagarria da hori.

Datuek diotenez, azken urteetan igo egin da irakurtzen duen herritarren kopurua, eta igoera hori batez ere nerabeengan eman da. Nabaritzen duzue joera hori?

Gazteen artean, gurean, ez da hala ageri. Zorionez, ikastetxeetan irakurketa bultzatzen ari dira eta beharbada kopuru horiek goranzko joeran neurtuko dira. Arlo akademikoari lotuta badira ere, goraipatu behar da azkeneko urteetan ikastetxeetan egindako aha-

legina. Irakurketa mota eta eskaintza gaur egun erakarriagoa da. Hala ere, zaila dugu aro digitaleko gazteak pantailetatik burua altxaraztea eta liburuaren dastaketara pasaraztea. Gai horrek zinez kezkatzen gaitu, bai hezkuntza komunitatean bai liburutegietan.

Ospakizun astea izanen duzue apirilaren 23koan, San Miguel eskolako ikasleekin hainbat jardueraren egunen ditugu: ipuin kontaketa, musika, zozketak...

Haizea Loirak bideratuko ditu emanaldi horiek. Irakurle taldekoek hainbat testu irakurriko dituzte, euskaraz zein gaztelaniaz, musikaz lagun-

duta. Gaztetxoekin ginkana bat antolatuko dugu. Sorpresaren bat ere izanen da, baina dena ez da kontatu behar, ipuinetan bezalaxe...

30 urte bete berritan, zer balorazio egiten duzue?

Pertsonalki, balorazio hagitik ona egiten dut. Azkeneko urteetan hobekuntza dezente egin dira: tokia handitu, altzari berriak, katalogoen digitalizazioa, mailegu digitala, liburutegien arteko mailegua... Aldaketa horiek gure jarduna hobetu eta dinamizatu dute. Bertako administrazioaren inplikazioa ere goraipatu nuke, izugarriko ahalegina egiten baitute zerbitzu hau kalitatezkoa izan dadin. Ekarpene ekonomikoa hagitik garrantzitsua da, bai ale berriak erosteko, bai kultur jarduerak antolatzeko. Sarearen babesa eta laguntza ere aipagarriak dira.

Zein dira hemendik aitzinerako asmoak?

Egunero tranbia martxan jartzea eta etorriko diren errorekin aurre egitea eta biziko ditugun une historikoetan gure liburutegia horien erdigunea izatea. Horrela hartu nahiko nuke erretiroa, ondotik etorriko den *tranbia-gidariari* lekukoa pasaz.

«ZORTZI URTE
BITARTEKO
ERABILTZAILE
AUNITZ DITUGU»

«AZKEN URTEETAN
HOBOKUNTZA
AUNITZ EGIN DIRA
LIBURUTEGIAN»

'Nieva ceniza' erakusketa ikusgai maiatzaren 5era arte

Munduko gatazkak eta bizimodu latzak bildu ditu Ivan Benitez argazkilari eta kazetariak

ARKAITZ MINDEGIA

Apirilaren 20tik maiatzaren 5era arte, Ivan Benitezek osatutako *Nieva ceniza* erakusketa ikusteko aukera izanen da Iturengo Herriko Etxeko ganbaran. Benitezek hitzak eta argazkiak erabiliz, ahanzturaren kontrako kronikak osatu nahi izan ditu. 1998 eta 2022 artean Sudan, Nikaragua, Israel, Etiopia, Mali, Kamerun, India, Guatemala, Kolonbia, Honduras eta Mexikon aritu zen lanean eta hango herritarren egunerokoa bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten. Errealitate gordina: gosea, emakumeek jasaten duten tratua, haurren egoera zaila... horiek guztiak bildu ditu erakusketan.

Apirilaren 20an, larunbatean, 16:00etan eginen dute inaugurazioa eta hitzordua baliatuta, Ivan Benitezek bisita gidatua eskainiko du 18:00etan. Nahi duenak datozen hiru asteburuetan erakusketa bisitatzeko aukera izanen du: apirilaren 20an (16:00-20:00), apirilaren 21ean (10:00-13:00), apirilaren 26an (18:30-20:30),



Benitezek azalpenak ematen ditu.

apirilaren 27an (16:00-20:00), apirilaren 28an (10:00-13:00), maiatzaren 3an (18:30-20:30), maiatzaren 4an (16:00-20:00) eta maiatzaren 5ean (10:00-13:00).

Argazki guztiak azalpen labur bat dute ondoan, irudiari testuingurua ematen diona. Ahanzturaren aurkako bozgorailua izateaz aparte, jendartearen bizitzeko borondatea goraiatzeko lagin bat izan nahi du erakusketak.



Auzolaneko aritu ziren gurasoak. ARKAITZ MINDEGIA

Eskola ingurua txukuntzeko auzolaneko aritu dira

ARKAITZ MINDEGIA

Azkeneko asteetan pare bat auzolan egin dituzten eskola inguruan. Zuhaitzaren eguna antolatzea dute aurten eta eremua garbitu, zulaketak egin eta itxiera polit bat egin dute. Udaleko zinegotziak eta eskolako hainbat guraso aritu ziren elkarrekin lanean. Ez da hori

izan eskolako eremuan egin duten aldaketa bakarra. Guraso elkarteak deituta, eskolako kanpoko aldea eraberritzeko auzolana egin zuten. Gurrpilak loreontzi bihurtu eta sukaldea, etxetxo bat eta hondarrarekin jolasteko txokoa sortu zituzten. Oporretatik bueltan ezusteko ederra hartu zuten ikasleek.

Igeriketa ikastaroa egiten ari dira astelehenetan

Pulunpa eskolako 1. eta 2. mailako ikasleak, Malerrekako eskola ttikietako beste ikasleekin batera, Lesakako igerilekura joaten dira astelehenetan. Iturengo plazan hartzen dute autobusa 09:15ean eta igeriketa ikastaroa egin ondotik eguerdirako bueltatzen dira eskolara.

Joko topaketetan parte hartu dute Pulunpakoek ere

Legasan egin dituzte Malerrekako eskola ttikien joko topaketak eta Pulunpako ikasle, irakasle eta gurasoak ere bertan izan ziren. Egunpasa ederra egin zuten denek elkarrekin: jolasean, dantzan eta kantuan ibilita gozatua hartu zuten.

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ERAKUNTZA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

KULTURKARI
Dizitina grafikoa | Publikatzaia
www.kulturkari.com

Etiketak eta pegatinak
Paperean edo biniloan
(opakua edo gardena)
Bobinan edo soltean,
formarekin moztuak...

BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDOZIAK
1954 - 2017

609 446 693 - 948 625 663
www.bidasoa.com

Zakuraren bitartekariaren bidezko erregaia eta ura ematen dituztenak

GURPIL eskaintzen dituztenak
24h-ko asistentziarik erregidatzen
187 euruko zerbitzu gehiagorik
Gaztelandiegirik 24h irekita

GASOLIOA ETXERA
eramanen ditugu

Alkalega Industrialden
Ziubi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)

Noain-Eskiroz Industrialden
Y Kalea 10
31118 Noain (Nafarroa)



Gabenara taldea bere kontzertu batean. Zubietan emanen du azkena. ARTXIBOKOA

Gabenara taldeak azken kontzertua herrian emanen du

Larunbat honetan eskainiko du bere azken emanaldia eta herri kirolak, bazkaria eta beste zenbait ekitaldi prestatu dituzte

FERMIN ETXEKOLONEA

Zubietan eskaini zuen bere lehen kontzertua Gabenara taldeak eta hainbat urtetako ibilbidearen ondotik, herriarekin duen harremanak kontuan hartuta, bere azkeneko kontzertua ere Zubietan eman nahi izan du apirilaren 20an. Larunbat honetako azken emanaldi horren inguruan egun osoko egitaraua antolatu dute.

Herri kirolak eguerdian

Honela, larunbatean 12:30ean herri kirolak izanen dituzte, herritarren arteko desafiaoa-

rekin. Ondotik trikipoteoa egingen dute. 14:30ean bazkaria izanen dute. Bazkarirako txartelak 30 eurotan salgai daude Santxon eta Herriko Ostatuan eta honako menua izanen da: zizkamizkak, zesar entsalada, oilasko errea patatekin, postrea, kafea eta kopak eta konbinatuak. Bazkalondoa ere musikaz eta kantuz alaitua izanen da. 18:30ean hasiko da Gabenara taldearen azken kontzertua eta ondotik festak segituko du, nekatu arte. Iluntzean Herriko Ostatuan ogitartekoak hartzeko aukera ere izanen da.

Soberan gelditu diren egur loteak eskatzeko epea hilaren 19ra arte zabalik

Zubietako Udalak jakinarazi duenez, aurtengo egur loteak banatu ondotik, badago soberan geratu dena. Norbaitek interesa badu udaletxean eskatu beharko du eta eskatu ahala emanen da. Eskatzeko epea apirilaren 19an, 11:00etan akituko da.

Beste aldetik, herriko garbiketari lanak egiteko Ander Aragon eta Joseba Elizalde kontratatu ditu udalak sei hilabeterako. Aurkidiko bidean, berriz, zementoa botatzeko lanak egingen dituzte bi zatitan. Ubiria eraikuntza enpresari esleitu zaio lana.



ERNESTO DOMINGUEZ

Sukaldaritza tailerra eta mahai jokoak

Haurren eskolako Aste Santuko oporrak probestuz, apirilaren 4an sukaldaritza tailerra estalpean (pizza egiten eta jaten ageri dira neska-mutikoak), 5ean mahai jokoak eskola zaharrean (partixean eta kartetan jostetan) eta 6an haurrendako zinema izan zuten, aspertzeko astirik gabe.





Miguelena
SUKALDEAK

ETXETRESNAK

PARETA-ARMAIRUA

SUKALDE ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK

T. 948 450 925 | M. 624 47 57 25
Ametzia zeharkarrika, 1
DONEZTEBE

www.electrodomesticosmiguelena.es





BRIKO
BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea

Pinturak

Fatxadak

Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura

Birgaitzeak eta obra berriak

Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

MALERREKA-BERTIZARANA

Kontsultategian hitzordua hartzeko aldaketak

Ezurrako, Eratsungo, Zubieta eta Iturengo herritarrek bertze telefono batera deitu behar dute hitzordua hartzeko

TTIPI-TTAPA

Medikuarekin edo erizainarekin hitzordua hartzeko telefonoan aldaketak egin dituzte. Doneztebeko Osasun Zentro-tik jakinarazi dutenez, neurriak Ezurrako, Eratsungo, Zubieta eta Iturengo herritarrei eraginen die eta hemendik aitzinera 948 63 30 28ra deitu beharko dute ordua hartzeko. 08:00etatik 11:40era bitarteko tartea izanen dute horretarako. Monica Martin Doneztebeko Osasun Zentroko zuzendariak TTIPI-TTAPAri baieztatu dionez, «aldaketak herri horiei bakarrik eraginen die».

Kontua da zuntz sarea hedatzearekin batera, orain arte erabili den kobrezko kableen sarea itzaltzen ari dela pixkanaka-pixkanaka. Zehazki apirilaren 19an itzaliko da. Horrekin batera, orain arte medikua-



Irudian Iturengo kontsultategia.

rekin eta erizainarekin hitzordua hartzeko erabili izan den zenbakiak udalarena izateari utziko dio, eta Nafarroako Gobernuaren eskuetara pasatuko da. Horregatik aldatu dute zenbakia.



UTZITAKO ARGAZKIA

Alexia Arzuagaren marrazkia saritua

Aurten ere Nafarroako Autismo Elkarteak antolatutako marrazki lehiaketan parte hartu dute Doneztebeko San Miguel ikastetxeko ikasleek, eta Alexia Arzuaga urroztarra txapeldun izan da. Saritu guztiei diploma, domina, elkarteko eskumuturrekoa, gazta eta marrazki-materiala eman zieten. Zorionak, Alexia!

0 eta 10 hilabeteko haurrendako tailerra martxan

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitateak antolatuta, 0-10 hilabeteko haurrendako masaje tailerra-rekin hasi dira apirilean Doneztebeko Osasun Zentroan. Sei saio egitekoak dituzte; dagoneko hiru egin dituzte eta bertze hirurak apirilaren 19an, 22an

eta 24an izanen dira. Gizarte zerbitzuetako arduradunek kontatu duenez, «tailerrean parte hartzeko hamar plazak segidan bete ziren eta urrirako bertze sei saio aurreikusi ditugu». Oraindik ez dituzte datak lotu. Saioak Amstriuska zentrokoek ematen dituzte.



NEREA MEOKI

Herri eskola ttikien besta Legasan egin dute aurten

Ituren, Legasa, Narbarte, Saldias eta Sunbillako eskoletako ikasleak, irakasleak eta gurasoak bildu ziren martxoaren 27an Legasan egindako Malerrekako herri eskola ttikien bestan. Puzgarriak, jolasak, herri kirolak, dantza, kanta... Ederki ibili ziren.

ttipi-ttapa
sare sozialetan

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

JARRAI GAITZAZU!

Bideetan, ur sarean eta argiterian hainbat lan Legasan

Inbertsio nagusia Beortegi auzoan baserrietako ur sarea berritzeko lanena izanen da

TTIPI-TTAPA LEGASA

Ur sarea, mendiko eta baserrietako bideak, karrikako argiteria, plazako iturria... Bateko eta bertzeko, hainbat lan dituzte esku artean Legasako kontzejuan, batzuk dirulaguntzarekin egingen direnak, eta bertzeak horien esperoan daudenak.

Beortegi auzoko ur sarea

Kontzejuko ordezkariak jakinarazi dutenez, Beortegi auzoan baserrietako edateko ur sarea berrituko dute, Gazteluko saretik hartuz. Lana bi fasetan banatuko dute eta lehenbizikoan, Bordaxuri, Bistargi eta Lokari hornituko dituzte eta Bordaxuriren azpiko aldean lotura puntu bat utziko dute, etorkizunean bertze baserri zerbizua emateko. Lanek 55.683 euroko aurrekontua izanen dute eta % 70eko dirulaguntza hartuko du kontzejua.

Bideak

Irisora doan mendiko bidean, borts kilometroko eremuan ezpondak garbituko dituzte. 12.000 euroko gastua izanen da eta erdia diruz lagunduko dute.

Iztxigiko eta Beortegiko Mami-neneko bordara doazen bideak ere konpondu nahi ditu kontzejua. 15.000 euroko gastua aurreikusi du eta diru iturrien esperoan daude lanak baieztatu ahal izateko.

Karrikako argiteria

Karrikako argiterian, Zamargilenean etxean dagoen argiteria koadroa plazara lekualdatuko dute eta hor argindar puntu iraunkorra paratuko dute. Hala, bestetan edo edozein bertze kultur ekintza antolatzerakoan eskuragarri izanen da.

Plazako iturria

Plazako iturria ere konpondu nahi du kontzejua, betiere diru sarrera batzuk lortuta.

Herri lurren antolamendua

Herri lurren antolamendua berrikusteko lehenbiziko lanak ere akitu ditu kontzejua. Horren barrenean, mendiko jardunbide egokien gida bildu dute, eta heldu den hamar urteetako ekintza guztiak kontuan hartu dituzte. PEFC baso ziurtagiria ere lortu dute.

Araztegia berritzeko lanean ari dira hiru kontzejua

TTIPI-TTAPA BERTIZARANA

Legasako, Narbarteko eta Oieregiko herrietan ura edangarri bihurtzeko duten araztegia berritzen ari dira. Lanak hiru herrietako kontzejuen artean egingen dituzte eta Hidroambiente enpresari esleitu diote horretarako ardura.

55.000 euroko inbertsioa

55.000 eurotik goitiko inbertsioa izanen da eta obra hauek egiteko dirulaguntzarik ez dagoenez, gastua kontzejuen artean ordainduko dutela jakinarazi dute. Gastua biztanleen arabera banatuko dute.



Joan den urteko txapelketako finalean hartutako irudia.

Laugarren urtez frontenis txapelketa antolatu dute Narbarten

MAITE BERTIZ NARBARTE

Herriaren frontenisean jokatzeko afizio handia dagoela ikusita hasi ziren frontenis txapelketa antolatzen, eta dagoeneko laugarren ediziora ailegatu da.

Aurten ere, gazteen eta ttikiaren txapelketak egingen dituzte eta bi kategorietako finalak egun berean jokatzeko saiatuko dira.

Partidak maiatzetik uztaileara jokatu dituzte eta finala abuztuko lehenbiziko asteburuan egingen dute.

Txapelketaren bueltan, giroa nabaria da plazan, ttiki nahiz haundi, noiznahi bada norbait plazan pilota eta erraketa eskuan entrenatzen eta, bide batez, ongi pasatzen.

Urte osorako kultur eskaintza ederra prestatzen ari dira Legasan

TTIPI-TTAPA LEGASA

Poliki-poliki urteko kultur eskaintza osatzen ari dira legasarrak. Dagoeneko badituzte hainbat hitzordu lotuak.

Maiatzaren 18an, adibidez, Jaione Olazabalen eta bere familiaren kantaldia antolatu dute. Hitzordu berean, Iruri-

tako sotopilak eta Lekarozko sagardoa dastatzeko aukera izanen da.

Uztailean, alde batetik, hila-ren 8tik 11ra, Iciar Mikelperrizenarekin eskulan tailerra izanen da, eta bertzetik, Santa Leokadia ermitan kantu zaharren bazkaria egingen dute An-



Gurrutxaga-Olazabal familia. A. IPARRAGIRRE

gel Mariezkurrenarekin, Aitor Ibarra Jaliskorekin eta Beñat Mitxelenarekin. Sagardotegiko menua emanen dute.

Irailaren 28an, Ztandap Idoia Torregarainen eta Mirari Martiarenaren azken bakarriketaz gozatzeko aukera izanen da eta azaroaren 9an, Doneztebe-ko Mendi Abesbatzak kontzertua emanen du. Inurrieta ardoak dastatu eta Zubietako taloak jateko aukera ere izanen da.

Lourdeserako bidaian apuntatzea heldu den astean

Udaberrian, Lourdesera joateaz gain, Burgosera eta Soriara, Benidormera eta Albaniara joanen dira bazkideak

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 13an Lourdesera irteera egingen dute bazkideek. 12:00etan meza izanen da Lourdesen, eta bazkaria Florida edo Acadia hotelean egingen dute. Honako menua izanen dute bazkaltzeko: zizka-mizka hotzak, oilasko errea entsaladarekin eta patatekin, fruitu gorrien tarta, ura, ardoa eta kafea. Bazkaria bukatzean, 16:30ean gai-xoen prozesioa izanen da.

Autobusaren irteera ordua herri bakoitzeko delegatuak jakinaraziko du. Irteerak 42 euroko prezioa dau, eta izen ematea apirilaren 22an, 23an eta 24an egin beharko da herriko delegatuaren bidez.

Heldu den astean Soriara eta Burgosera

Batera eta bertzera bidaian segitzen dute Arkupeak elkarteko bazkideek. Orain arte egun bakarreko irteerak egin dituzte aurten, eta lehen bidaia luzea heldu den astean egingen dute. Astelehenean, hilaren 22an aterako dira, eta larunbatean, hilaren 25ean

itzuli. Soria eta Burgos aldean ibiliko dira eta bi autobuse-tan jonen dira.

Bazterrak ongi ikusi ahal izateko, bidaia horrela antolatu dute: autobus batek Sorian hasiko du ibilbidea, eta ondotik joanen dira Burgosera, eta bertzeak, alderantzizko bidea egingen du. Bi autobusak egun berean atera eta itzuliko dira.

Maiatzean Benidormera

Maiatzaren 5etik 15era, aldiz, Benidormera joanen dira bazkideak. Maiatzaren 5ean abiatuko dira autobusez nor bere herritik, eta bidean Castejonon egingen dute geldia. Bederatzi egunez hondartzaz eta eguzkiaz disfrutatu ondotik, maiatzaren 15ean itzuliko dira, eta itzuleran ere, Castejonon geldituko dira bazkaltzeko.

Benidormetik bueltan, aitzineko aldizkarian aipatu bezala, maiatzaren 30ean ospatuko dute Soinketa Eguna Donezteben.

Ekainean, aldiz, Albaniara egingen dute bidaia bazkideek.



UTZITAKOA

Eratsungo bazkideen besta eguna

Eskualdeko bertze herri aunitzetan bezala, Eratsunen ere herriko bazkideen eguna ospatu zuten. Apirilaren 7an, igandea, elkartu ziren 27 bazkide Elietxe ostatuan urteko besta ospatzeko. Bazkaldu ondotik, giro ederrean kantari aritu ziren.



UTZITAKOA

256 bazkide Euskal Kantuen Egunean

Apirilaren 4an ospatu zuten Dantxarinako Otxondo jatetxean Euskal Kantuen Eguna. Lehenik dendak ikusteko aukera izan zuten bazkideek eta ondotik egin zuten otordua.

Bazkaldoan Joxe Angel akordeoilariaren musikarekin euskal kantu zaharrak kantatzen aritu ziren



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicación
www.kulturkari.com

Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...



Hainbat euskarri

Era guztietako formatuak eskaintzen dizkizugu zure enpresa bistaratzeko









Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«Jendeak kontuan hartzen duen oparia dira loreak»

JOSUNE URROZ TELLETXEA
ZU LORE-DENDA - BERA

Duela 9 urte ireki zuen Josune Urrozek Zu lore-denda, eta «bertako landareak» saltzen ditu; «lore moztuak, hiletetako eta ezkontzetarako sortak eta zentroak, jatetxeak apaintzeko...». Horrez gain, «ahal den neurrian zaintzeko aholkuak ematen dizkiet bezeroei. Baina gero garrantzitsua da norberaren intuizioa eta trebetasuna, eta noski, landareari denbora eskaintzea». Salmenta sasoiaren arabera izaten da; «neguan Santu Guztien egunaren inguruan izaten da haundiena eta udaberrian salmenta tikiagoa baina luzeagoa izaten da. Aroak urtero errepikatzen dira». Izan ere, «loreak erosteko ohitura mantendu da. Egia da norberak etxean edukitzeko landareetan, jaitziera izan duela, baina oparitzeko edo eskaintzeko loreetan salmenta igotzen ari da. Eskertzen dugun oparia da».



«Gizartearen kontsumo ohitura aldatzen ari da»

CARLOS OSTIZ APEZTEGIA
OSTIZ ETXEA - DONEZTEBE

Historia haundiko denda da Ostiz Etxea, duela 150 urte baino gehiago ireki baitzuten. Belaunaldiz belaunaldi, jabez aldatu bezala aldatu da eskaintza. Gaur egun denetik saltzen dute, «batez ere oinetakoak, tabakoa, liburuak eta papertegiko gauzak. Tabakoa saltzen da gehien, baita liburuak ere. Digitalizazio garai honetan, liburu fisikoak nahiago dituztenak ere badaude; usaintzea, ukitzea... papera ez da hilko». Hala ere, gizartearen kontsumo aldaketa aipatu du: «lehen jendeak herrian erosten zuen, baina orain hirietara eta denda haundietara joateko ohitura nagusitu da. Hirietan eta herrietan denda tiki eta ertain aunitz ixten ari dira. Bizitza estiloa aldatzen ari da, eta herrikoari eutsi behar diogu. Doneztebarrek bada-kite edozein gauza behar badute, hemen egonen gara».



«Kalitatezko gozogintza egiten saiatzen gara»

MIKEL LIZARRAGA LAZKANO
OGI BERRI KAFETEGIA - LEITZA

15 urteko ibilbidea du Leitza-ko Ogi berri kafetegiak, eta denetik eskaintzen dute; «gehienbat ogia, opilak eta pastelak. Kalitate oneko produktuak egiten saiatzen gara; kafea, tostadak... opil eta pastelak gurinarekin eginak dira eta ogiak ore amarekin». Produktu batzuk lantegitik ekarritako orearekin eginak badira ere, «etxeko gozogintza ere daukagu: pantxinetak, hostopilak eta bere sasoiak, errege erroskak. Produktu onak dira, artisauiak, eta jendeak asko estimatzen ditu». Horrez gain, «ilunabarretan pizzak egiten ditugu, hasieratik bukaeraraino eskuz eginak eta eskatu ahala momentuan laberatuak. Etxean beti izan dugu egiteko ohitura eta 2017an hasi ginen saltzen, eta jendea asko gustatzen zaizkio».



«Kotxeak aldatu diren neurrian aldatu da lan egiteko modua»

ION SANSIÑENA ZUBIETA
SANSIÑENA GARAJEA - ELIZONDO

1980an ireki zuten Sansiñena garajea Elizondoko herrigunean, «baina Sansiñena analek bazuten lehenagotik ere tailerra». Gurasoen pausoak segituz ari dira gaur egun lanean bertan, baina «kotxeak aldatu diren neurrian aldatu da lan egiteko modua: makineria, ordenadoreak, berrikuntzak... lan fisikoak bada ere, aunitz aldatu da». Edozein markako kotxe, traktore eta kamioi tikiarekin egiten dute lan. «Orain, adibidez, traktore denboraldia hasi da eta konponketa mekanikoak, estalki aldaketak... eta horrelako lanak egiten ditugu». Horrez gain, bigarren eskuko autoen salmenta dute. Tailerra ongi doa, «lana badugu eta ez gara kexu. Jendeak etortzen segitzen du eta eskerrak eman nahi dizkiegu horregatik».



Udaberri festa antolatuko dute apirilaren 27an

Bazkarirako txartelak apirilaren 24ra arte egonen dira salgai Peritza eta Leitzarra tabernetan

TTIPI-TTAPA

Urtaro aldaketa festarako aitzakia izanen da beste urte batez herrian. Festa batzordeak egun osoko festa antolatu du apirilako azken larunbaterako. Txistu eta danbolin doinuekin esnatuko dute herria, 09:00etan herriko txistulariek eginen duten dianarekin. 11:00etan Leitzako konpartsa aterako da kalera eta erraldoi eta buruhaundiak kalejiran ibiliko dira etxeko txikienean gozamenarako. Bazkalaurrea girotzeko, 13:00etan poteoa eginen dute trikitilarekin eta 14:30ean herri bazkaria izanen dute Leitzako Kiroldegan. Iluntzean, segida izanen du festak. Zutik elektrotxarangako kideak kalejiran ibiliko dira 19:00etatik aurrera. Hortik aurrera, bakoitzaren esku egonen da festa noiz arte luzatu erabakitzea.

Bazkarirako txartelak

Bazkarirako txartelak Leitzarra eta Peritza tabernetan jarri dituzte salgai eta apirilaren 24ra arte egonen dira eskurgarri. Helduek 28 euro ordain-



Konpartsa kalera aterako da. ARTXIBOA

du beharko dituzte eta haurrek 16 euro. Azkeneko urteetan bezalaxe, Sarayola catering enpresa arduratuko da bazkaria zerbitzatzeko. Bazkaritarako entsaladilla errusiarra, otarrainxkak baratxuriarekin, arrainez betetako piperrak, ukondo errea, sorbetea edo goxua izanen dituzte helduek, edaria, kafea eta kopa barne. Haurrek, berriz, krocketak eta nuggetak, albondigak eta danoninoa.

Euskal Herriko Bollo Topaketak eginen dituzte Leitzaan apirilaren 26tik 28ra

TTIPI-TTAPA

Apirileko azken asteburuan Euskal Herri osotik etorritako 300-500 lagun inguru biltzea aurreikusi dute. Bollera eta genero disidenteei topaleku bat eskainiko diete herrian. Egunerokoan bizi dituzten galdera, kezka eta ilusioetatik

abiatuta, gogoetarako bidea ireki, ekarrekin hausnarrean aritu eta festarako ere hartuko dute tartea. Horretarako, egitarau anitza osatu dute: bertso saioa, tailerrak, hitzaldiak, bazkaria, karaokea, performatzeak, arte sorkuntzak... izanen dituzte.



Ama Dablam-era egindako espedizioa izanen dute hizpide lehenbiziko egunean.

Mendi Zikloa antolatu du Aurrera Elkarteko Mendibil Mendi Taldeak

TTIPI-TTAPA

Herrian mendi zaletasun handia dagoela ikusita, proposamena egin du Mendibil Mendi Taldeak: «apirilaren 18tik 21era, bi mendi irteera eta hiru proiektzio izanen dira». Lehenbiziko aldia dute, baina espero dute azkenaz izatea: «ongi ateratzen bada, gure asmoa urtero ziklo bat antolatzea da».

Herritik hurbil dagoen Okabio mendia jende gutxi eza gutzen duela ikusita, mendi kaxko horren bueltan bi irteera antolatu dituzte. Apirilaren 20an, haur eta gaztetxoei luzatu diete proposamena. Herriko plazatik aterako dira 09:00etan eta Okabiora igoko dira, 866 metroko garaierara. Biharamunean, helduen txanda izanen da. Okabio, Guratz, Uitziko gaina eta Leitza lotuko dituen ibilaldia eginen dute, 09:00etan abiatuko dira plazatik.

Izerdirik bota gabe, mendiaz gozatzeko aukera ere izanen da. Leitzako Herri Aretoan hiru mendi espedizioen inguruan osatutako proiektzioak eskainiko dituzte. Apirilaren 18an, 19:00etan *Ama Dablam-6812 m.* espedizioari buruz ariko dira eta Juan Martin Maritorrena gonbidatu dute hizlari lanetan aritzeko. Apirilaren 19an, 19:00etan, *Karakorumen trekking*-ari buruzko proiektzioa ikusi eta Jon, Oinatz, Axier, Josu, Olatz, Mikel eta Julenek gidatuko dute solasaldia. Bukatzeko, apirilaren 20an eta 21ean, *En las últimas fronteras del planeta. Cerro Torre.* espedizioari buruzko emanaldia eskainiko dute 17:00etan. Lehenbiziko bi emanaldiak dohainik izanen dira eta apirilaren 20 eta 21ekoak ikusteko, bost euro ordaindu beharko dira.

'Pequeñas cartas indiscretas' filma ikusgai apirilaren 20an eta 21ean

TTIPI-TTAPA

Leitzako Herri Aretoan bi egunetan botako dute *Pequeñas cartas indiscretas* filma, 19:30etik aurrera. Apirilaren 20an, larunbatean, jatorrizko bertsioan eskainiko dute eta apirilaren 21ean, igandean, gaztelarera itzulita. Thea Sha-

rock zuzendariak 2023an egindako filma da, komedia bat, eta Olivia Colman, Jessie Buckley eta Anjana Vasan aktoreak dira protagonistak. Sarrerak aldeztu aurretik eros daitezke lau eurotan edo saioa hasi baino ordu erdi lehenago, leihatilan, bost euroren truke.



Leitzaldean pediatria orain ekimenaren bultzatzaileak. UTZITAKOIA

Pediatria zerbitzua berrezartzeko eskaera irmoa

Hainbat gurasok bat egin eta 'Leitzaldean pediatria orain' ekimena jarri dute martxan, «osasun zerbitzu duina» eskatzeko.

TTIPI-TTAPA

Urtarril erdialdeaz geroztik, pediatriarik gabe daude Leitzako Osasun Etxean eta ez dute ordezkorik bidali. Horren ondorioz, erizainaren lan karga handitu eta nahitaez pediatrik aztertu behar dituen kasuak Iruñera bideratzen ari dira. Osasunbideak emandako irtenbidea «hanka motz» gelditzen dela salatu dute: «ez duelako gure seme-alaben osasun arreta duina bermatzen. Leitzaldeko 595 haur eta gaztetxok dagokien osasun etxean pediatria batek artatuak izateko eskubidea dute». Aldarri-

kapenak kalera atera eta elkarretaratzeak egiten hasiak dira.

Ez da berria Leitzan pediatria zerbitzua bermatzeko eskaera. Zerbitzuak gorabehera handiak izan ditu azken urteotan eta horri aterabidea bilatzeko, hainbat mobilizazio egin izan dituzte; jendetsuenak 2018an. Aztera, indarrak batu eta ka-

APIRILAREN 27AN ARGAZKIA ATERAKO DUTE LEITZAKO PLAZAN

lera ateratzeko unea ailegatu dela diote *Leitzaldean pediatria orain* ekimenen bildu diren gurasoek: «gure haurrak dagozkien azterketak egin gabe gelditzen ari dira eta gaixorik badaude, ez diete behar bezalako jarraipenik egiten».

Iruñeko osasun zentroran egin beharreko joan-etorria ere ezin aipatu gabe utzi: «Osasunbidetik irtenbidetzat jo dutenak, arazoa kronifikatzea baino ez dakar. Osasun arreta jaso ahal izateko, 50 kilometroko joan-etorria egiteko eskatzen digute. Arriskua, denbora, distantzia eta gastua. Lau hitz horiek definitzen dute batzuek irtenbidetzat jo dutena». Gainera, Iruñean larrialdi zerbitzuetara bideratu eta, aldiro, pediatria desberdin batek ardatzen dituztela nabarmendu dute, horrek dituen gabeziekin: «haurra ikusi, dagokion botikaren errezeta egin eta etxera bidaltzen dute bueltan. Hor bukatzen da osasun arreta. Ez dago gaixotasunaren eboluzioa zein izan den jakiteko modurik, pediatria berak ez diolako jarraipenik egiten».

Egoera salatzeko, hainbat mobilizazio eginen dituzte apirillean. Lehenbizikoak apirilaren 12an egitekoak zituzten Leitzan, Areson eta Goizuetan. Apirilaren 15ean Iruñera joateko deia eginga zuten eta apirilaren 27an, argazki erraldoia aterako dute 11:30ean Leitzako plazan. Herritar guztiei egin diete mobilizazioetan parte hartzeko deia.

Mendialdeko Azoka Ibiltaria apirilaren 21ean hasiko da martxan

TTIPI-TTAPA

Cederna Garalur elkarteak aurtengo Mendialdeko Azoka ibiltariaren egutegia aurkeztu du. Apirilaren 21ean Arriben emanen diete hasiera ekimenari eta aurtengo berrikuntza izanen da, azokarekin batera, ekitaldi berezi bat antolatuko dute herri bakoitzean. Arriben artzaintzarekin lotutakoa izanen da prestatu duten proposamena. Maiatzaren 12an Gorritin izanen da azoka eta bertan ardi latxaren enkante nazionala egingen dute. Ekainaren 8an, Goizuetan egingen dute azoka eta talo egunarekin lotuko dute. Ekainaren 30ean Latasan izanen da eta Xenden eguna antolatzeko asmoa dute. Irailaren 1ean Lekunberrin antolatuko dute azoka eta nekazarien egunarekin bat egingen du. Irailaren 8an, Leitzako talo eguna baliatuko dute mendialdeko azoka egiteko. Urriaren 13an, aresoarren txanda izanen da eta herriko baserri buruzko erakusketa antolatzeko dute. Azaroaren 3an, Jauntsaratsen egingen dute azoka eta gaztain eguna prestatzeko dute. Urteko azken azoka, abenduarean 1ean, izanen da Betelun eta herriko helduei omenaldia egiteko baliatuko dute eguna.

Leitzako Udalak bat egin du eskaerarekin

Prentsa ohar bidez jakinarazi du bat egin dela herritarrek eta bereziki haurrak dituzten familiek adierazten duten «ezinonarekin eta kezkararekin». Azaldu dute Osasun Etxean pediatria zerbitzurik gabe gelditu ziren unean bertan Lei-

tzako Udalak mozio bat onartu zuela eta, berehala, Nafarroako Gobernuaren atea jo eta Nafarroako Osasun Zerbitzuko arduradunekin harremanetan jarri zirela irtenbide egokia eskatzeko. Bi eskaera egiten zizkieten Osasun Depar-

tamentuari: «beharrezko bitarteko guztiak jartzea pediatria zerbitzua lehenbailehen martxan egon dadin eta egoera behin betiko konpon dezala eskatzea, pediatria lanpostua eta zerbitzua egonkortuz eta bermatuz». Eskaera hori hartuta, udala Osasun Departamentuko arduradunekin etengabeko harremanetan aritu da hilabete hauetan. Harreman

horietan herrian dagoen keza transmititu dela azpimarratu dute: «Egoera konpontzeko egon litezkeen aukera guztiak aztertu eta landu ditzaten indar egin da, udalak berak egin dezakeen neurri guztian». Ardura, eta konponbidea, ordea, Nafarroako Gobernuaren esku dago eta «eskaerari emanen dion erantzunaren zain gaude».



Partida txikiak handitzea hobetsi dute. ARTXIBOA

533.461 euroko aurrekontua onartu du udalak

Jarduneko udal taldeak onartu du aurrekontua, kudeaketa batzordea gobernuaren erantzunaren esperoan dagoelako

ENERITZ IRAOLA

Gastuen eta sarreren arteko dantzan ibili ondotik, udalak itxi ditu 2024ko aurrekontuak. Aurreko urteetan baino zertxobait beranduago onartu dituzte aurtengoan, udalaren egoera berezia tarteko. Asmoa, kudeaketa batzordea martxan izan eta aurrekontuak beraiek onartzea zen, baina Nafarroako Gobernuaren erantzuna nahi baino gehiago luzatzen ari dela ikusita, azkenean, jarduneko udal taldeak bere gain hartu behar izan du ardura: «herriak martxan segitzen duelako».

Ttikian eragiteko asmoa

533.461, 76 euroko aurrekontua onartu dute. Eskura duten diru kantitatea handia ez denez, proiektu handietan sartu gabe, partida txiki batzuk handitzea erabaki dute. Horri esker, hainbat hobekuntza egitea aurrekusten dute: «ur sarean konponketak egingo ditugu, herri lanetatara makineria berriko dugu, bulegoko materiala erosiko dugu eta herrian antolatzen diren ekitaldietan erabiltzeko aulkiak erosiko ditugu». Eskoletzeko liburutegia hornitzeko diru par-



Eskoletxea hornituko dute.

tida bat ere gorde dute, beste bat kultur ekitaldiak bultzatzeko eta parkean hobekuntzak egiten saiatuko dira. Momentuz, aurrekusten den inbertsiorik handiena, mendiko bi pisten konponketarako erabiliko dutena izango da. Lan horiek egiteko abeltzaintza azpiegiturarako dirulaguntza jasoko dute.

Udalaren egoera ekonomikoa azken urteetako onena dela ere azaldu dute: «industrialdea berritzeko udalak eskatutako maila ordaintzeaz bukatu delako». Proiektu berriak aurrera eramanez, ahal izateko badakite, «erri ibili» beharko dutela: «aukerak ongi aztertu eta herrian baliaitu ditzagun dirulaguntza deialdietara aurkeztu beharko dugu».



UTZITAKO ARGAZKIA

Auzolanean garbitu dute mendia

Apirilaren 6an auzolanerako deia egin zuen udalak. PAC onuradun direnek derrigorrez egin beharreko auzolana izan zen. Olleneko borda inguruan egin zuten hitzordua goizean, 09:30ean, eta denen artean garbaldi ederra eman zioten sasiak janda zegoen inguruari.

Hondakin organikoa bereizteko hiru edukiontzi marroi jarriko dituzte herrian

ENERITZ IRAOLA

Auzo konposta gune batzuk behar bezala funtzionatzen ez zutela ikusita, edukiontzi marroiak jartzea erabaki du Mendialdea Mankomunitateak. Hiru gunetan jarriko dituzte edukiontziak: Patxi-kune atarian, plaza zaharrean eta Ollene parean. Apirileko azkeneko astean jarriko dute martxan hondakin organikoa bereizteko sistema berria. Aurretik, Mendialdea Mankomunitateko teknikaria udaletxera etorriko da herritarrei beharrezko azalpenak eman eta



Organikoa bereizteko bi aukerak.

organikoa bereizteko kuboak eta poltsa konpostagarriak banatzera. Arraio eta Izartegi aldameneko auzo konposta guneak bere horretan mantenduko dituztela azaldu dute.

Festa batzordeko bilera deitu dute maiatzaren 2an

ENERITZ IRAOLA

Ttiriki-ttarraka, herriko festak antolatzeko lanetan ari dira herritarrak. Festa batzordeko hurrengo bilera maiatzaren 2an egingo dute Eskoletxean, 17:00etan. Bertan, abuztuaren 18an egingo den herri bazkariaren inguruko xehetasunak


lotuko dituzte eta otorduaz nor arduratuko den erabakiko dute. Festetako lanen banaketa ere zehazten hasiko dira. Pasa den urtean bezalaxe, ardurak banatu eta lan taldeak osatzea da asmoa. Herritar guztiei egin diete bertaratzeko deia.

Erritmo ederrean doaz Goizutraileko izen-emateak

Maiatzaren 18an egingen dute probaren bederatzigarren edizioa eta ibilbide luzea aldatzea erabaki dute antolatzaileek

TTIPI-TTAPA

Mendian gora eta behera lasterka gozatzten dutenak ez dira gutxi. Horren erakusle da Goizutraileko lasterketako izen-emateak daramaten erritmoa. Apiril hasierarako 96 parte hartzailek izena emana zuten. Zehazki, 26 lasterkarik eman dute izena ibilbide luzean, 70 lasterkarik ibilbide motzean eta horietako hamaseik bikoteka egingen dute ibilbidea, zortzi bikote osatuta. Izen-ematea zabalik dago eta alde zurretik herrikrosa.eus web orrian edo egunean bertan egiteko aukera izanen da. Herriarrek bost euroko deskontua izanen dute.



lazko lasterketako irudia. ARTXIBOA

Berrikuntza ibilbide luzean

Lasterketan parte hartzeko bi ibilbide jarri dituzte aukeran: ibilbide motza eta luzea. Ibilbide motzak 10,6 kilometro izanen ditu eta bakarka edo bikoteka parte hartzeko aukera eman dute. Bikoteak osatzerakoan parte hartzaileetako batek derrigorrez emakumezkoa izan beharko du. Ibilbide motza urterokoa izanen da.

nen da, baina ibilbide luzea aldatu egin dute. Artikutzan barrena egin beharko dute lasterka eta 25,6 kilometroko ibilbidea osatu. Orain arte, ibilbide laburra egin eta herrira bueltatuta, Mandoegirako bidea hartzen zuten bigarren itzuli bat egiteko. Aurten, Enekolorritik aurrera segiko dute, Arainburuko tontorra zapaldu, Beltzuntzara joan eta herrigunean bukatuko dute itzulia.

Eskolako frontoian argiztapena aldatzen ari dira

Eskolako frontoian argiztapena aldatzen hasi dira, aurretik zeudenak zaharkituta zeudelako. Led argiztapen sistema jarriko dute eta kontsumoan eragin zuzena izanen du. Aldaketak goizez egiten ari dira, baina arratsaldetan frontoia erabilgarri egonen da.

Garagardo festarako txartelak salgai daude oraindik

Apirilaren 27an egingen dute Garagardo Festaren laugarren edizioa. Umore Ona elkartearen 21:30ean hasiko da festa. Tokia mugatua da, baina txartel batzuk oraindik eskuragarri daude Motzanean eta Amaian. Erosteke azken eguna apirilaren 21a izanen da.



ESTEBAN AROZENA

Herriko Athletic zaleak gustura

Argazkiko hauek eta beste hainbat herritar elkartu ziren apirilaren 6an Athletic eta Mallorcaren arteko kopako finala ikusi eta ospatzeko asmoz. Etxafuego eta trakarik ez zen falta izan partida bukaeran. Eguna zabaldu arte iraun omen zuten ospakizunak.



FORTUNA ELKARTEA

Martxo borobila Lujanbiorentzat

Herriko lasterkaria ezti-mamitan dagoela esan daiteke. Aurreko aldizkarian eman genuen Arriarango lasterketan lortu zuten garaipenaren berri. Geroztik, Talaia bidea eta Trail a la Virgen del Yugo probak ere irabazi ditu. Ez da nolana hikoia martxoan lortu duen marka. Ea apirilak zer dakarren!



KATEA BIKE

Bizikleten salmenta eta konponketa.

- 📍 Kanttonberri, 1 | BERA
- ☎️ T. 948 631 218
- ✉️ joxemi@kateabike.com
- 🌐 www.kateabike.com










Giro ederra Baztango udaberriko ferian

Eguraldia lagun, jendetza bildu zen apirilaren 5ean Elizondon eta ahari, behor eta behiak izan ziren ikusgai

TTIPI-TTAPA

Aziendaz gain, Baztango artisauek eta ekoizleek azoka egin zuten Merkatuko plazan, eta txistulariek girotu zuten goiza. Baztango Dantzari Ttikiek ere emanaldi ederra egin zuten. Gainera, urteko ardi gasnaren mozketa ekitaldia izan zen eta Amaia Iturriria arduratu zen mozteaz. Ondotik pintxoak banatu zituzten.

XXIV. Ahari Lehiaketa

Ekitaldi nagusia Baztango XXIV. Ahari Lehiaketa izan zen. Zortzi artzainek 31 buru aurkeztu zituzten denera eta Pello Etxegarai, Joseba Zelaieta eta Jose Maria Rekarte izan ziren epaileak. 12 sari banatu zituzten, sei ahari burugorrietan eta bertze sei burubeltzetan.

Burugorriek dagokionez, sari nagusiak Arraiozko Sagrario

Urrozentzat izan ziren: antxu aharien sailean lehen eta hirugarren sariak lortu zituen, baita aharietan lehen saria ere. Bertze saritua Julen Elizetxe amaiurtarra izan zen, antxu aharietan bigarren saria lortu zuen eta aharietan bigarren eta hirugarren sariak.

Burubeltzetan, antxu aharien sailean Beartzungo Manuel Bertizek lortu zituen lehenbizi eta bigarren sariak eta Almandozko Begoña Etxalarrek hirugarrena. Ahariei dagokionez, Miguel Angel Maritorea iruritarra izan zen lehenbizi, Manuel Bertiz bigarrena eta Oronoz-Mugairiko Jorge Oteiza hirugarrena.

Hirugarren saria hartu zutenek 40 euro lortu zituzten, bigarren postukoek 60 euro eta irabazleek 90 euro eta mila.



Haur, gazte zein heldu, jendetza bildu zen Merkatuko plazan. ONDIKOL

Aprilaren 21ean eginen dute aurten Berroetako Mendi Lasterketa

TTIPI-TTAPA

Berroetako Mendi Elkartek VII. Mendi Maratoi Erdia antolatu du aurten eta apirilaren 21ean izanen da, igandean.

Lasterketak bi ibilbide izanen ditu, luzea eta motza. Luzea Saioaraino doa, eta 21 kilometroko luzera eta 1.275 metroko desnibela ditu. Laburrak, berriz, 15 kilometro eta 737 metroko desnibela ditu. Irteera eta helmuga herrian egonen dira, 08:00etan banatuko dituzte dortsalak eta 09:00etan hasiko da lasterketa.



laz euripean aritu ziren lasterka. M. IANTZI

Parte hartu nahi dutenek zabalik dute izen ematea herrikrosa.eus webgunean. Gainera, proba Nafarroako txapelketarako puntuagarria izanen da.



UTZITAKOA

Anuntxi Duhalde errazuarrak 105 urte

Martxoaren 25ean 105 urte bete zituen Errazuko Anunciacion Duhalde Erramuzpek. 1919an Motzaineko bordan sortua, Domingo Etxandi artisauren alarguna da Anuntxi. Elizondoko zaharren egoitzan dago gaur egun eta familiarekin batera ospatu zuen urtebetetzea. Zorionak!

Uzketa 2 harrobi proiektuaren kontrako alegazioak

Almandozko Herriak proiektuaren zundaketen kontrako alegazioak aurkeztu ditu bertze behin, 97 herritar eta kaltetuk sinatuak

TTIPI-TTAPA ALMANDOZ

Canteras Acha SA enpresak Almandozko Uzketa parajearen harrobi bat egiteko zundaketen baimena eskatu dio berriz ere Nafarroako Gobernuari. Uzketa 2 proiektua enpresak herrian duen bigarren harrobia izanen litzateke, eta bi harrobiren artean utziko luke Almandoz.

Alegazioetan adierazi duteenez, «2021eko abenduaren 10ean Almandozen egindako batzarrean herritarrek aho batez egin zioten uko proiektuari. Horrez gain, 2013ko urriaren leian Baztango Batzar Orokorrek zundaketa eskaera atzera bota zuen. 2021eko proiektua 2013koa baino handiagokoa da, beraz, ezetza emateko arrazoiak ez dira ttititu; izatekotan, haunditu egin dira».

Garraio astuna herrian

Uzketara joateko bideak «herrigunea zeharkatzen duela» salatu dute, eta horrek «garraio astunaren trafikoa biderkatuko luke, herritarrendako jasenezina dena». Gainera, «2023an

Nafarroako Gobernuak Larraungo meategiaren proiektua ezeztatu zuen, kamioien trafikoak Aldatzen inpaktu negatiboa izanen lukeela azalduz. Almandoz eta Aldatz antzeko herriak dira, tipologia, herrigunea eta biztanleriari dagokionez».

Horrez gain, «Ingurumen Departamentuak, proiektuaren alde egin duen txostenean, ez du aipatu ere trafiko guztia herrigunetik pasatuko litzatekeela».

Ur depositua eta iturburuak

Proiektuaren eremuak «ez du errespetatzen inguruko hainbat elementurekiko distantzia, meategien legeak ezartzen duena. Herriari zerbitzua ematen dion ur edangarriaren depositua proiektuak eragindako lursail batean dago, eta depositura ura eramaten duten hodiak zundaketen eremua zeharkatzen dute zuzenean. Proiektuan ez da aipamenik egiten horrek herriko uran izanen lukeen eraginaz».

Proiektuaren eremuak «hainbat akuifero hartzen ditu, eta



Almandozko harrobia eta herria, Uzketa parajea gibelean duela. ARTXIBOTIK

horiek hornitutako iturburuak azidari ura emateko erabiltzen dira. Gainera, zundaketek 60 metrotaraino zulatuko lukete lurrazpia, eta horrek lurzoruan eragina izanen luke, uraren ibilbidea aldatzeko arriskuarekin». Eremuan dauden bertze hainbat iturburu eta aska ere kaltetuak izanen lirateke.

Natura 2000 sarea

Proiektua Belateko Natura 2000 sarea babestutako eremuan egin nahi dute, eta oroitari dute «Nafarroako Auzitegi Nagusiak Zilbetiko meategi proiektua baliogabetu zuela eremu babestua izateagatik». Eremu hori babestua eta desagertzeko arriskuan

dauden hainbat landare eta animalien habitat naturala da, eta 30 espezie inguru zerrendatu dituzte alegazioan, tartean okil gibelnabarra, antzandobi arrunta, Alpeetako kakalardo adarluzea, sai zuria eta miru gorria.

Kalteak ekonomian

Bigarren harrobi batek «Almandoz bi harrobiz inguratuta utziko luke, eta bistakoak diren arazoak sortuko lituzke. Nekazaritza eta turismoari lotutako jarduera ekonomikoak garatzeko eta mantentzeko aukerak guztiz baliogabetuko lituzke. Meatzaritza zuzenean lehiatzen du abeltzaintzarekin, eta eragina du herriaren estetikari eta ingurumenean, turismoa kaltetuz».

Proiektuaren ondorio sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak kontuan hartuta, Almandozko Herriak zundaketen baimena bertan behera uzteko eskatu dio Nafarroako Gobernuari.

HERRIRA DOAN URAREN DEPOSITUA KALTETUKO ZUELA SALATU DUTE

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Karrika, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Eltzeta, 20
31770 LESAKA
T. 948638077

«Geroz eta ikasle gehiago formatzen dira Lanbide Heziketan»

ÍÑIGO GORROTXATEGI PASCAL ELIZONDO LANBIDE ESKOLAKO ZUZENDARIA

Maila guzietako zortzi ziklo eskaintzen ditu gaur egun Elizondo Lanbide Eskolak, eta heldu den ikasturtean Goi Mailako bi ziklo berri sartuko dituzte ikastetxearen eskaintza osatzeko

R. OSKARIZ ELIZONDO

Apirilaren 29an abiatuko da Elizondo Lanbide Eskolan izena emateko epea, eta ikastetxearen ziklo eskaintzaz eta heldu den ikasturtean indarrean sartuko den lege berriaz aritu da Íñigo Gorrotxategi zuzendaria.

Zenbat ikasle dituzue aurten?

Guztira 215 ikasle ditugu: 41 Oinarrizko Mailan, 136 Erdi Mailan, 33 Goi Mailan eta 5 Lanbide Heziketa Berezian. Azken urteetan ikasle kopuruak goiti egin du nabarmen; duela bortsu urte, adibidez, 112 ikasle genituen. Horrek erakusten du ziklo hauek ikasteko dagoen joera, eta gure eskualdean portzentajea apalagoa bada ere, goiti egiten ari da. Enpresek geroz eta gehiago eskatzen dituzte Lanbide Heziketan formatutako ikasleak eta eskolatik ezin hornitu gabiltza. Iazko ikasturtean akitu zuten ikasleetatik, abenduan bakarria zegoen langabezia.

Zein ziklo eskaintzen dituzue?

Gaur egun zortzi ziklo ditugu: **Lanbide Heziketa Berezian** Ostatu eta garbiketa arloko laguntzailea; **Oinarrizko Mailan** Bulegoko informatika eta Elementu metalikoen fabrikazioa; **Erdi Mailan** Erizaintzako zainketa lagungarriak, Administrazio kudeaketa, Mekanizazioa eta Natura ingurune eta aisialdiko gidaria; eta **Goi Mailan** Administrazioa eta finantzak.



«Eskolako ateak herritar guzietatik zabalik daudela» dio Gorrotxategik. UTZITAKOIA

Hurrengo ikasturtean bi ziklo berri sartuko dituzue, ezta?

Bai, Goi Mailako bi ziklo: Haur hezkuntza eta Zuzendaritzari laguntza.

Zergatik bi horiek?

Orain arte desorekatua izan dugu mailen arteko eskaintza, baina aurten Goi Mailako ziklo gehiago eskaintzeko aukera ireki zaigu. Haur hezkuntzako zikloari dagokionez, eskualdetik kanpo ikastera doazen ikasle kopururik haundiena du, eta Erdi Mailako Erizaintzako ikasleek gehien aukeratzeko duten zikloa da haien ikasketak osatzeko. Zuzendaritza laguntza zikloari dagokionez, ez dugu ziklo osoa eskainiko, modulu jakin batzuk baizik. Helburu nagusia da

Administrazioa eta finantzak ikasi eta unibertsitatera joan gabe ikasten segitu nahi dutenei eskaintza ematea. Beraz, nahi duenak hiru urtetan bi Goi Mailako ziklo horiek osatu ahal izango ditu. Dena den, Administrazioa eta finantzak ikasi ez dutenek ere eskaintza modularrean matrikulatzeko aukera izanen dute.

Herrigintzako proiektuak ere egiten dituzue, ez?

Ikaskuntza Zerbitzu Solidarioa deitzen den metodologiaren barnean hainbat proiektu egin ditugu, azken hamarkada honetan bereziki. Proiektu horiek, eskualdeari eskaintzen diogun zerbitzu bat izateaz gain, aukera paregabea dira gainontzeko instituzio eta elkarteekin

elkarlanean aritzeko eta eskualdeko sarea indartzeko. Izan ere, Elizondo Lanbide Eskolak betitik izan du eskualdeari eta herrigintzari zerbitzua emateko konpromisoa eta ahal dugun heinean horretan segitzen dugu.

Inportantea da klasean ikasitakoa kasu errealek aplikatzea?

Zalantzarik gabe, proiektu errealek hauek funtzio aunitz betetzen dituzte. Batetik ikasle eta irakasleak errealtatera hurbiltzeko aukera ematen dute, eta bertetik eskola komunitatea indartzen dute, eskolako lanari garrantzia eman eta ezagutarazten dute, baloreak transmititzeko eta herritarrekin kontaktua izateko aukera ematen dute... Horregatik, eskolaren zutabe garrantzitsu bat dira.

Heldu den ikasturtean Lanbide Heziketako lege berria sartuko da indarrean. Nola aldatuko da?

Lege berria lehenbiziko maila guzietan sartuko da indarrean eta aldaketa aunitz ekarriko ditu, bertzeen artean modulu berriak (ingelesa tarteko), eta Duala ere. Lehenbiziko mailatik hasita, ziklo guztietan Dualan ikasiko dute, hau da, eskola eta enpresako praktikak tartekatzen. Erizaintzako zikloan hori ez da aplikatuko, LOGSEko araudian segituko baitu.

Nola eraginen du horrek?

Ikasleak zenbait egunez klasea eta bertzeetan enpresako praktiketara joan dira, beraz, eskolan ikasitakoa enpresan kontrastatu eta praktikan jartzen ahal izango dute, eta enpresan ikasitakoa eskolarekin osatu. Ikastetxearendako ere aldaketa handia da antolaketan eta metodologian, eta dagoeneko buru-belarri ari gara prestatzen.

Zerbait gehitu nahi duzu?

Eskerrak eman gudan konfiantza jartzen dugun ikasle eta familiei, eta lankidetzan ari diren instituzio eta eragileei. Eta dei egiten diegu enpresa eta erakundeei ikasleak praktiketan hartzeko.

Elizondo lanbide eskola IIP

Izen-ematea:
Apirilaren 29tik
maiatzaren 10era

Ate irekiak:
Apirilak 17
16:00etan

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritzari laguntza (Modularra)
- Haur Hezkuntza

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazio Kudeaketa
- Erizaintzako zaintza lagungarria
- Natura inguruneke eta aisialdirako gidaria
- Mekanizazioa

OINARRIZKO LH

- Bulego Informatika
- Elementu metalikoen Fabrikazioa

LH BEREZIA

- Ostatu/garbiketa laguntzailea



**“Ikasi eta lan egin
eskualdean”**

Tel 848 431632



13.220.030 euroko aurrekontu orokorra onartu du udalak

EH Bildu eta Zurekin Baztanen aldeko zortzi boto eta UPNren, Independenteen eta Geroa Baien kontrako lau boto izan ditu

TTIPI-TTAPA

Aurrekontu orokorrak Baztango Udalaren, Baztan Ikastola eta Zahar etxea erakunde autonomoen eta Lixuraren aurrekontuak biltzen ditu. Horrela, Baztango Udalarena 12.326.067 eurokoa da, Baztan Ikastolarena 887.800 eurokoa, zahar etxearena 6.163 eurokoa eta Lixurarena 747.119,66 eurokoa. Horiek kontsolidatuta, udaletxearen aurrekontu orokorra finkatzen da, 13.220.030 eurokoa.

Horrez gain, Giltxaurdi enpresa publikoaren aurrekontua 517.558,28 eurokoa da, baina merkataritza sozietatea denez, ez da kontsolidatutako aurrekontu orokorraren barnean sartzen. Aurten Zaintza Lanak Baztan enpresa publikoaren aurrekontua ere gehitu behar da, 3.553.872 eurokoa, aurrekontu orokorrean kontsolidatzen ez dena.

Aurrekontuetako sailei dagokienez, Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuen saila da handiena, 3.855.563 euroekin. Aurtengo aurrekontuetan nabarmentzeko atala, bertzalde, inbertsioena da; aurreikusitako kopurua 3.301.305 eurokoa da, asfalduko urteetan izandako kopururik altuena.

Aurten aurreikusitako inbertsio batzuk hauek izanen dira: Almandozko saneamendua, 990.000 euro; adimen desgaitasuna duten herritarrendako eskualdeko eguneko zentroa egiteko Zunda etxearen obrak, 596.100 euro; Erratzuko parkinga, 213.000 euro; Lezetako bidearen eta Zigako gaineko bideen hormigoizta-

tzea, 181.300 euro; mendi lanetarako 120.000 euro; nekazaritza azpiegiturarako 78.600 euro; Dia gibeletako plazaren moldaketa, 75.000 euro; Elizondoko Foruen plazako eraikinaren egokitzapena, 70.000 euro; Xorroxingo ibilbidearen egokitzapena, 52.200 euro; kirol instalazioetan egin beharreko obretarako 50.000 euro; Udaleko igogailua aldatzeko, 40.000 euro; herri guztietarako desfibriladoreak erosteko, 22.500 euro.

Horri iazko aurrekontuetatik heldu diren hainbat partidak gehitu behar zaizkie, tartean zahar etxea berritzeko lanen lehen fasearena. Lanak berriki hasi dira eta 2025eko urriaren 31 baino lehen akituko dira. Lehen fasearen exekuzioak 5.787.295 euroko inbertsioa izanen du. Bertze bat Irurritako Zaldubia industrialdean exekutatzen ari den garbigunea da, 767.900 euroko inbertsioa izanen duena.

Udalaren zorpetze maila % 40,5ekoa da, legeak finkatzen duen % 110eko mugatik urrun. Aipagarria da azken urteetan nabarmen egin duela beheiti udalaren zorrak. Duela 13 urte Baztango Udalaren zorra 13 milioi eurotik goitiko zen eta 2024ko urtarrilaren 1ean 3.853.331,97 eurokoa da, zahar etxeko lanak egiteko hartutako 2 milioi euroko mailegua barne.

Aurrekontuari hasierako onospena emanda, aldizkari ofizialean argitaratu eta hamabortz egunez jendearen aitzinean egonen da, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Ondotik behin betiko onartuko da.



Banaka edo binaka parte hartzeko aukera izanen da lasterketan. MIKEL HUALDE

Maiatzaren 1ean egingen dute Irurritako IV. Mendi Duatloia

TTIPI-TTAPA

Irurritako gazteek IV. Mendi Duatloia antolatu dute maiatzaren 1ean. 10:00etan abiatuko da herriko plazatik eta bi ibilbide izanen ditu; lasterka 8,5 km eta 290 metroko desnibelarekin eta bizikletan 19,75 km eta 640 metroko desnibelarekin.

Izena emateko epea apirilaren 29ra arte dago zabalik kirolprobak.com webgunean, eta bi modutan parte hartzen ahalko da: banaka (20 eurotan) edo erreleboka (30 eurotan).

Horrez gain, apirilaren 27an Ibon Oregiren *Kirolaz haratago* solasaldia antolatu dute Gizarte Bilgunean 19:00etan.



Imanol Oskoz joan den urteko igoeran. PELI AVM

VI. Izpegiko Igoera egingen dute maiatzaren 4an Erratzun

TTIPI-TTAPA

DRS Razing taldeak eta Nafarroako Automobilismo Federazioak Izpegiko Igoera antolatu dute aurten ere, maiatzaren 4an Erratzun.

Aurtengoa seigarren edizioa izanen da eta joan den urtekoaren egitarau bera izanen du: 13:00etan hetsiko dute

errepidea eta 14:30ean abiatuko da proba. Gidari bakoi-tzaren lehenbiziko bi txandak entrenatzeko izanen dira, eta hurrengo biak ofizialak izanen dira. 20:00etan sari banaketa egingen dute Erratzuko plazan.

Parte hartzeko izen ematea zabalik dago fenauto.com webgunean.

Erdiz Bizirik eguna apirilaren 20an Elizondon

Magnari Kaka zozketa, tailerrak, bazkaria, kontzertuak... egun guziko egitaraua prestatu dute

TTIPI-TTAPA

Erdizko proiektuaren kontra Iruñean egindako manifestazio jendetsuaren urteurrenean, Erdiz Bizirik plataformak egitarau berezia prestatu du Elizondon apirilaren 20an egun osoarako.

Goizetik gauera

11:00etan Magnari Kaka zozketa egingen dute Merkatuko zelaian, eta aldi berean hurrendako tailerrak egingen dituzte eta pintxoak erosteko aukera izanen da. 14:00etan bazkaria egingen dute Merka-

tuko plazan eta bi menu izanen dira hautatzeko: haragiarekin (18 eurotan) eta begetarianoa (14 eurotan). 17:30ean poteoa izanen da Elektrotxorongorekin eta 20:30ean Bizphiruru Pelau taldearen kontzertua. Eguna borobiltzeko, DJ emaldia izanen da 23:00etatik aitzinera. Afaltzeko bokatak ere salduko dituzte.

Zozketako txartelak Baztango hainbat ostatu eta komertziotan daude salgai 2,5 eurotan. Gainera, Iruñean, Beran eta Legasan ere eskuratzen ahal dira.

Bizikletan ibiltzeko ikastaroa Elizondon apirilaren 23an, 24an eta 25ean

TTIPI-TTAPA

Baztango Talde Ekosozialak bizikletan ibiltzen ikasteko saioak antolatu ditu apirilako azken astean Elizondoko Luzeko plazan. Mugikortasun iraunkorra bultzatzea du helburu ikastaroak eta modu mailakatuan erakutsiko dute:

bizikletara nola igo, abiaraztea, oreka dinamika, balaztatzea, martxak aldatzea... eta azken saioan herrigunetik ibiliko dira.

Apirilaren 19ra arte ematen ahalko da izena ikastaroan, urririk, 643 60 55 25 telefonora deituta.



60 lagunek parte hartu zuten txapelketan Arizkuneneko sabaian. ONDIKOL

Baztan Open speedcubing txapelketak jendetza bildu du Elizondon

TTIPI-TTAPA

Rubiken kuboak gustuko dutenek hitzordu berezia izan zuten Aste Santuan Elizondon, IV. Baztan Open speedcubing txapelketa egin baitzuten martxoaren 28tik 30era Arizkunenean.

Hainbat herrialdeetako jendea hurbildu zen lehiaketara, tartean Ameriketako Estatu Batuetatik, Alemaniatik eta Herbehereetatik, eta hamar kategoriatan lehiatu ziren 60 partaideak. Kategoria bakoitzean bi txanda izan zituen partaide bakoitzak eta ondotik finala egin zuten.

Hauek izan ziren irabazleak: **Patrick Ponce** 5x5x5 eta esku bakarreko 3x3x3 kategorietan, **Jaime Calzado Gomez** Skewb kategorian, **Kevin Gerhardt** Megaminx kategorian, **Carlos Medez Garcia-Barroso** Square-1 kategorian, **Jordi Lleixa**



Saritutako hiru partaide. ONDIKOL

Lopez 3x3x3 itsuan kategorian, **Aratz Larruzea** Pyraminx kategorian eta **Antonie Paterekis** 2x2x2 kategorian.

Horrez gain, Espainiako hiru errekor lortu zituzten: Eder Olivencia Gonzalezek 5x5x5 kategorian batez berteko 48.08 denborarekin, Raul Martinez Redondok Megaminxen batez berteko 37.28 denborarekin eta Carlos Mendez Garcia-Barrosok Square-1en batez berteko 7.68 denborarekin.

BAZKARI BEREZI BAT? ONGI ETORRI GURE ETXERA

ventabirik.com

SUTONDO

PARRILLA

Euskal Herriko gastronomiaren zaporeak parrilla usain gozoarekin.

IBARDIN - BERA
Tel. : +34 948 631 111



Joxepa Zubiri taloa eskuetan duela. ONDIKOL

Zubi Puntan taloak egiteari utzi dio Joxepa Zubirik 30 urteren ondotik

TTIPI-TTAPA

Duela 30 urte baino gehiago hasi zen Joxepa Zubiri bozatarra talogile lanetan Zubi Puntan ostatuan. Geroztik, bere taloak erreferentziatzko afari bihurtu dira Erratzurat joan diren bisitariendako, eta noski, erratzuarrendako ere.

Ibilbide luzearen ondotik, erretiroa hartu du Joxepak eta apirilaren 1ean izan zuen azken lan eguna ostatuan. Baina dena ez zen lana izan, omenaldi polit eta hunkigarria egin baitzioten herrikoek, urte guzietako lana eskertzeko eta taloei behar bezalako agurra emateko.

'Ez erran inori' liburu aurkezpena Erratzun

Literatura Geraldia ekimenaren barnean liburu aurkezpenak antolatu dituzte Nafarroan, eta Baztanen ere izanen da zer aditu. Ortziralean, apirilaren 19an, Maddi Ane Txoperenak *Ez erran inori* liburu aurkeztuko du Erratzuko Lixutegian 19:00etan.

Euskararen egungo egoera solasgai Elizondon

Udalak eta UEMAk *Euskararen egoera gaur. Zer diote datuek?* solasaldia antolatu dute maiatzaren 15ean liburutegian, 18:30ean. Iñaki Lurrebaso soziologoak gidatuko du saioa eta euskararen egoera ulertzeko diagnostiko berri baterako gakoak emanen ditu.

Berdintasun formakuntzak bestetarako

Ostalariendako formakuntza saioak eta brigada moreak sortzeko prestakuntzak egingen dituzte Elizondon

TTIPI-TTAPA

Baztango Gizarte eta Berdintasun Zerbitzuek formakuntza saioak prestatu dituzte, tokiko mugimendu feministarekin elkarlanean, fokua ostalaritzan eta besta komisioen gainean paratuz.

Apirilaren 22an 'Moztu dezagun indarkeria matxista' ordubeteko formakuntza egingen dute ostalariendako Arizkunenean. Lau saio izanen dira: 10:00etan eta 17:30ean euskaraz eta 11:30ean eta 16:00etan gaztelaniaz. Indarkeria matxista eta sexuala zer den, negozioan zerbait gertatuz gero nola artatu eta zein baliabide badiren landuko dute formakuntzan, eta saio bat aukeratu eta izena ematera animatu dituzte ostalariak.

Brigada Morea antolatu nahi duten komisio eta herrita-

rrendako, berriz, maiatzaren 4an eta 18an izanen dira saioak, 10:30etik 12:30era. Euskaraz izanen dira biak. Azaldu dutenez, «brigadak boluntarioz osatuta daude eta bestetan eraso sexistak edota sexualak pairatu ditzaketan biktimei babesa eta arreta eskaintzeko zeregina izanen dute, karrikan bertan. Edozein laguntza behar izanez gero, hurbilen dauden pertsonak izanen dira».

Gaian aditua den Miren Orozko gidatuko ditu prestakuntza saioak eta parte hartzaileei funtsezko ezagutzak emanen dizkie. Saio guztietan izena eman beharko da eta horretarako eskuragarri daude berdintasuna@baztan.eus eta gizartezerbitzua@baztan.eus helbideak, eta 613 003 634 eta 689 035 078 telefonoak.

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

- LAPIDAK
- PANTEOIAK
- HILERRIAK
- ZAHARBERRITZEAK
- GARBIKETAK
- HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444

marmolessoule@gmail.com |

FAGOA

Kirola, kultura eta gastronomia

☎ 625 925 371

🌐 fagoa.eus

✉ info@fagoa.eus

📍 31711 Urdazubi · Urdax

Partekatu esperientzia paregabea

BIZIKLETA ETA PATINETE ELEKTRIKOEN ALOKAIURUA

PATINETE JEITSIERAK

MAILA GUZTIETARAKO IBILBIDEAK

AUTONOMIAN EDO GURE GIDARI BATEK LAGUNDUTA



Doneztebeko Bozka Juniors taldea izan zen txapelkun. ONDIKOL



Ultzamako Galacteos de Goshuak lortu zuen bigarren postua. ONDDO CUP

Arrakastatsua izan da Onddo Cup txapelketa solidarioa

Doneztebeko Bozka Juniors taldea izan da garaile eta 3.000 euro bildu dituzte Saray eta Biziraun elkarreendako

TTIPI-TTAPA

Onddo Cup areto futbol txapelketa solidarioa antolatu zuten Aste Santuan Elizondon; martxoaren 24tik 30era 12 talde aritu ziren lehiari kiroldegian. Larunbatean jokatu zuten finala eta Doneztebeko Bozka Juniors izan zen garaile, Ultzamako Galacteos de Goshua bigarren, eta Elizondoko Zarpaiak eta Minabo de Kiev hirugarren eta laugarren.

Lehenbiziko lau taldeak sarritzeaz gain, bakarkako sariak ere banatu zituzten: Imanol Goienetxe elbetarra izan zen pitxitxia, 13 golekin; Imanol

Del Campo elizondorra atezainik hobereena; eta Markel Jabalera doneztebarra jokalaririk onena.

Akitzeko, bildutako dirua eman zieten elkarteei. Saray Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkarteari 1.500 euro eman zizkioten, eta Biziraun suizidioz hildakoen familia eta lagunen elkarteari bertze 1.500 euro. Antolatzaileen erranetan, «txapelketa arras ongi joan zen eta batez ere azken egunetan kristoren giroa sortu zen. Esker mila taldeei, boluntarioei, babesleei eta hurbildu zen jende guziari».



Zarpaiak talde elizondorra izan zen hirugarren. ONDDO CUP



Minabo de Kiev taldea izan zen azken saritua, laugarren sailkatuta. ONDDO CUP

647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak,
argiztapen-azterketak
eta elektrizitate lanak orokorrean



Gisa guztietako zaborrak ageri dira edukiontzi berdeetan. MARIFA ETA KORO

Zabor bilketak arazo handiak sortzen ditu oraindik herrian

Edukiontzi berdeetan nahasiak botatzen dira oraindik eta Pazelaiko eremuan ardi-ilea botoia agertu da

MARIFA ETA KORO

Arazo handia dugu herrian zaborren bilketarekin. Material bakoitza berari dagokion edukiontzian utzi behar da, baina franko maiz edukiontzi berdeetan nahasiak agertzen dira zernahi gisako zaborrak (kartonak, botoiak, plastikoa, belarra...). Herriko Etxetik, bertze behin, zabor bakoitza bere ontzian uztearen garrantziaz ohartarazi dute.

Bertzalde, Pazelaiko eremuetan ardi-ilea botoia agertu da. Hau egitea debekatuta dago, eta lur-eremuaren nagusiak Sepronatik isuna har-




Ardi-ilea Pazelaiko eremuan.

tzeko arriskua du. Irail-urrian ardi-ilea biltzeko egun bat ematen da, eta etxera etortzen dira. Hori da material hori botatzeko modua. Eguna Herriko Etxetik jakinarazten dute.

45 urtez Zugarramurdira etortzen diren Pilar eta Mavik margolana opari

MARIFA ETA KORO

1978 urtetik honat, urtero-urtero Madriletik herrira etortzen zaizkigun bi lagun baditugu. Urte horretatik honat, hutsik egin gabe, etortzen zaizkigu Pilar eta Mavi. Guantzeko Enkarnitarekin etorri ziren lehenbiziko aldian, eta geroztik Aste Saindu eta bestetan gure artean izaten ditugu beti.



Pilar, oparitutako margolanarekin.

«Herritar sentitzen gara»

Beraiek aipatzen dutenez, aise egin zuten herritarrekin bat, eta herritarrak sentitzen omen dira. Gurekin dauden 45 urte

hauek eskertzeko, Pilarrek egindako margolan eder bat oparitu diote herriari. Koadroan Zugarramurdiko ikuspegi bat ageri da, leze gainetik begiraturaz.



MARIFA ETA KORO

Furgonetaren azken agurra

Argazkian ageri den hori koloreko *Marco Polo* furgoneta hori hamabortz urtez ikusi dugu herriko karrketan goiti eta beheiti. Baina apirilaren 4an despedida eman zitzaion, non, eta plazan... bixtan da! Seguru plaza inguruan dabilen jendeak bere falta sumatuko duela!

VENTA PEIO
GEBAGO EMATEN DITU

BARDIN 31780 Bera
BEHOIA 20305 Iruin
LUZAIDE 31660 Luzaide
DANTXARINEA 31712 Urdax

Egunero irekia, astelehenetik igandera arte
*Abenduaren 25^a eta urtarrilaren 7^a izan ezik

Jantzi-dendak · Lurrin-dendak · Bitxi-dendak · Supermerkatuak · Tabako-dendak
Harategiak · Jabetxeak · Ostatuak · Sugardotegia

www.venta-peio.com Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.) Tel. +34 948 625 130 (Es.)

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!



Mendi itzulian parte hartu zuten mendizaleak. ARANTXA ETA IRAIA

Mendi itzuliaren bigarren edizioa ere arrakastatsua izan da

Hogeita hamar bat mendizale elkartu ziren apirilaren 6an eta hamar kilometroko ibilaldiaren ondotik Koxkan bazkaldu zuten

ARANTXA ETA IRAIA

Apirilaren 6an berriz ere koadrilla ederra bildu zen inguruko mendiez gozatzeko, bigarren urtez segidan egin den Urdazubiko mendi itzulian. Apirileko lehen larunbat goizean goiz, herriko plazan elkartu ziren 30 bat lagun eta hamar bat kilometro inguruko itzulia egin zuten, eguraldi polita lagun zutela. Ondotik, nola ez, Koxka jatetxean bazkari eder batez gozatzeko aukera izan zuten elkartutako herritarrek.

Leorlas auzoko bestetako lagunarteko solasaldi batean



Mendizaleak atsedean hartzen.

sortutako ekimena da mendi itzulia eta Pakito Irigoien mendizalea izaten dute gidari. Ea bada heldu den urtean hirugarren edizioa ere egiten duten.



ARANTXA ETA IRAIA

Herriko besten prestaketa abian

Aurten herriko bestak inoiz baino fiteago ditugunez, prestaketa lanak ere goiz hasi dira. Aste Sainduko besta egunak aprobetxatu eta hainbat gaztek txozna lixatu eta pintatu zuten, itxura polita emanez. Apirilaren 13an ere jende andana bildu zen herriko plazan karpa muntatzeko.



ARANTXA ETA IRAIA

Euskal Herriko Itzulia bitan ikusgai

Apirilaren 2an Euskal Herriko Itzuliaren etapa Dantxarinetik pasa zen, Pantako itzulgunetik. Biharamunean, Ezpeletan hasi zen etapak Dantxarinea zeharkatu eta Telleritik Otsondoko bidea hartu zuen. Ikusle andana hurbildu zen profesionalak lanean ikusteko eta txirrindularitzaz gozatzeko.

KULTURKARI
Diseinu grafikoak | Publizitatea
www.kulturkari.com

Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...

Hainbat euskarri

Era guztietako formatuak eskaintzen dizkizugu zure enpresa bistaratzeko



Saran Astia jokoaren sortu duten hiru burasok. Ezkerretik hasita, Joanes Garcia Basurko, Ana Dutournier eta Benoît Cabanel.

«Gure herriaren historia eta kultura ezagutzeko jokoak da Saran Astia»

BENOÎT CABANEL SARAN ASTIA JOKOAREN EGILEETAKO BAT

Sarako Olhain ikastolarentzat diru iturri xerka hasi, eta Saran Astia izeneko pista jokoak ondu dute ikastolako hiru burasok. Ber gisan, «gure herriaren bertze alde bat erakutsi nahi izan dugu»

G. PIKABEA SARA

Sarako Olhain ikastolarentzat diru iturriak xerkatzen hasi eta Saran Astia izeneko pista joko bat sortu dute Ana Dutournier, Joanes Garcia Basurko eta Benoît Cabanel ikastolako burasok. Bi urteko lanaren emaitzak joan den urteko udan ikusi zuen argia, eta erantzun ona izaten ari da. Bertako eta kanpoko jendearentzat egin dute, hamabi urratsetan 24 enigma ebatzi eta bukaeran altxorra atzemateko. Hala, «postaletako herri ttipi famatu» horretatik at, «gure herriaren bertze alde bat erakutsi» nahi izan dute. Frankismotik ihesi, Sarara joan zen aitatxi baten bizia segituz osatu dute jokoak.

Hain justu haren gutuna da guztiaren abiapuntua.

Nondik sortu zitzaizuen jokoak egiteko ideia?

Holako pista jokoak eginak zizuten bertze herrietan, bai Frantzian, bai Euskal Herrian: Montpellierran, Azkainen, Parisen, Bordelen... Manera hori interesgarria atzeman genuen Sarako historia, herria eta kultura deskubritzeko. Gainera, Sarara kanpoko jen-

dea etortzen da eta gure herria eta kultura gure maneran kontatzeko aukera bat da, eta bide batez, bertze diru sartze bat.

Nolakoak izan da jokoak garatu bitarteko prozesua?

Lehenik istorio bat sortu genuen. Gure pista jokoaren istorioa aitatxi batena da. Gernikakoa zen, eta bonbardaketaren ondotik, Sarara ihes egin zuen. Eresoinka taldeko kidea zen (Eresoinka Gerla Zibilean

«JOKOAK BIZIARAZTEKO NORBAIT ATZEMAN NAHI DUGU»

«SARA EZ DA POSTALETAKO HERRI TTIPI FAMATUA BAKARRIK»

sortutako taldea da, Hego Euskal Herrian bizi zuten egotzen eta euskal kulturaren berri European emateko asmoz sortua) eta Saran maitasuna atzeman zuen. Bigarren Mundu Gerlaren ondotik, Ameriketara joan zen eta han bere familia eraiki zuen. Hil aitzin, bere bilobei Saran altxor bat gorde zuela erranez idatzi zien, baina gutuna ez zen sekula arribatu. Jokoa erosten duenak gutun hori errezibituko du. Bizkarrezurra argi izanda, jokoan inspiratu ginen.

Mugarik izan duzue?

Egia errateko, ez dugu muga handirik sentitu. Sarako Herriko Etxeak sustengatu du proiektua eta gure artean, gure sormenari ez diogu mugarik eman. Erranen nuke zailena, ber momentuan, zerbait dibertigarria eta informatiboa erakitzea zela. Pista joko horren urrats batzuk Euskal Herriari buruzko informazioa da eta, ber gisan, haurrak eta familiak dibertitzea da helburua.

Nondik heldu da Saran Astia jokoaren izena?

Sarako lema dugu *Saran astia*. Sarako jendeak denbora hartzeko fama du. Bizitzeko, pote bat hartzeko, lagunekin mintzatzeko... Bizi garen munduan, familiarekin joko bat egiteko momentutxo bat hartzea, zure hurrekin edo zure familiarekin denbora hartzea, gero eta zailagoa da. Hortakotz, Sarako lema egokia iduri zitzaigun. **Jokoak azalduko zenuke?**

Jokoak bi ordu eta erdi irauten du, guti goiti-beheiti. Jokoa erosten duenak aitatxiren gutuna, Saran mugitzeko planoak eta laguntzeko dokumentuak errezibituko ditu. Jokoa herriko etxearen aitzinean hasten da. Ez da material berezirik behar eta edozein adinetakoak egiten ahal du. Badira hamabi urrats eta urrats bakoitzean hitz gako bat atzemateko enigma bat izanen da. Hitz gako guzkiek altxorrera eramanez dute, eta bertze enigma bat hurrengo urratsa non den jakiteko da. Enigmak edozein



Joan den udan estreinatuta zuten jokoak eta erantzun ona izaten ari dela kontatu du Cabanelek.

gisatokoak dira: ingurumenaren behaketa, puzzleak, idaztekoak... Jokoa lau hizkuntzatan dago: euskaraz, frantsesez, espainolez eta ingelesez.

Zergatik lau hizkuntzatan?

Sararat etortzen diren pertsona guzietan proposatu nahi diegu jokoa, euskara erabiltzen dutenei eta erabiltzen ez dutenei. Ez dugu ahantzi behar udan Sarara kanpotar pila etortzen dela, batzuk arratsalde batentzat justu. Haiei ez badiegu guk egiten, nork kontatuko die gure historia?

Zerk egiten du joko hau berezi?

Jokoa osoki euskaraz pentsatua izan da. Jokoa bertze hizkuntza batean erosten baduzu ere, euskaraz jostatzen ahalko zara. Hitz gako guztiak euskaraz atzeman behar dira. Ondorioz, euskararen erabilpena eta deskubritzea jokoa erdigunean dira. Hartarako, hiztegi ttipi bat utzi diegu euskaraz ez dakitenei.

Frankismoa, Gernikako bonbardaketa, Eresoinka taldea, Ameriketara migrazioak, XVII. mendeko sorgin ehiza... Zergatik gai horiek?

Sara ez da postalak herri ttipi famatu bat bakarrik. Sarak bere historia, bere berezitasuna eta bere nortasuna ditu. Batzuk alde erromantikoa edo



Gutuna, mapa eta jokoa parte hartzeko gainerako dokumentazioa.

tipikoa bakarrik atxikiko dute, baina guk gure herriaren bertze alde bat erakutsi nahi genuen. Sara Euskal Herrian dago, Nafarroarekin muga luzea partekatzen du eta uste dugu gure herria ulertzeko gako batzuk eman behar direla.

Joan den udan estreinatuta zuten, zer moduzko harrera izaten ari da?

Egin ditugun saio guztiak biziki baikorrek izan dira: haurrak, helduak, familiak, kanpotarrak... Kontent gara emankorrek izan direlako. Espero dugu hola segituko duela.

Zer mezu emanen zenuke?

Ez da mezu berezirik. Pista jokoa erosiko dutenek momentu goxo bat pasatuko du-

tela espero dugu, gauzak ikasiz eta plazera hartuz.

Etorkizunera begira baduzue bertze asmorik?

Pista jokoa eginga da, eta orain, desafioa jokoa biziarazteko prest den norbait atzematea da. Hala, datorren urteetan jokoa beti bizirik egonen da.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Informazio praktikoa batzuk beharbada. Jokoa Sarako Turismo Bulegoan salgai da, hamar euro balio du, eroso aritzeko lauzpabertz pertsonentzat eginga da eta ez da material berezirik behar. Idazteko tresna bat eta mugikorra bakarrik, QR kodeak badirelako informazio gehigarria eskuratzeko eta azken enigmarentzat.

Nafarroaren Eguna apirilaren 28an egingen dute Baigorriin

TTIPI-TTAPA

Euskarazko ekitaldien eskaintza oparoa prestatu du aurten ere Baigorriko Basaizea elkarteak. Apirilaren 5etik, mintzaldiak, ikusgarriak, film emanaldiak eta aurkezpenak egin dituzte. Eta hemendik aitzinera, apirilaren 20an Euskal Herria Eguna egingen dute Bixentaenean; apirilaren 27an *Aigure Juaneteak* antzerki musikatua 20:30ean Biletxean; apirilaren 28an Nafarroaren Eguna eta maiatzaren 1ean *Mejillon Tigre* olerki erre-zitaldia Arrosan, 18:30ean.

Nafarroaren Eguna hilaren 28an

Nafarroaren Egunean, 09:00etan merkatua egingen dute Gaineko Plazan eta askaria ikastolara Kuxkuxturekin; 11:00etan desfilea Behereko Plazatik abiatuta dantzariekin, ziganteekin eta musikariekin; 11:30ean ekitaldia elizako plazan egingen dute eta 12:30ean Bas'Hitza eta irrintzia; 13:00etan larrain dantza eta jauziak dantzatzeko aukera izanen da eta 14:00etan ikastolako bazkaria Plaza Xokon.

Behereko Plazan, 11:30ean Rakatapunk elektrotzaranga hasiko da; 13:30ean Gaitistaneke orkestra; 15:30ean Elektrotxorongo elektrotzaranga eta 17:30ean Tukutuku txaranga. Haurren txokoa, 10:00etik 19:00etara puzgarriak, egurrezko jokoak eta aurpegi tindaketa izanen dituzte; 17:00etan Pontx pailazoa eta 18:00etan zirku ikusgarria hasiko dira. Familien txokoa, 15:00etan bertso saio musikatua egingen dute Amets Arzallus, Xabat Illarregi, Ane Labaka eta Miren Amuriza bertsolariekin eta Eneko Sierra eta Beñat Antxustegi musikariekin. 16:30ean dantza ikusgarria hasiko da; 17:30ean Kiki Bordatxo; 20:00etan Cum-bian Berao; 22:30ean Belako eta 00etan Dj Uzkuluz.



Jendetza bildu zen Sarako Idazleen 41. Biltzarrean. GANEX

Amets Arzallus eta Jean Duverdier biltzarrean sarituak

Jende anitz ibili zen Sarako Idazleen 41. Biltzarrean eta bertsolariak eta marrazkilarik hartu zuten Biltzar Saria

GANEX

Sarako Idazleen Biltzarrean berrogeita batgarren edizioa ongi pasatu da pazko astelehenean. Usaian bezala jende anitz ibili da, zeren bazen zer ikusteko. Eguerdian Biltzar Saria ukan dute, Amets Arzallus idazle, bertsolari eta kazetariak eta Jean Duverdier marrazkilaria eta ilustratzaileak. Estofazko leihoretakoek ere izan dute jende, baita mediatekak ere eta haurrek izan dute non josta. Olhain Ikastolak ere izan du bere errekista ostatuan baitzuten beti jendea, kafea eta bertze hartzeko. Jendetza

bildu zen liburu aurkezpenetara eta hauek erostera eta idazleekin solastatzera.

Profesionalen eguna lezean

Biharamunean, apirilaren 2an, profesionalen eguna izan zuten eta Ipar Euskal Herriko historiaz aritu ziren lezeetan egun osoan. *Gora euskal (H) errientsak* eleberrri grafikoaren inguruan performantzia izan zuten, Elkar saltegitiko Peio Uhalten eskutik mintzaldia, bazkaria eta bazkalondoan, Claude Martinez historia irakaslearen mintzaldia eta mahai-ingurua izan zituzten.

Pilotari buruzko antzerkiak egin ditu Olhain ikastolak

Olhain ikastolak egin zuen bere erakusketa apirilaren 5ean kiroldegian. Gaia pilota zuten eta haur guztiek egin dituzte beraien gisako antzerkiak. Izigarri ongi aritu dira haundiak eta ttikiak. Jende anitz bazen etorria sustengatzerat. Eskerrak antolatzaile guziei.



Ikastolako haurren antzerkietako bat.



UTZITAKOA

Larrañaga eta Saint Martin txapeladun

Union Basque Batasuneko esku huskako trinkete txapelketako finalak jokatu zituzten martxoaren 30ean Uztaritzen. Gaztetxoan mailan, Sarako Izarrako Ekhi Larrañagak eta Andoni Saint Martinek 40-29 irabazi zieten Lehuntzeko Eskulari AS taldeko Eneko Malharin eta Xan Hondarragueri.



GANEX

600 kirolari Sara Korrika Trailen

600 baino gehiago izena emanak eta horietatik 590ek bukatu zuten martxoaren 31n Sara Korrika Trail lasterketa. Denek opariak izan zituzten eta Lur Berri gelan talo eta edateko ausarki. Sara Korrika Elkarteak denak eskertu zituen, bai bere kideak baita borondate oneko guziak ere. *Info + 55. orrian.*





Zirikolatz taldekoak ihauterietan. ARTXIBOKOA

45. urtebetetzeko emanaldia prest du Zirikolatz taldeak


'Dantz'Hari' ikusgarria emanen dute 8 eta 74 urte arteko ehun bat dantzarik Larrekon apirilaren 26an eta 27an

JL BESSONART

Senpereko Zirikolatz euskal dantza elkarte herriko bizia- ren zutabe nagusienarik bat da. 45 urte betetzen dituela eta, gaur egungo eta lehenago- goko dantzariak eta zombait musikari *Dantz'Hari* ikusgarria prestatzen ari dira buru belarri. Covid aitzineko proiektua geldirik egon ondoan, orain bi emanaldi plazaratuko dituzte: **apirilaren 26an**, ostiralarekin, 20:30ean, eta **apirilaren 27an**, larunbatarekin, 18:30ean. Jarraian afaria. 8 eta 74 urteko ehun bat dantzarik parte har- tuko dute ikuskizunean.

Zirikolatz liburua

Henri Duhau herriko idazleak liburu eder bat plazaratu berri du. Hemen kondatzen dauzkigu garai bateko bata- sunaren sortzea, garatzea eta independente bilakatzea. Lehen batean Spuc Kiroleri lotua (1972-1979), ondotik bereber ibiliko dena 1980tik aitzina, kirola eta euskal kul- turaren uztartzeak nekeziak ezagutu baitzituen. Senper- tarrendako egiazko altxorra da, argazki anitzek eta pren- tsako artikuluek ilustratzen dutelako. Salgai da Lecuona liburutegian 20 eurotan.



JL BESSONART

SPUC errugbi taldea txapeldun

Izigarriko denboraldia egin ondotik (partida guztiak irabazi ditu, bat salbu), Bidarten apirilaren 6an jokaturako Akitania Berriko R2 mailako finalean, SPUCek Uztaritzeko taldea 35-20 garaitu dute. Hemendik aitzina Akitaniako txapelketan sartzen dira, ondotik Frantziakoan. Suerte on.



JL BESSONART

Maidar Cigarroaren 'Biran den lasaia'

Apirilaren 6an, Larreko kulturgunea betexea zegoen, Maidar Cigarroaren entzuteko, bere azken bi urtetako lan personala aurkeztu baitu, *Biran den lasaia* albumean. Gaualdi gozagarria eskaini dio publikoari. Kantu gehienak euskaraz eman ditu, bizpahiru ingelesez salbu, jendeen atseginerako.

35 arnogile eta 20 liburugile bildu ditu lehen aldiz egin den Atxik azokak

Pazko asteburuan, larunbat eta igandearekin iragan da Inharria baserrian lehen aldi- kotz, ardo eta liburu konpro- metituen azoka. 35 arnogile eta 20 liburugile, nola uztartu gorputzaren eta izpirituaren galderak. Adrien Goudier, *Mahatsa* edari saltegi- ko jabeak,

ekimen horren protagonista genuen, lagun multxo batekin. Hitzaldi, tailer eta kontzertuek osatu dute ekitaldia, ahantzi gabe Ikastolak janari eta edariak eskaini dituela. Biziki erantzun ona ukan dute eta denak pozik dira heldu den urteari begira.



Lehen aldikotz Inharrian eginen dute Atxik azoka. JL BESSONART



SPUCeko berde-beltzak Senperen jokaturako partida batean. UTZITAKOA



Basurdeak etsituak Bidarten.

SPUC txapelkun eta Sarako Izarra finalistak Bidarten

Akitania Berriko bigarren mailako irabazle izan da Senpereko taldea eta hirugarren mailako txapelkunorde Sarakoa

TTIPI-TTAPA

Akitania Berriko errugbi ligako lehen fasea bukatuta, kategoriatu guztietako finalak apirilaren lehen aste honetara irabazteko finalak apirilaren 6an Bidarten jokatu zituzten hirugarren eta bigarren mailako finalak, bietan eskualdeko taldeekin. Lehenik bigarren mailako finala jokatu zuten Sarako Izarrak eta Azkainek eta segidan, bigarren mailakoa Senpereko SPUC eta Ustaritz-Jaxou taldeek. Giro bikaina izan zuten Bidarten. Gogoratu behar da bortsu urtez euskal ligan aritu ondotik, aurten berriz ere

Frantziako Federazioko lehiaketara bueltatu dela Sarako gizonetako taldea. Ligan ere elkarren kontra arituak ziren Sarako Izarra eta Azkaine. Bakoitza bere herrian nagusitu zen (basurdeek 12-9 irabazi zuten Animainean eta azkaingarrak 11-6 gailendu ziren Azkainen) eta final berdinduan, zelai neutralean neurtu zituzten indarrak. Azkaine 27-22 nagusitu zitzaion Sarako Izarrari.

Senpereko SPUC taldeak, aldiz, gozotik dastatu zuen, bigarren mailako finalean Ustaritz-Jaxou taldeari 35-20

irabazita. Izugarriko denboraldia egin du Senpereko taldeak, partida guztiak irabazi baititu, bat salbu. Hemendik aitzinera, Senpereko SPUC taldea Akitaniako txapelketan sartuko da eta, ondotik, Frantziakoan.

BRT Menditarrak euskal ligako txapelketa jokoan

Hegoaldera joz, euskal ligako lehen mailako lehen fasean laugarren izan da Baztango BRT Menditarrak taldea eta orain, txapelkun izateko kanporaketei ekinen dio, hain zuzen, sailkapenean hirugarren izan den Unibertsitario Bilbao Rugby taldearen kontra. Joaneko partida apirilko azken asteburuan jokatu dute Lekarozen eta itzulerakoa maiatzeko lehenbizikoan Bilbon. Talde irabazleak, bertze kanporaketako (Getxo Etorrizuna eta Logroñoko Envases RC Rioja) irabazlearen kontra jokatu du finala maiatzaren 25ean.

Leitzako Plazako XXXI. Pilota txapelketa hastear

Pilota hotsak adituko dira berriz ere Leitzako plazan. Aurrera Elkartek XXXI. Pilota Txapelketa antolatzen hasia da eta izena emateko epea zabalik da. Hamabost urtetik gorakoei zuzendutako txapelketa izanen da eta pilota goxoarekin jolastuko dute. Parte hartu nahi dutenek apirilaren 26a baino lehenago eman beharko dute izena Plaza aseguru etxean eta bikoteko 25 euro ordaindu. Izena ematen dutenen kopuruaren arabera formatua izanen du txapelketak.

Igantzioko eta Irurritako Mendi Duatloiak asteotan

Normalean irailean antolatzen zuten Igantzioko mendi duatloia, baina bosgarren edizioa udaberriera aitzineratu eta apirilaren 21ean egingen dute, igantze honetan. Kirolariak, bana-ka edo binaka, 5,2 km lasterka, 20 km mendi bizikletan eta azken 2,6 km berriz ere lasterka egin beharko dituzte. Irurritako IV. Mendi Duatloia, berriz, maiatzaren 1ean egingen dute. 8,5 km lasterka eta 19,75 mendi bizikletan egin beharko dituzte eta, honetan ere, bakarka edo erreleboka egiteko aukera izanen da.

Bederatzi taldek parte hartu dute Leitzako I. Aretoko futbol txapelketan

TTIPI-TTAPA LEITZA

Martxoaren 28tik 30era jokatu zuten Aurrera Elkartek antolatutako Aretoko futbol txapelketaren lehen edizioa. Bederatzi taldek parte hartu zuten txapelketan eta Aurrera Elkarteko jokalariek osatutako taldea izan zen garaile, Yo lo

soñe taldearen aurka jokaturako finala 3-2 irabazita. Hirugarren posturako lehiak Aston Billak 4-2 irabazi zion Sambari. Atezain onena Iñigo Lezea izan zen, golegile nagusiak Bingen Begiristain eta Unai Tijero eta MVP Ibai Sagastibelza.



Lehen aldiz antolatu den areto futbol txapelketako finalistak. AUERRERA KE



Urrestarazu, Astle eta Lacaste, gizonen podiumean. PIERRE EZKURRA



Azkorbebeitia, Etxebeste eta Dinclaux, emakumeen podiumean. PIERRE EZKURRA

Urrestarazu eta Azkorbebeitia nagusi Sara Korrika Trailen

590 kirolarik bukatu zuten 22 kilometroko proba martxoaren 31n eta 64 atera ziren bezperako kilometro bertikalean

GANEX SARA

22 kilometro luze eta 1.600 metroko desnibel positiboa duen Sara Korrika Trailen parte hartzeko izena eman zuten 618 kirolarietatik 590ek lortu zuten helmugara ailegatzea martxoaren 31n. Horien artean, Idiazabalgo Josu Urrestarazu Garcia izan zen bizkorrena

(2.05.07) eta Esclops D'Azun talde frantziarrek Adrienne Astle (2.06.09) eta Romain Lacaste (2.07.05) izan zituen lagun podiumean. Hodei Lujanbio goizuetarra laugarren izan zen (2.08.41). SPUC Lasterkako Geoffroy Mathon bederatzigarren izan zen (2.15.21) eta Gure Txokoako Joseba Lasar-

te beratarra 24. sartu zen, lehena beterranoen bere kategorian. 2016an Oier Ariznabarretak egin zuen proba honen errekorra (1.51.21). Lehen emaztea Oihana Azkorbebeitia izan zen (2.35.24), Larraitz Etxebeste bigarren (2.36.00) eta Sarah Dinclaux hirugarren (2.41.00). Oihana Kortazarrek egin zuen emaztekiaren errekorra 2016an (2.18.37).

Kilometro bertikala bezperan

Joan den urtean bezala, bezperan, larunbat arratsaldearekin, Sara Korrika bertikala egin zuten, 4,5 kilometro luze eta 800 metroko desnibel positiboan duen proba. 64 kirolaririk hartu zuten parte.

Emakumeetan, joan den urtean bezala, Iruñeko Maria Ordoñez izan zen lehena (41.29), bigarren Maud Combarieu (42.16) eta hirugarren Rebeca Mariño (45.14).

Gizonetako lehena, Ascain Elgarrekin taldeko Thibaut Bertrand izan zen (34.35), bigarren, segundo bakarrera, Txurregi taldeko Mikel Beunza (34.36) eta hirugarren Ascain Elgarrekin taldeko Damian San Martin (35.14). Sara Korrikako Jonathan Jules 14. helmugaratu zen (39.11). Denek opariak izan zituzten eta Lur Berri gelan talo eta edateko ausarki. Sara Korrika elkarteak denak eskertu zituen, bai bere kideak baita borondate oneko guziak ere.



UTZITAKOA

Asier Lekuona saratarra txapeldunorde

Iparraldeko Pilota Batzordearen trinketeko amateurren buruz buruko esku huskako txapelketako lehen mailako finala galdu zuen apirilaren 6an Irisarrin Sarako Izarrako Aritz Lekuonak, 19-40, Endaiarrak taldean Asier Aspuru Agorria bizkaitarraren kontra.



ADOS PILOTA

Ez da leitzarren arteko finalik izanen

Adosen txapelketako lehen finalerdia 20-22 galdu zuten Goiuri Zabaletak eta Zabalak, Ruiz de Infante eta Galeanoren kontra Labriten. Larunbat honetan Biarritzen aritzekoak ziren Iturriaga leitzarra eta Orbegozo, Barrokak eta Agirrerren kontra. Finala Antzuolan jokatu dute apirilaren 20an.

APIRILAK 18 - MAIATZAK 2

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

MUSIKA

ETXALAR

Bihotzaren bideko 2. kantu topaketa

Kultur Etxean, apirilaren 20an, 11:00etan.

ORONOZ-MUGAIRI

Baztan Kantuz

Urgainen atarian, apirilaren 21ean, 12:00etan.

ELIZONDO

'Enplego zorionsuago bat' olerki musikatuak

Eñaut Elorrieta eta Iñigo Astizekin.

Arizkunenean, apirilaren 21ean, 18:00etan.

Elizondoko Abesbatza eta Oskarbi Abesbatza

Elizan, apirilaren 27an, 20:30ean.

BERA

Karrikan musika

Toki Onako patioan, apirilaren 24an, 17:00etan.

LESAKA

Organo eta tronpeta

Oscar Cadendo eta Mikel Galardirekin.

Elizan, apirilaren 28an, 18:30ean.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, apirilaren 20an eta 27an, 10:00etatik 14:00etara.

Liburuaren eguneko azoka

Plazan, apirilaren 23an.

LESAKA

Merkatu ttikia

Behoko plazan, apirilaren 27an, 10:00etatik 14:30era.



ZIRIKOLATZ

SENPERE Dantz'Hari ikuskizuna

Zirikolatz euskal dantza elkartearen 45. urtebetetzea. Larrekon, apirilaren 26an 20:30ean eta 27an 18:30ean.

BERA

VIII. Azienda feria

Apirilaren 27an, goizez.

IKUSKIZUNAK

ITUREN

'Nieva ceniza' erakusketa

Herriko Etxeko ganbaran, apirilaren 20tik maiatzaren 5era.

ARANTZA

Bortzirriak dantzan

Plazan, apirilaren 20an, 18:00etan.

LESAKA

Tantirumairu taldeko dantza ikuskizuna

Apirilaren 20an.

'Printze giltzapetua' ipuina

Liburutegian, apirilaren 23an, 17:30etan.

'Luz negra' dantza ikuskizuna

Dinamo Danza taldearen eskutik. Harriondoan, apirilaren 27an, 19:00etan.

DONAMARIA

Ipuin kontaketa

Amaia Elizagoienen eskutik. Erabilera anitzeko gelan, apirilaren 26an, 18:00etan.

'Terapia' antzerkia

Lorena Arangoaren eskutik. Apirilaren 27an, 18:00etan.

BERA

'Hamelin y Aladdin, 2 cuentos en trampolin' antzerkia

Uxane zentroaren eskutik. Kultur etxean, apirilaren 26an, 19:00etan.

AURKEZPENAK

ERRATZU

'Ez erran inori' liburua

Maddi Ane Txoperenarekin. Lixutegian, apirilaren 19an, 19:00etan.

BERA

'Mejor muerto' liburua

Susana Rodriguezekin. Liburutegian, apirilaren 19an, 18:00etan.

'Lurraz beste' liburua

Garazi Arrularekin. Beralandetan, apirilaren 20an, 10:30ean.

ARANTZA

'Gatazken kudeaketa eta elkarbizitza sustatzea'

Oihana Zabaletarekin. Eskolako gimnasioan, apirilaren 23an, 18:00etan.

'Azken etxea' liburua

Arantxa Urretabizkaiarekin. Liburutegian, apirilaren 24an, 18:00etan.

ELIZONDO

'Ez dadin bizitza eten'

Liburutegian, apirilaren 23an, 18:00etan.

LESAKA

'Literatura euskaraz gaur egun'

Beñat Sarasolarekin. Liburutegian, apirilaren 26an, 18:30ean.

PROIEKZIOAK

LEITZA

'Pequeñas cartas indiscretas' filma

Herri Aretoan, apirilaren 20an eta 21ean, 19:30ean.

LESAKA

LABen 50. urteurreneko dokumentala

Harriondoan, apirilaren 21ean, 11:00etan.

IRURITA

'Bizkarsoro' filma eta solasaldia

Lantaldeko kide batekin. Gizarte Bilgunean, apirilaren 26an, 19:00etan.

«Herriko mugimendua erakusten duten berriak biltzen saiatzen gara»

ARANTXA ETXEBERRIA BENGOTXEA URDAZUBIKO GAZTEA



Udaberriko koloreak inguruan zabaltzen hasten direnean, haiei begira gozatzen du Arantxa Etxebarria Bengotxeak. Udazkenarekin batera, gehien maite duen urtaroa da udaberria: «urtaro hauetan sortzen diren koloreak eta giroa aunitz gustatzen zaizkit». Jendearen aldaten ere bistakoa omen da negua joan dela: «herriaren herritarren giroa nagusitzen den momentuak dira».

Bere sorteria deskribatzeko orduan, «Urdazubi, naturaz inguratutako herri ttipi euskalduna» dela nabarmendu nahi izan du eta aurreiritziak albo batera uzteko eskatu du: «kanpokoek Urdazubiz duten ikuspegia aldatuko nuke. Herri erdaldun eta sakanabanatua izatetik urrun dago gure errealitatea eta zenbait komentario entzuteak min ematen digu herritarrei».

Mugarik gabeko herria

«Herri lasaia eta aldi berean mugitua dela» ere aipatu du Urdazubiz hitz egitekorarekin: «herri ttipi batek izaten ahal duen bizitasuna du. Egia da Dantxarinea bezalako auzo bat izateak bizitasun gehiago ematen diola». Kontraesana dirudien arren, «mugarik gabeko herria» dela ere azpimarratu du «mugako herri bat izanda ere, herritarrendako ez dago inongo diferentziarik Ainhoea edo Sara eta Baztanen artean».

Euskara irakaslea da lanbidez eta ergatibo eta deklina-

«KANPOKOEK URDAZUBIZ DUTEN IKUSPEGIA ALDATUKO NUKE»

nabideak irakastearekin batera, «gure hizkuntzarekiko kontzientzia eta maitasuna ere transmititu» nahi die bere ikasleei. Irakasle izanda, irakatsiz ikasteko aukera ere baduela dio: «pertsonekin lan egiteak etengabeko irakaspenera ematen dit. Arras polita da ikasleegandik egunero zerbait ikastea».

Berriemaile

Ez da euskararen bueltan egiten duen ekarpen bakarra, TTIPI-TTAPA aldizkari berriemaile ere bada: «aitzineko berriemaileak utzi zuela ikusi nuen eta TTIPI-TTAPAKo ale aunitzetan Urdazubiko berriak ez zegoela ikusten nuen. Urdazubik ere presentzia behar zuela pentsatu nuen eta Iraia lagunari aipatu nion bien artean Urdazubiko berriak biltzea. Baiezkoa eman eta ordutik gustura ari gara lanean!»

Urdazubiko berrietan, «herriak ematen dituen berri ttipiak» izaten dira nagusi: «herriko mugimendua erakusten dutenak. Herriko irakurleengan pentsatu eta haiek identifikatuak sentituko diren berriak bilatzen ditugu, ulertuko dituztenak».

Orain arte eman dituzten berrien artean bakarren bat aukeratzeko eskatutakoan, ez du zalantzarik egin: «haurrak sortu direla errateak beti ematen du alaitasun berezi bat». Badu beste bat ere gogoan: «joan den urteko Korrikako edizioan urdazubiarrek Nafarroako azken kilometroan lekukoa eraman genuela erratea ere aunitz gustatu zitzaigun». Horrekin lotuta, gustura emanen luke honako albiste

«USTE DUT GERO ETA ELKARTUAGO DAGOEN HERRIA GARELA»

hau: «Korrikaren hasiera Urdazubiz izan dela gustura idatziko nuke, nahiz eta zaila izan». Horregatik, «alaitasuna eta beste lotzen dituen edozein berri» emanda gustura sentitzen dela dio.

Idatzi dituen berriak herriko giroaren erakusle dira eta azken urteetan aldaketa egon dela uste du: «gero eta ekintza gehiago egoten dira herritarrentzat eta horrek bizi gehiago ematen dio herriari».

Denbora libreaz gozatu

Herriko albiste eta argazkiak biltzen ematen du bere denbora librearen zati bat. Gainerakoan, ez da erlojuaren kontra borrokan ibiltzen den horietakoa: «ez naiz arras okupatua bizi den neska bat. Irakurri, familiarekin eta lagunekin egon, ilobekin jostatu, ondoko herrietan dauden zenbait ekitaldietara joan... halaxe gozatzen dut». Musikak ere leku garrantzitsua du bere bizitzan: «musika entzutea aunitz gustatzen zait, hortaz kontzertuetara joatean aunitz gozatzen dut». Irakurtzea ere aunitz maite du, batez ere euskaraz «eta horrekin lotuta, hitz jokoak eta hizkuntzak eskaintzen dituen jokoak ere gustatzen zaizkit». Natura ere gustuko du «eta hark ematen didan lasaitasunaz gozatzea» eta jatea ere aunitz gustatzen zaio: «janari desberdinak eta zapore desberdinak probatzen saiatzen naiz».

Horiek guztiak kontuan hartuta, hari mutur bakoitza lotzen duen plana josi du astebururako: «goizean mendi buelta bat eman lagunekin, bazkari eder bat egin eta gauean kontzertu on batekin hasten den beste bat egin. Biharamunen plan lasaia gozatu izanen nuke: irakurri, familiarekin otorduren bat egin... plana borobila da». Arazo bakarria du egindako proposamenak: «ezin dela asteburuero egin».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN HARTZEKO

MALERREKAN, BAZTANEN EDO BORTZIRIETAN errentan hartzeko etxe bila. Emakume euskalduna, lan finkoarekin, 600 euroren truke, fidantza edo abala jartzeko ere prest, luzerako alokatzeko edota erosteko. ☎686 84 03 80.

LANA

ESKARIAK

Emakume bat lan bila: adinekoak zaintzen ariko litzateke, baita interna moduan ere. ☎666 19 96 14.

Emakume bat lan bila. Laneko erreferentzietekin. ☎641 17 86 51.

Emakume bat interna lanean ariko litzateke. ☎646 40 89 22.

Lan bila. ☎619 80 87 23.

ELIZONDO. Emakume bat interna ariko litzateke. ☎682 68 41 35.

ESKAINTZAK

SUNBILLA. Ariztigain kanpinean lanaldi osoan aritzeko sukaldari laguntzailea behar dute. Ingurukoa izatea eta kobxa izatea beharrezkoa. ☎636 48 83 00 edo 660 79 82 49.

IBARDIN. Benta Gorrian zerbitzari bat behar dute, 12:00etatik 16:00etara lanean aritzeko. Frantsesez jakitea kontuan hartuko dute. Bidali curriculumak bentagorria@hotmail.com helbidera edo telefono honetara. ☎618 00 27 31.

DONEZTEBE. Talleres Santesteban enpresan (Renault) txapa edo pintura lanetan aritzeko langile bila ari dira. Interesa duenak 948 45 02 82 telefonora deitu edo info@talleres-santesteban.com idatz dezake. ☎948 45 02 82 / 638 10 30 21.

SUNBILLA. Espelosen Eraikuntzak enpresak langileak behar ditu. ☎619 41 69 59.

ELIZONDO. Erizain bat behar dute Elizondoko zahar egoitzan lan egiteko. Lehenbailehen hasteko, lanpostu finkoa. Goizez eta arratsaldean lan egiteko. Bidali curriculumak: marazlbaztan.com.

ELIZONDO. Auxiliari bat behar dute Elizondoko zahar egoitzan lan egiteko. Lehenbailehen hasteko. Goizez, arratsaldean eta gauetan lan egiteko. Bidali curriculumak: marazlbaztan.com.

ANIMALIAK

SALGAI

BERA. Border Collie arrazako zakurkumeak salgai. ☎678 33 53 01.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da

ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 euro**

Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta

ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan Bizum bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

ZERBITZUAK

DENETARIK



Baratzeko lurrari edo beste edozein lurri buelta emateko lanak egiten dira motokultorekin. ☎650 39 03 94.

DENETARIK

SALEROSKETAK

Logela osoa salgai. Bi ohatze, ar-mairu bat, mesanotxea, eta komoda batez osatuta dago. Egoera onean. ☎659 76 43 75.



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

Belarra fardo txikitik salgai. ☎618 96 27 74.



BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,39 €
- 1.koa 5,27 €
- 2.koa 5,15 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,50 €
- 1.koa 5,36 €
- 2.koa 5,25 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 150,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,46/5,56 €
- Zaldi-behorrak: 5,08/5,38 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,00/8,10 €
- 8-10 kilokoak: 8,10/8,80 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 94 €

Zerri gizona 1,800 €

Zerramak 0,950€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua martxoaren 29tik apirilaren 5era bitarteko prezioak)



Haurrentzako osagarriak salgai. ☎677 65 33 84.

GALDU-AURKITUAK


Martxoaren 3an Saioa menditik jais-ten ari zela mugikorra galdu dute. markosarasua@gmail.com.



LESAKA. Giltza hau aurkitu dute. ☎948 63 54 58 / 744 48 43 61.



BERA. Giltza hauek agertu dira Toki Ona institutuko patioan. Berako Herriko Etxera eraman dituzte.



ARANTZA. Zakur hau desagertu da. Norbaitek ikusten badu deitu edo idatzi. ☎664 72 45 53.

MOTORRAK

SALGAI



Vespa motorra salgai, 125 cc. Gara-jean egon da luze ibili gabe. Orain momentuan ez da arrankatzen, konpontzeko. ☎669 57 26 64.

URTEBETETZEAK



Silbia Etxarte Abuin lesakarrak apirilaren 20an 8 urte beteko ditu. Zorionak etxekoan partez, eta batez ere Gorka anaiaren partez.



Arantzako **Mikel Barrenetxe Alzurik** 7 urte beteko ditu apirilaren 28an. Zorionak eta aunitz urtez morroxko!! Ongi ospatu zure eguna Arantzako, Erratzuko eta Elizondoko familien partez! 7 muxu haundi!!



Arantzako **Kemen eta Adei Iturria Guruchetek** urte bat eta 3 urte beteko dituzte apirilaren 14an eta 27an. Zorionak eta aunitz urtez etxeko ttikiiei Lesakako eta Arantzako familia guztiaren partez. Muxu pila bat!



Lierni Oteizak 25 urte bete ditu apirilaren 13an. Aunitz urtez!

ARANTZA ZURGINDEGIA
 Klase guzietako zurgin lanak
 Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
 Jose Miguel Errandonea - ARANTZA
 647 810 144 - 626 093 181

GANIX
 Taximen

 948 63 06 69
 Zalain Pol., 11 - BERA
 EUROMASTER zegoen lekuan

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT CLIO EVOLUTION TCE 90 CV
 Estrelnatu gabea 1 km 0
 15.500 € (finantziazio baldintzekin)
www.taleresantesteban.com
 DONEZTEBE - T. 948 450 282
 info@taleresantesteban.com

Herencias y Gestión

Nola banatzen dira notarioaren gastuak herentzia batean?
 Notario gastuak honela banatzen dira: oinordeko bakoitzak bere gain hartu beharko du bereganatuko duen herentzia zatiaren kostua. Herentzia bateratu baten kasuan, banaketa nola egin behar den zehazten duen araudi argirik ez dagoenez, oinordeko guztiei gehien komeni zaien kostuaren zatia hartu beharko du bere gain onuradun bakoitzak.

Zenbat kobratzen du notario batek herentzia bat onartzeagatik?
 Aitorpen hori notario akta baten bidez egiten da, eta horren kostua aldiakorra da. Izan ere, folio kopuruaren, aktari erantsitako dokumentu kopuruaren, herentziaren zenbatekoaren eta abarren arabera alda daiteke kostua. Beraz, ez dago tarifa finkorik egintza honetarako.

Zer ondorio fiskal dituzte herentziak?
 Oinordekoek zergak ordaindu beharko dituzte ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, herentziagatik, legatuagatik edo bertze edozein oinordetzagatik. Eta berdin bizi aseguruaren onuradunek ere, pertsona baten heriotzaren ondorioz konpentsazio ekonomiko baten hartzaila diren neurrian.

Agiriak aurkezteko epea 6 hilabetekoa da, heriotzaren egunetik kontatzen hasita. Hala ere, gibelaratzea eskatu ahal izanzen da, eta horregatik, atzerapen interesak ordaindu beharko dira.

Santiago 55, ELIZONDO 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com

KULTURKARI
 Diseño gráfico | Publicitaria
www.kulturkari.com

WEB orriak

Landetxeak Komertzioak Gremioak...

Ordenagailu, tablet eta mugikorretara egokitua
 Kontaktu formularioa
 Lokalizazio-mapa
 Testu eta argazki galeria
 Hizkuntzak aukeran

ZERBITZUAK

OROIGARRIA

Juana Mari ZUGARRAMURDI ELIZONDO

Pantaleon Txoperenaren alarguna

Lesakan hil zen 2024ko martxoaren 26an,
91 urte zituela

*Maitatua sobera nintzelarik haurra
ez nekien nik zer zen
amaren beharra.
Sarri arte ama.*




ZURE FAMILIA

URTEURRENA

Bernardo REKALDE BARRENETXE

1926-12-14 / 2017-04-15
VII. urtemuga



*Bizitorea eta bizizalea izan zinen.
Halaxe ezagutu zintugun;
halaxe izan nahi genuke.*

ZURE FAMILIA


HILBERRIAK

- **Marcel Herreman**, Sarakoa, martxoaren 11n, 94 urte zituela.
- **Juana Maria Zugarramurdi Elizondo**, Lesakakoa, martxoaren 26an, 91 urte zituela.
- **Maria Vicente Andueza**, Berakoa, martxoaren 27an, 92 urte zituela.
- **M^a Angeles Iparrea Arretxea**, Iruritikoa, apirilaren 2an, 92 urte zituela.
- **Juana Maria Maiza Auzmendi**, Leitzakoa, apirilaren 3an, 76 urte zituela.
- **Julia Lanaspas Santamaria**, Doneztebekoa, apirilaren 3an, 101 urte zituela.
- **Manuel Apeztegia Garbisu**, Berakoa, apirilaren 4an, 84 urte zituela.
- **Juan M^a Etxeberria Etxeberria**, Beintza-Labaiengoa, apirilaren 5ean, 89 urte zituela.
- **M^a Eugenia Ugarte Ariztizabal**, Iruritikoa, apirilaren 8an, 86 urte zituela.
- **Emiliana Ortega Hernandez**, Lesakakoa, apirilaren 8an, 84 urte zituela.

URTEURRENA

Balaxi ANDRESENA ZUBIGARAI

Legasa, 2019ko apirilaren 15ean
V. URTEURRENA



*Itsasoak eraman zintuen,
orain guk zure mendietan
sentituko zaitugu.*

ZURE FAMILIA

Oroigarriak

• Pertsonalizatuak, bikoitzak
edo sinpleak...
• Gutun-azalekin
entregatzen dira

KULTURKARI
Ereina grafiko | Publikatzen
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58

IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara



948 63 74 04 / 948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



BAZTAN
BIDASOA

Heriotza Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com


Betiko taldea zu laguntzeka



IZARRA

HERRI, ZURE ONDOAN
ANIMA PULSADO

Gure burra,
gure jendea,
gure sustraiak



TANATORIOAK

• ELIZONDO • BERA • DONEZTEBE
• ARANTZA • IGANTZI



24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

KONTATU KONTUAK




Errigorako kutxak Lesakara eta Etxalarrera. Errigoraren udaberri honetako kanpainako bi kutxa zozketatu ditu TITI-TTAPAK. Sei galderako lehiaketan galdera guztiak zuzen asmatu dituztenen artean zozketa egin du TITI-TTAPAK eta sarituak Lorea Arangoa Sanzberro etxalartarra eta Olatz Rojo Larralde lesakarra izan dira. Zorionak!



Lozy'seko langileak greban. Otsailaren 20an hasi zuten Lekarozko enpresako langileek grebaldia hitzarmen propioa lortzeko, eta gaur egun enpresaren ekoizpena erabat geldirik dago. Langileak berriz ere Iruñerat joan ziren apirilaren 9an, eta Nafarroako Parlamentuaren aitzinean biltzeaz gain, Qube Pharma enpresarat eraman zituzten aldarrikapenak, Lozy'sen bezero nagusietako bat.



26. Hatsaren Poesia liburua aurkeztu dute. 126 okerkariren –eta tartean, 18 hatsakide berrien– lanak bilduz, apirilaren 7an aurkeztu zuten 26. *Hatsaren Poesia* liburua Senperen. Euskal Herri osoko eta euskal diasporako 26 poeta eta poesiazale Larraldean bildu ziren aurkezpen egunean eta egun borobila izan zuten.



Itxaro Zabaleta leitzarra podiumean. 12 Itxaro Zabaleta leitzarrak hirugarren postua lortu du Ahuntzen Mendi Lasterketan. Elgetan (Gipuzkoa) jokatu zuten proba eta 21 kilometroko ibilbidea osatzeko 2.07.39 denbora behar izan zuen. Oihana Kortazar izan zen irabazlea eta Ainara Uribarri ailegatu zen helmugara bigarren postuan.



'Poperra, Afterra, Utopia' ikuskizuna. *Poperra, afterra, utopia* izeneko ekitaldiaz gozatzeko bi hitzordu izan dira azken asteotan eskualdean: martxoaren 23an Beran eta apirilaren 7an Elizondoko Txokoto ostatuan. Ordukoa da irudia eta bildutakoek Danele Sarriguarte idazlearen eta Miren Narbaiza *Mice* musikariaren ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten.



Leitzako Herri Aretoa bete dute Torrearen 30. urteurrenean. Torreroak jaialdia egin zuten martxo hondarrean Leitzako Torrearen 30. urteurrena ospatzeko. Talde asko igo ziren oholtzara eta giro bikaina sortu zen. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete musikariei, bertaratutako guztiei eta auzolan txandetan aritutako guztiei.

LABIRINTOA

Ai ene, Pelloziri sutan dago. Bere txakurrak (Alaitz du izena) sekulekoak egin dizkio: pilota hauitsi (1), madalenak lapurtu (2), izozkia lurrera bota (3) eta etxean kaka egin (4). Lagun iezaiozu txakur bihurri hori herrapatzen, urrutira ospa egin baino lehen. Zoaz laukiz lauki, aipatutako segida errespetatuz. Banan-banan aurreratu behar dituzu, ezker-eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Gero, pasatu dituzun laukietako hizkiak bata bestearen atzetik jarri eta esatera bat agertuko zaizu. Idatz ezazu!

ZORIONAK!
AINHIZE SUHAS ETCHART!

851. aldizkariko irabazlea zara!



Marrakziak: Garbelle Ubeda (Alairri)

**Plazan bazan egiteak
BADU SARIA!**

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin,
Ttipi-Ttapako Whatsapera: (0034) 774 48 43 61
zure izen-abizenak jarrita.
Ondoa duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!




Laguntzailea:

ibaizabal

ALDEA DAGO

Gaixoa gure Maripurtzil Gaixoa, gainera, zentzu guztietan. Sukarra nahikoa ez, eta amak "mehatxu" egin dio, bere mesedean ari delakoan. Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.



SUDOKUA

Zer ematen zaio gaixo dagoenari? Botika, hain zuzen ere, eta gehienetan nazkarria izaten da. Bete itzazu sudoku honen hutsuneak BOTIKA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (B, O, T, I, K, A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



INTERNETEN ERE BAI!



Kontultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

<http://plazanbazan.eus/>

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus
www.ttipi.eus/ttipi-txartela

851 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Mari Karmen Getxegarai | ELIZONDO
Bua Txabal - Kamiseta bat
Ziortza Barandiaran Olaetxea | LEITZA
Ez kexa - Poltsa bat
Raimundo Lizardi Tranche | IRUÑEA
Irrisarri land - Sarrera bat
Bernar Errandonea Baztanrika | BERA
Biok benta - Bi laguntzako bazkaria
M^o Jose Mitxelena Villabona | GOIZUETA
Mugarki - Sarrera bikoitza
Xabier Durruti Sukilbide | ERRATZU
Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat
Jose Luis Eratsun Ariztegi | ITUREN
Martiko - Lote bat
Izaskun Mielgo Rey | BEINTZA-LABAIEN
Baga-Biga - Hiru CD
Ramon M^o Sein Iguzkiagirre | IGANTZI

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariums.com



Bi sarrera

ONDOO TA PUNTO
www.ondootapunto.com



Kamiseta bat

HARA BI
www.harabi.eus



Poltsa bat eta botila bat

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com



Sarrera bat

IZAR PARK
www.galaripark.eus



Sarrera bat

LA RHUNE
www.rhune.com



Sarrera bat

MAITE MODA
Amedia zeharkamika, 5 DONETZEBE



Kamiseta bat

GARBI
Huarte gotzaina, 19 - Leiza



Saski bat

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGIALETAK



Aprobetxa itzazu Ttipi Txartelak eskaintzen dizkizun abantailak, Ttipi Txartela onartzen duten denda eta zerbitzuetan erosiz.

LIBURUAK

Bi liburu



Deskontuak eta zozketa: Ttipi-Ttapa aldizkari guztietan Ttipi Txartelaren informazioa argitaratzen da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun deskontuak oroitaraziz!

TTARTTALO

www.ttarttalo.eus